


LITERATURA IKASGELAN



Aitor Ortiz de Pinedo



IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA
ZERBITZUA

AURKIBIDEA

SARRERA	3
KRITIKAK IRAKURTZEN	4
POESIAREN DEKLAMAZIOA	34
EZ GATOZ BAT	36
ZEUEEN IDAZLE SEINALATUAK	41
PUZZLEA: "IZAR ONA" J.K. Igerabide	42
IRAKASLEAREN FITXA: "IZAR ONA" J. K. Igerabide	47
ZEIN DA GAIA?	58
ELKARRI KONTATU	64
LITERATURA ETA DEMOKRAZIA	75
IDAZLE OSPETSUAK. ROL-TEKNIKA	84
ZOZO ZURIARENA	89
ARTEA ETA BIZITZA	124
ETA HANDIK GUTXIRA GAUR	129
DAMA TXAKURTXODUNA	151
BIBLIOGRAFIA	153

SARRERA

1. JUSTIFIKAZIOA:

Lan honetan, ipuin literarioak landu ditugu. Asmoa izan da ikuspegi komunikatibo batetik lantzea testuok. Zenbait euskal ipuin ere badira, nahiz eta gehienak mundu zabaleko idazleen kontakizun laburrak izan.

Gogoan izan ditugu, batez ere, ikasle helduak, nahiz eta umeentzat ariketaren bat ere egon. Euskara aldetik EGAtik gorako hizkuntza maila eskatzen da.

Irakurmena landuko da. Baita mintzatzeko aukera ematen duten ariketak ere.

Beste zenbait ariketa, ordea, literaturaren inguruko gaiak jorratzeko dira: kritika literarioak, irakurzaletasunaren inguruan, literaturaren eginkizun soziala...

1.1. Materialak:

Aukeratutako testuak sarean daude publikoaren eskuragarri. Batzuetan, testu horiek txertatu egin ditugu dokumentu honetan. Luzeak diren kasuan interneteko helbidea eman dugu. *Emailuen bloga* izenekoa da Iturririk erabiliena.

Kontuan hartu ditugu, batetik, ipuinen hizkuntzaren kalitatea eta, bestetik, kontakizunen erakargarritasuna.

Testuak bere horretan eman ditugu, inoiz Euskaltzaindiaren arauak aplikatuz aldaketak egin badira ere. Saretik atzitutako testu literarioen ortografia-gaurkotze minimoa besterik ez da egin, eskua gehiegi sartu gabe.

1.2. Ariketen nolakotasuna:

Proposatzen diren ariketak taldeka lan egiteko pentsatuta daude sarri.

Bukatzeko, eskerrak emango dizkiegu IRALERen Dolaretxeko lankideei laguntzagatik:

Bereziki E. Saizi ("Eta handik gutxira gaur" ipuinaren lanketa egin du), eta gainerakoei.

KRITIKAK IRAKURTZEN

Irakurle batzuek egindako kritikak irakurriko dituzue. Lotu izenburuak obren gaineko iritziekin. Jarri zenbakia, idazlea eta izenburua kritika bakoitzari; kritikak desordenatuta daude, eta ez diote jarraitzen lehen orrialdeko hurrenkerari.

1. *Fernando Morillo: Zure arimaren truke*
2. *Iñigo Aranbarri: Zulo bar uretan*
3. *Anjel Lertxundi: Zoaz infernura, laztana.*
4. *Arantxa Agirreurreta: Simone de Beauvoir*
5. *Joseba Sarrionaindia: Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*
6. *Kirmen Uribe: Bilbao-New York-Bilbao*
7. *Harkaitz Cano: Zinea eta literatura-Begiaren ajeak*
8. *Xabier Etxaniz Rojo: Ekialdetik etorri zen enara*
9. *Peru Magdalena: Hutsik*
10. *Iban Zaldua: Euskaldun guztion aberria*
11. *Asel Luzarraga Abaraska*
12. *Josu Waliño Pizarro: Bederatzi ateak*
13. *Xabier Lete: Egunsentiaren esku izoztuak*
14. *Joan Mari Irigoien: Bestea da mundua*
15. *Joseba Sarrionaindia: Gau ilunekoak*
16. *Edorta Jiménez: Ispiluaren kalteak*
17. *Tere Irastorza: Izendaezina*
18. *Pello Lizarralde: Iragaitza*
19. *Joxean Agirre: La lutte finale*
20. *Xabier Montoia: Golgota*
21. *Juanjo Olasagarre: T*
22. *Miren Agur Meabe: Zer da, ba, maitasuna?*

IKASLEAREN KRITIKA ORRIAK:

1. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Liburu honek gustu gazi-geza utzi dit. Pertsonaia bakoitza fijazio bakar batek higiarazten du bizitzan zehar, eta beste pertsonaiaren batekin topo egiten duelarik, bakoitzak bere obsesio paraleloan segitzen du. Egotismoa jainko.

Abaraskaren irudia azkarra eta erranahiz betea den arren, eta idazkera dotorea, bukaeran bizitzaren hutsalergia da nagusitu zaidan sentimendua.

Eta ideia hori bera (bizitzak ez du inongo zentzurik, eta bakoitzak ahal duen moduan betetzen du) nahiko topikoa dela iduritzen zait.

Hori bai, neronen bizitza osatzen duten harremanak are gehiago estimatzen ditut!
(Ziburu)

2. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Galiziako mitologiari eta infernuari buruzko 9+1 narrazio. Azkar irakurtzen da, eta narrazioen arteko oreka mantentzen da liburuan zehar. Infernuaren eta deabruaren gaia oso gutxitan ukitu da euskal literaturan. Beraz, berritasun moduan, gomendagarria da liburu hau.

(Bilbo)

3. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Irakurketa gozoa eskaintzen du liburu honek, sentimenduz betea, eta oso poetikoa izateaz gain, gai asko lantzen dituena, benetan oso gomendagarria.

(Gernika-Lumo)

Min baten arrastoa, amodio baten testigantza. Izugarria bezain ederra.

(Tolosa)

4. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Idazle honen aurreko erreferentzia *Lur bat baratago* zen niretzat, eta aitortu behar dut hark gehiago bete ninduela. Lan hau ere antzeko estilokoa dela uste dut, eta indar gutxiereago du; agian, aurrekoaren eragina izango da. Dena den, berea eman behar zaio eta erraz eta gozatu irakurtzen den horietakoa da, autore honetan ohikoa denez.

(Orexa)

Liburua irakurri eta aste batzuetara Nazario Orberen eta Regina Aldasorenen gorabeherak behin baino gehiagotan etorri zaizkit gogora. Seinale ontzat dut hori nik, alegia, liburua gustatu zaidalako seinaletzat. Zenbaitetan, hasieran batez ere, kontakizuna luze eta astun samarra gertatu zait; trilogiaren estreinako liburukiak aurkezpenekoa izan behar zuelako irudipena izan dut, baina liburuak aurrera egin ahala bi pertsonaje nagusien arteko istorioa tantaka-tantaka gurutzatu da eta azken orriko “Nazario Orbek...” horrek hurrengoan etorriko denaren peskizan jarri nau.

Aurretik erakutsia zuen Joan Marik horrelako nobelak girotzen artista dela, eta, oraingoan ere, XIX. mendearen hondarreko industrializazioaren hasierak euskal munduan izan zuen eragina ongi islatu duela esango nuke.

Idazlearen euskara dotoreaz gozatuz, negu hotzeko patxada ederrean irakurri nahi duenarentzat kontakizun egokia da.

Bukatzeko, galderatxo bat: Joan Mariren idazkera hain garbi eta dotorea izanik, zergatik jartzen ditu tildeak menpeko esaldietako lehenaldiko aditz guztietan? Jarri gabe ere esaldiak primeran ulertzen direla esango nuke.

(Ordizia)

5. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K): Nobela honetan idazlearen arbasoak ezagutuko ditugu. Antzinako garaietako istorioz beteta dago liburua. Sentimenduz azalduak denak. Nahiko anarkikoa iruditu zait Kirmenek hauek guztiak azaltzeko erabili duen modua. Hala ere, gustura irakurri dut. Idazleak bizitza ikusteko hain berea duen era berezia azaltzen zaigu nobela osoan.

(Soraluze)

Hasiera zoragarria duen lan hau aitzina egin ahala maldan beheara doala iruditzen zait, eta pena, pena handia, eman dit. Beharbada helburua sobera altua jarri zuen idazleak nobela (¿?) hau hasterakoan. Hala ere, pasadizo interesgarri eta ederrak ditu eta lan gomendagarria dela iritzi diot.

(Erratzu)

6. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Nahiko erraz irakurtzen den liburua da, hizkuntza samurrekoa eta orrialde gutxikoa. Gai honetan lehen sarrera gisa irakurtzeko oso liburu aproposa iruditzen zait. Baina akats bat nabarmenduko nuke: bertan aipatzen diren film eta liburu batzuk ez dira hain ezagunak edota errazak irakurle ororentzat.

(Oñati)

7. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Kasualitatez erosi nuen, baina ez naiz batere damutu. Ziur nago familian, lagunena edo ezagunen artean bikoterena bat izango dugula Txinara joan dena ume bat adoptatzen. Badakigu zelako nekeza izaten den prozesu hori, eta horixe bera da Xabier Etxaniz Rojok kontatzen diguna liburu honetan. Nola hartu zuten erabakia, zer arazo izan zituzten, Garaziri kontatzea arreba berri bat izango zuela, etxekoen harridura... Engantxatu nauen liburua, eta baita hunkitu nauena ere.

(Getxo)

Nazioarteko adopzioaz ari da Xabier Etxaniz liburu honetan. Gainera, lehenengo pertsona kontatzen dizkigu prozesuaren bizipenak, hausnarketak, hautaketak... Erosi nuenean, eta gaia ezaguturik, narrazio hunkigarriagoa espero nuen, baina noizean behin soilik agertu dira horrela izenda genitzakeen zatiak. Adopzioa ardatz bezala hartuta, idazleak hamaika gai jorratzen ditu narrazioan: prozesuaren burokrazia, beharrezko atzerapena -bere lehen alaba jaio baitzen-, Txinarako bidaia, lagun berriak eta, azkenean,... alaba. Liburuak lehen orrialdetik harrapatzen zaitu, irakurtzeko erraza baita. Egokia. (Galdakao)

8. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Peru Magdalenaren bigarren lana, oraingoan poesiazkoa. Izugarri gozatu dut liburuarekin. Poema laburrak, baina hala ere hausnarketarako gonbidapena egiten dizutenak. Egileak egindako irudiek ukitu berezia ematen diote liburuari. (Getxo)

9. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Euskaldun guztion aberria eleberri motza da, pare bat ordutan irakur daitekeena. Nik neuk barre ederrak bota ditut bertako pasarte umoretsuekin. Kritika zorrotza egiten zaio egungo politikagintzari, arestian esan bezala, umore fin eta sarkastikoarekin. Euskal literaturan ez dut uste horrelako beste aurrekaririk egongo denik, nik dakidala behintzat. Ironia askorekin kontatutako eleberria da. (Soraluze)

Euskal Herritik urruti, euskal literaturaren historia berrasmatzen duen irakasle neskazale baten istorioa da. Ipuin luze bat da nobela baino gehiago. Irratian egilearen azalpenak entzun nituen liburua irakurri aurretik, eta, egia esan, kalterako izan zen: zerbait gehiago espero nuen. Sakonagoa, luzeagoa? Ez dakit, bada. Hori bai, gustura irakurtzeko moduko liburua da, irribarrea ahoan jartzen dizuna une batzuetan.

(Donostia)

10. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Segur aski bere egoera pertsonala dela eta, Sarriren nobedadeak literaturaz haraindira doazen fenomeno soziologikoak izaten dira, eta batzuek haren lumatik (edo teklatutik) ateratzen den guztiaren zain egoten gara, ziklikoki errepikatzen zen errito astrologiko baten aurrean antzinako gizon-emakumeak egoten ziren lez. Oraingo honetan ipuin liburu bi ekarri dizkigu Josebak: *Gau ilunekoak* eta *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*. Aipatutako lehenengoa irakurri dut, debozioz irakurri ere, eta horrelakoetan gertatzen ohi denez, espektatibak ez dira guztiz bete. Errua subjektiboa da oso, eta orokorrean beti gertatzen da horrela: muga oso goian jarri eta ezin heldu. Ipuin luzea da, zeinetan nik metafora argi bat ikusi dudana, eta hemen “argi” berba erabiltzean ez dut hitz-joko errazik egin nahi izan (liburua irakurri duenak ulertuko du zergatik diodan). Metafora esan dut, baina zeren metafora? Gure herriaren egoerarena? Lur planetaren suntsipenarena? Ezjakintasunaren zorion ilunetik ezagutzaren tristezia zolirako pasearena? Hirurena? Horiena eta gehiagorena? Horietariko batena ere ez? Nork bere irakurketa egin dezala. Maite Gurrutxagaren marrazkien teknika xumea bezain efektista iruditu zait. Amaitze aldera, liburuak edizio ederra duela komentatu nahi dut. Krisiagatik, agian, ondo zaindu dute Elkar-ekoek argitalpen hau, saltzeko errekurtsio guztiak martxan jartzen baitituzte. (Santurtzi)

Ez zait gustatu. Beste gauza bat espero nuen. Ipuin metaforikoa da. Ez da ‘argi’ geratzen zeri buruz hitz egiten duen: maila pertsonalaz, gure herriaz. Argiaren bila dabilta. Zer da argia? Gure arazoan irtenbidea? (Tolosa)

11. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Gerra Zibilaren gaia oso landua izan da euskal literaturan, eta liburu honen ikuspuntuari irakurri aurretik uste izan nuen baino originaltasun gutxiago aurkitu diot. Xabier Montoiaren liburu hobeak irakurri ditut. (Gernika-Lumo)

Xabier Montoia idazle onenatarikoa dugu. *Golgotaren* idazketa maisulana izan da. Hala ere, nik baino lehen idatzi duen gasteiztarrarekin bat etorritik, luzea egin zait mojarren bizitzaren pasartea, Pakistangoa batez ere. Gerra Zibilaren gaiak gehiago eman zezakeen eta moja izateari utzi eta gerokoa oso motz gelditzen da, Franco hil aurretik orain artekoa oso orrialde gutxitan kontatuta dagoelako. Beraz, idazketa bikaina, baina argumentu ona, besterik gabe. (Bilbo)

12. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Narrazio laburrez osatutako liburua da, euren artean inolako loturarik gabeko narrazioak, nahiz eta izen bat baino gehiago errepikatzen den. Istorioak kostaldean girotuta daude. Drogak aipatzen dira, garai bateko giro jakin batean kokatzeko, baina hori ez da idazleak nabarmendu nahi duen gaia. Bazterkeria ere ez, nahiz eta ghettoa eta ijitoak (jittanuak) aipatu. Istorio gizatiarrak dira, gure inguruan ikusten direnak eta, neurri batean, geuk ere bizi ditugunak. Idazkera minimalista erabili du Jimenezek, gai bati buruz hainbat hausnarketa egiteko. Filosofiaren eremua ere erabili du kontakizuna garatzeko. Benetako literatura da. (Gasteiz)

Oso gustura irakurri dut. Istorio laburrez osatutako liburu honetan hainbat pertsonaiaren bizitzak agerian geratzen dira beren alde on eta ilunekin.

(Las Carreras-Abanto)

13. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Horrelakoxea da liburu hau, poeta bat hausnartzen. Jainkoa badu ere ardatz, ez du gaia zentzu erlijiosoan aztertzen, gizartearen eta gizakion ikuspegitik baizik. Zer da Jainkoa? galderatik hasi eta beste galdera asko eginez saiaturen da izendaezin hori aztertzen. Bidean, beldurra, bakardadea, amodioa, ni, gu, gizartea eta abar ukitzen ditu. Amaierako Zer da, baina? galderara iristean bere irtenbidea ondoko hau da, nire ustez: gure baitatik abiatu "gure baitakoak ez garela" antzemateko, jaiotzean bezala hiltzean eskumenik ez dugula antzemateko eta bizi ere, bakardadean ezin gintezkeela bizi frogatzeko. Egileak berak Beterriko Liburua aldizkariko elkarrizketan dioen bezala, pixkanaka, lasai eta galderak eginez irakurri behar da liburua. Oso gauza interesgarriak aurkituko ditu irakurleak hori eginez gero.

(Amasa-Villabona)

14. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Oso liburu ona. Alde guztietatik: istorioa, kontatzeko era, sortutako giroa, hizkuntzaren erabilera... Adibide bat jartzearen, bere aurreko *Larrepetitekin* alderatuta (nahiz eta jakin hau ez dela egin behar, baina lagungarri izan daitekeelakoan), haren tonu poetiko eta hizkuntzaren gustu berberak ditu honako honek, baina askoz ere istorio osatuago batekin. Udan irakurri banuen ere, elurra eta hotza sentiarazi zizkidan eta bakardadea eta tristura benetakoak egiten dira, eta ez azalekoak edo antzeztuak. Aurrekoan bezala, ibiltaria dugu pertsonaia, ezezagunekin topo egingo duena, eta bitartean paisaiek eta bere deskribapenek toki nabarmen eta justifikatua hartuko dute liburu osoan. (Alkiza)

15. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Orain dela urte batzuk Joxean Agirreren *Romain zen bere izena* irakurri nuenean sekulako ezuste ona jaso nuen. Liburu ederra, berezia eta konplexua, baina oso ondo lotutakoa (eta lortutakoa) zen. Orain, berriro datorkigu nortasun zalantzatiko pertsonaia batekin beste liburu arraro honetan. Egia esan izenburuak erakarri ninduen batik bat. Gero, izenburuak aditzera ematen duenetik ez dago horrenbeste baina, tira, kontestua jartzen die pertsonaiei. Zahartzaroak eta horrek dakartzan ondorioek, batez ere sexuarekiko, osatzen dute liburuaren beste zutabea. Pasarte batzuk errepikakorrak egin zaizkit eta beste batzuk sinesgarritasun eskasekoak, baina hori kenduta oso liburu interesgarria iruditu zait, eta guztiz gomendagarria.

(Alkiza)

16. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Itxura eta haria: atseginak. Zazpi herrialdetan jasotako ipuinak: zazpi kontalari (ez dakit egiazkoak edo asmatutakoak), zazpi prisma, zazpi filosofia. “Joseba hartu dugu biltzaile, itzultzaile eta idazkari, pasaporterik eskatu ez digulako”. Aitzakia ederra, polita, originala? Azalpena, letra, espazioak: argiak, lasaiak, atseginak.

Konposizioan garrantzi handia dutenez marrazkiek, aipatu Pedro Oses-enak direla. Xumeak eta goxoak iduritu zaizkit, ‘ingenuo-naif’ kutsu batez.

Mamia: mamiari begira, ez diot ekarpen berezirik sumatu. Marrazkiekin bat, halako ingenuo airea du kontakizunen mamiak ere.

Aitortzen du: “Aspalditik du ume-ipuinak entzuteko gogoia, helduek benetakotzat kontatzen dituzten ipuinak gero eta gutxiago konprenitzen dituelako”.

Umeentzat politak iduritu zaizkit batzuk: “Hondartzako dortoka”, “Muga eta haize hegoa”, “Gauza galduen sarea”...

Helduentzat aire gehiago hartzen diot nik Lehorrera bidea narrazioari. Niretzako, zera dit oroitarazten: gugandik urrutiratu nahiko genukeen hori, horixe bera erakartzen dugula inkontzienteki geure ondora, nahiz eta ez jakin nola demontre egin ohi dugun.

“Gatozen bazterretik ekarri dugu ipuina, euskaraz kontatzeko”, interkulturalitatea eta antzeko hitz potoloak bolo-bolo dabilzkgun garai honetarako.

Euskara, hizkuntza: Ulerterraza, lasaia, alaia. Ongi, txukun, besterik gabe; “albait arinen kontatuak...”, “aitaño eta amañoen etxean...”, “negua den artean...”

(Lesaka)

17. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Orain dela ehun urte jaio zen Parisen Simone de Beauvoir, Frantziako idazlea, feminista eta filosofo existentzialista. Hori aitzakia ederra izan da Arantxa Aguirreurretarentzat haren biografia idatz dezan Elkar argitaletxean. Bestalde, Mariasun Landak hitzaurrea izkiriatu du gutun gisa. Orrialde hauetan Frantziako idazlearen eragina eta harenganako mirespena adierazten ditu Landak .

“Horregatik, agian, Montparnasseko kanposantuan beti duzu arrosaren bat zure hilobian. Neuk ere, hantxe utzi nuen nirea.

Saiakera hau idazteko Arantxa Aguirreurretak Simone de Beauvoirren Memoriak ez ezik haren saiakerak eta haren eleberriak ere irakurri dituela nabaritzen da.

Izan ere, haren esaldi ospetsuenak agertzen dira. Besteak beste: “Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da” 76. orrialdean. Edo Jean-Paul Sartre, bikotekidea, hil zenean esan zuen beste hau: “Haren heriotzak banandu egiten gaitu. Nire heriotzak ez gaitu elkartuko” (110. or.).

Horrez gainera, Simone de Beauvoirren bizimodua azpimarratzen du Urretxuko

egileak. Simone de Beauvoir inoiz ez zen ezkondu, ez zuen seme-alabarik eduki, nahiz eta elkar ezagutu zutenetik elkarrekin egon ziren Simone de Beauvoir eta biak. Aitzindari eta aurrendari hutsa izan zen.

Liburu hau irakurtzean, Pariseko idazleak idatzitako liburuak irakurtzeko gogo handia sortu zait, batez ere *Le deuxième sexe* emakumeari buruzko entsegua eta *La vieillesse* non ekonomia kapitalistan jartzen duen arreta-fokua. Oso saiakera interesgarria eta beharrezkoa idatzi du Arantxa Agirreurretak.

(Gasteiz)

18. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Gauza asko daude nobela honetan. Egileak dio amaitu gabeko doktore tesi batetik abiatuta tesi nobela bat egin duela, baina tesia zein den berak ere ez dakiela. Bada, irakurri ondoren, nik gutxiago. Drama-tragedia, modernoa-postmodernoa, halabeharra (patua)-oraina, arintasuna-sakontasuna, poza-nazka, horrelako hitz kontraste asko aurkitzen ditu irakurleak. Bi pertsonaia zentral daude liburuan: Barrutia irakaslea eta Terese ikaslea. Barrutia Ermuko Foruko kidea da eta Terese euskal alaba, Barrutiak deitzen dion bezala. Barrutiak darama aginte-makila, eta ikaslea tragedia baterantz eramaten saiatzen da. Amaiera bitxia du, ez duzulako horrelakorik espero, ez duelako funtsik. Tartean euskal gatazka ere azaltzen da, arinki bada ere. Nobela interesgarria iruditu zait, baina patxada hartuta irakurri beharrezkoa. Nik behintzat erne-erne irakurri dut irakaslearen eta ikaslearen arteko jokoak, eta baita tragediari buruzko saio zatiak ere. Baina, amaieran, atzera begiratuta, hutsune handi bat sentitu dut, liburuaren haria galtzen denean gertatu ohi den bezala.

(Amasa-Villabona)

19. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Freskoa, orijinala, hala mamiari nola edizioari begiratzuz gero. Liburuak ez du kontrazalik, bi aldeetatik irakurtzen da: alde batetik hasita, neska gazte baten ahotsa aurkituko du irakurleak, eta, bestetik, mutil baten eguneroko gisakoa. Izenburuan bertan iragarri legez, maitasuna da ardatza. Maitemintzearen gazi-goza. Gaztetxoentzat liburu aproposa da. Baliteke noiz edo noiz sinesgarritasuna kolokan egotea, bi gaztetxoek idazteko era euren adinerako helduegia-edo iruditu zait zenbaitetan; baina gomendagarria da, hala ere. Gustura irakurtzeko modukoa.

(Donostia)

20. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Anjel Lertxundi itzuli da beste maisulan batekin. Primeran azaltzen du nola sufritzen duen emakume batek etengabe tratu txarrak ematen dizkion senar batekin. Bukaerak antz handia du *Postariak bi aldi^z deitzen du beti* liburuarenarekin. Istorioa hiru narratzailek kontatzen dute: narratzaile orojakileak, kartzelako psikologoak eta protagonistak berak sumarioan azaldutakoarekin. Hiruren artean biribiltzen dute istorioa. Beraz, guztiz gomendagarria da liburu hau.

(Bilbo)

“Muturreko egoeran dagoen emakumearen sufrimenduaren berri emateko ahalegin zintzoa da liburu”. Horrela definitu zuen Anjel Lertxundik bere azken liburu elkarrizketa batean. Eta, nire ustez, bere helburua lortu du zalantzarik gabe. Euskara freskoan, narrazioak lehen orrialdetik harrapatu nau. Lertxundik

eleberriari emandako erritmoak asko laguntzen du. Rosa protagonistak kartzelan ezagutu zuen gizarte-langilea erabiltzen du idazleak narratzaile gisa, eta Rosa bera ere bai. Erritmoa eta distantzia aldatzen ditu horrela. Zoritxarrez, gaurkotasuna duen gaia dugu emakumeen kontrako gehiegikeriena eta bere gordintasunean, maisuki kontatzen digu idazleak nola sufritzen dituen Rosak etengabeko jipoi eta irainak. Liburuaren amaiera hasieratik argi zegoen arren, agian hilketaren pasartea pixka bat ahul geratu zaio eta sinesgarritasuna zalantza sotilean jarri du. Dena den hilketa ez da inportanteena narrazioan eta mezu hunkigarria gardentasun osoz utzi digu Lertxundik.

(Galdakao)

Anjel Lertxundiren liburuak lehenengo orritik harrapatu nau. Gai delikatu, nolabait esateko, aukeratu du idazleak bere azken lana idazteko. Egia da aktualitateko gaia dela, zoritxarrez, eta egunero zerbait irakurtzen edo entzuten dugula gai honi buruz. Baina morboan erori gabe, hain egoki tratatzea, zaila izan behar duela iruditzen zait; Lertxundik hori lortzen du: liburua lasai eta gustura irakurtzea.

Autoreak hiru narratzaile erabiltzen ditu Rosaren istorioa garatzeko: Rosa bera, protagonista nagusia dena; kartzelako psikologoa eta, hirugarrena, narratzaile xume bat.

Gaia txandaka hiru ikuspuntutatik aurkezteak arintasuna ematen dio narrazioari. Rosaren bizitzan murgiltzen gaituzte narratzaileek eta ikusten dugu Rosak, tratu txarrak etsipenez onartzeaz gain, egiten dizkioten mespretxuak ere ontzat hartzen dituela; gaizki tratatua izatea konstante bat da Rosaren bizitzan, gurasoek abandonatzea, amodio falta, sexu-abusuak eta irainak agertzen baitira haren oroitzapenetan. Irakurterraza da liburua, nahiz eta euskara maila altua izan.

(Burlata)

23. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Gaiak ez nau asko erakarri eta kostatu zait irakurtzea. Aitortu behar, ostera, estilo indartsukoa, eta zirrikitu ugari erakusten dakien liburua dela. Orri batzuetan, gainera, zerbait berezia, freskoa arnasten da. Mendi altu bat igotzea bezalakoa da. Gaina jotzean aire purua sentitzen da biriketan.

(Azkoitia)

Liburuak jorratzen duen gaiak bultzatuta ekin nion liburuaren irakurketari. Gai sakona da lantzen duena eta garai eta hainbat lekutan gertatuko istorioak biltzen ditu, nire ustez horrekin irakurlea gogoeta egitera bultzatzeko asmoz. Ez zait liburu bat irakurtzen hasi eta amaitu gabe uztea gustatzen: Aranbarriren liburuarekin, ordea, kostatu egin zait hori horrela ez izatea. Hizkuntza aldetik oso landua dago baina, arestian aipatutakora itzuliz, amaierara gerturatu arte ez nau lotu. Idazlearen beste liburu batzuk oso gustura irakurri nituen, baina honek, zoritxarrez, ez du aurreikusten nuena bete.

(Anoeta)

23. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

IRITZIA(K):

Zientzia, etika eta giza harremanak lantzen dira liburu honetan era interesgarrian. Liburu bikaina da benetan, oso gustura irakurtzen direnetarikoa.

(Gernika-Lumo)

IRAKASLEAREN ZUZENKETA ORRIAK: Beterriko liburua

1. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

11. Asel Luzarraga: Abaraska

IRITZIA(K):

Liburu honek gustu gazi-geza utzi dit. Pertsonaia bakoitza fijazio bakar batek higiarazten du bizitzan zehar, eta beste pertsonaiaren batekin topo egiten duelarik, bakoitzak bere obsesio paraleloan segitzen du. Egotismoa jainko. Abaraskaren irudia azkarra eta erranahiez betea den arren, eta idazkera dotorea, bukaeran bizitzaren hutsalkeria da nagusitu zaidan sentimendua. Eta ideia hori bera (bizitzak ez du inongo zentzurik, eta bakoitzak ahal duen moduan betetzen du) nahiko topikoa dela iduritzen zait. Hori bai, neronen bizia osatzen duten harremanak are gehiago estimatzen ditut!
(Ziburu)

2. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

12. Josu Waliño Pizarro: Bederatzi ateak

IRITZIA(K):

Galiziako mitologiari eta infernuari buruzko 9+1 narrazio. Azkar irakurtzen da eta narrazioen arteko oreka mantentzen da liburuan zehar. Infernuaren eta deabruaren gaia oso gutxitan ukitu da euskal literaturan. Beraz, berritasun moduan, gomendagarria da liburu hau.
(Bilbo)

3. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

13. Xabier Lete: Egunsentiaren esku izoztuak

IRITZIA(K):

Irakurketa gozoa eskaintzen du liburu honek, sentimenduz betea, eta oso poetikoa izateaz gain, gai asko lantzen dituena, benetan oso gomendagarria.

(Gernika-Lumo)

Min baten arrastoa, amodio baten testigantza.

Izugarrria bezain ederra.

(Tolosa)

4. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

14. Joan mari Irigoien: Bestea da mundua

IRITZIA(K):

Idazle honen aurreko erreferentzia *Lur bat baratago* zen niretzat, eta aitortu behar dut hark gehiago bete ninduela. Lan hau ere antzeko estilokoa dela uste dut, eta indar gutxiago du; agian, aurrekoaren eragina izango da. Dena den, berea eman behar zaio eta erraz eta gozatzuz irakurtzen den horietakoa da, autore honetan ohikoa denez.

(Orexa)

Liburua irakurri eta aste batzuetara Nazario Orbe eta Regina Aldasororen gorabeherak behin baino gehiagotan etorri zaizkit gogora. Seinale ontzat dut hori nik, alegia, liburua gustatu zaidalako seinaletzat. Zenbaitetan, hasieran batez ere, kontakizuna luze eta astun samarra gertatu zait; trilogiaren estreinako liburukiak aurkezpenekoa izan behar zuelako irudipena izan dut, baina liburuak aurrera egin ahala bi pertsonaje nagusien arteko istorioa tantaka-tantaka gurutzatu da eta azken

orriko “Nazario Orbek...” horrek hurrengoan etorriko denaren peskizan jarri nau. Aurretik erakutsia zuen Joan Marik horrelako nobelak girotzen artista dela eta oraingoan ere XIX. mendearen hondarreko industrializazioaren hasierak euskal munduan izan zuen eragina ongi islatu duela esango nuke. Idazlearen euskara dotoreaz gozatuz, negu hotzeko patxada ederrean irakurri nahi duenarentzat kontakizun egokia da. Bukatzeko galderatxo bat: Joan Mariren idazkera hain garbi eta dotorea izanik, zergatik jartzen ditu tildeak menpeko esaldietako lehenaldiko aditz guztietan? Jarri gabe ere esaldiak primeran ulertzen direla esango nuke. (Ordizia)

5. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

6. Kirmen Uribe: Bilbao-New York-Bilbao

IRITZIA(K): Nobela honetan idazlearen arbasoak ezagutuko ditugu. Antzinako garaietako istorioz beteta dago liburua. Sentimenduz azalduak denak. Nahiko anarkikoa iruditu zait Kirmenek hauek guztiak azaltzeko erabili duen modua. Hala ere, gustura irakurri dut. Idazleak bizitza ikusteko hain berea duen era berezia azaltzen zaigu nobela osoan.

(Soraluze)

Hasiera zoragarria duen lan hau aitzina egin ahala maldan beheara doala iruditzen zait eta pena, pena handia, eman dit. Beharbada helburua sobera altua jarri zuen idazleak nobela (¿?) hau hasterakoan. Hala ere, pasadizo interesgarri eta ederrak ditu eta lan gomendagarria dela iritzi diot.

(Erratzu)

6. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

8. Harkaitz Cano: Zinea eta literatura-Begiaren ajeak

IRITZIA(K):

Nahiko erraz irakurtzen den liburua da, hizkuntza samurrean eta orrialde gutxitan.

Gai honetan lehen sarrera gisa irakurtzeko oso liburu aproposa iruditzen zait.

Baina akats bat nabarmenduko nuke: bertan aipatzen diren film eta liburu batzuk ez dira hain ezagunak edota errazak irakurle ororentzat.

(Oñati)

7. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

8. Xabier Etxaniz Rojo: Ekialdetik etorri zen enara

IRITZIA(K):

Kasualitatez erosi nuen, baina ez naiz batere damutu. Ziur nago familian, lagunena edo ezagunena artean bikoterena bat izango dugula Txinara joan dena ume bat adoptatzera. Badakigu zelako nekeza izaten den prozesu hori, eta horixe bera da Xabier Etxaniz Rojok kontatzen diguna liburu honetan. Nola hartu zuten erabakia, zeintzuk izan ziren izan zituzten arazoak, Garaziri kontatzea arreba berri bat izango zuela, etxekoen harridura... Engantxatu nauen liburua, eta baita hunkitu nauena ere.

(Getxo)

Nazioarteko adopzioaz ari da Xabier Etxaniz liburu honetan. Gainera, lehenengo pertsonan kontatzen dizkigu prozesuaren bizipenak, hausnarketak, hautaketak... Erosi nuenean, eta gaia ezaguturik, narrazio hunkigarriagoa espero nuen, baina noizean behin soilik agertu dira horrela izenda genitzakeen zatiak. Adopzioa ardatz bezala hartuta, idazleak hamaika gai jorratzen ditu narrazioan, prozesuaren burokrazia, beharrezko atzerapena -bere lehen alaba jaio baitzen-, Txinarako bidaia, lagun berriak eta azkenean..., alaba. Liburuak lehen orrialdetik harrapatzen zaitu, irakurtzeko erraza baita. Egokia. (Galdakao)

8. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

9. Peru Magdalena: Hutsik

IRITZIA(K):

Peru Magdalenaren bigarren lana, oraingoan poesiazkoa. Izugarri gozatu dut liburuarekin. Poema laburrak, baina hala ere hausnarketarako gonbidapena egiten dizutenak. Egileak egindako irudiek ukitu berezia ematen diote liburuari. (Getxo)

9. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

10. Iban Zaldia: Euskaldun guztion aberria

IRITZIA(K):

Euskaldun guztion aberria eleberri motza da, pare bat ordutan irakur daitekeena. Nik neuk barre ederrak bota ditut bertako pasarte umoretsuekin. Kritika zorrotza egiten zaio egungo politikagintzari, arestian esan bezala, umore fin eta sarkastikoarekin. Euskal literaturan ez dut uste horrelako beste aurrekaririk egongo denik, nik dakidala behintzat. Ironia askorekin kontatutako eleberria da. (Soraluze)

Euskal Herritik urruti, euskal literaturaren historia berrasmatzen duen irakasle neskazale baten istorioa da. Ipuin luze bat da nobela baino gehiago. Irratian egilearen azalpenak entzun nituen liburua irakurri aurretik, eta, egia esan, kalterako izan zen: zerbait gehiago espero nuen. Sakonagoa, luzeagoa? Ez dakit ba. Hori bai, gustura irakurtzeko moduko liburua da, irribarrea ahoan jartzen dizuna une batzuetan.

(Donostia)

10. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

15. Joseba Sarrionaindia: Gau ilunekoak

IRITZIA(K):

Segur aski bere egoera pertsonala dela eta, Sarriren nobedadeak literaturaz haraindira doazen fenomeno soziologikoak izaten dira, eta batzuek haren lumatik (edo teklatutik) ateratzen den guztiaren zain egoten gara, ziklikoki errepikatzen zen errito astrologiko baten aurrean antzinako gizon-emakumeak egoten ziren lez. Oraingo honetan ipuin liburu bi ekarri dizkigu Josebak: Gau ilunekoak eta Munduko zazpi herrialdetako ipuinak. Aipatutako lehenengoa irakurri dut, debozioz irakurri ere, eta horrelakoetan gertatzen ohi denez, espektatibak ez dira guztiz bete. Errua subjektiboa da oso, eta orokorrean beti gertatzen da horrela: muga oso goian jarri eta ezin heldu. Ipuin luzea da, zeinetan nik metafora argi bat ikusi dudana, eta hemen “argi” berba erabiltzean ez dut hitz-joko errazik egin nahi izan (liburua irakurri duenak ulertuko du zergatik diodan). Metafora esan dut, baina zeren metafora? Gure herriaren egoerarena? Lur planetaren suntsipenarena? Ezjakintasunaren zorion ilunetik ezagutzaren tristezia zolirako pasearena? Hirurena? Hauena eta gehiagorena? Hauetariko batena ere ez? Nork bere irakurketa egin dezala. Maite Gurrutxagaren marrazkien teknika xumea bezain efektista iruditu zait. Amaitze aldera, liburuak edizio ederra duela komentatu nahi dut. Krisiagatik agian, ezen saltzeko errekurtsio guztiak martxan jartzen dituela, baina ondo zaindu dute Elkar-ekoek argitalpen hau.

(Santurtzi)

Ez zait gustatu. Beste gauza bat espero nuen. Ipuin metaforikoa da. Ez da ‘argi’ geratzen zeri buruz hitz egiten duen: maila pertsonalaz, gure herriaz. Argiaren bila dabilta. Zer da argia? Gure arazoaren irtenbidea?

(Tolosa)

11. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

20. Xabier Montoia: *Golgota*

IRITZIA(K):

Gerra Zibilaren gaia oso landua izan da euskal literaturan, eta liburu honen ikuspuntuari irakurri aurretik iruditu zitzaidana baino originaltasun gutxiago aurkitu diot. Xabier Montoiaren liburu hobeak irakurri ditut. (Gernika-Lumo)

Xabier Montoia idazle onenatarikoa dugu. *Golgota*ren idazketa maisulana izan da. Hala ere, nik baino lehen idatzi duen gasteiztarrarekin bat etorritik, luzea egin zait mojaren bizitzaren pasarteak, Pakistangoa batez ere. Gerra Zibilaren gaiak gehiago eman zezakeen eta moja izateari utzi eta gerokoa oso motz gelditzen da, Franco hil aurretik orain artekoa oso orrialde gutxitan kontatuta dagoelako. Beraz, idazketa bikaina, baina argumentu ona bakarrik. (Bilbo)

12. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

16. Edorta Jimenez: *Ispiluaren kalteak*

IRITZIA(K):

Narrazio laburrez osatutako liburua da, euren artean inolako loturarik gabeko narrazioak, nahiz eta izen bat baino gehiago errepikatzen den. Istorioak kostaldean girotuta daude. Drogak aipatzen dira, garai bateko giro jakin batean kokatzeko, baina hori ez da nabarmendu nahi duen gaia. Bazterkeria ere ez, nahiz eta ghettoa eta ijitoak (jittanuak) aipatu. Istorio gizatiarrak dira, gure inguruan ikusten direnak eta, neurri batean, geuk ere bizi ditugunak. Idazkera minimalista erabili du Jimenezek, gai bati buruz hainbat hausnarketa eginda. Filosofiaren eremua ere erabili du kontakizuna garatzeko. Benetako literatura da. (Gasteiz)

Oso gustura irakurri dut. Istorio laburrez osatutako liburu honetan pertsonaia ezberdinen bizitzak agerian geratzen dira bere alde on eta ilunekin. (Las Karreras-Abanto)

13. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

17. Tere Irastorza: Izendaezinaz

IRITZIA(K):

Horrelakoxea da liburu hau, poeta bat hausnartzen. Jainkoa badu ere ardatz, ez du gaia zentzu erlijiosoan aztertzen, gizartearen eta gizakion ikuspegitik baizik. Zer da Jainkoa? galderatik hasi eta beste galdera asko eginez saiitzen da izendaezin hori aztertzen. Bidean, beldurra, bakardadea, amodioa, ni, gu, gizartea eta abar ukitzen ditu. Amaierako Zer da, baina? galderara iristean bere irtenbidea ondoko hau da, nire ustez: gure baitatik abiatu "gure baitakoak ez garela" antzemateko, jaiotzean bezala hiltzean eskumenik ez dugula antzemateko eta bizi ere, bakardadean bizi ezin gintezkeela frogatzeko. Egileak berak Beterriko Liburua aldizkariko elkarrizketan dioen bezala, pixkanaka, lasai eta galderak eginez irakurri behar da liburua. Oso gauza interesgarriak aurkituko ditu irakurleak hori eginez gero. (Amasa-Villabona)

14. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

18. Pello Lizarralde: Iragaitzaz

IRITZIA(K):

Oso liburu ona. Alde guztietatik: istorioa, kontatzeko era, sortutako giroa, hizkuntzaren erabilera... Adibide bat jartzearen, bere aurreko *Larrepetitekin* alderatuta (nahiz eta jakin hau ez dela egin behar, baina lagungarri izan daitekeelakoan), haren tonu poetiko eta hizkuntzaren gustu berberak ditu honako honek, baina askoz ere istorio osatuago batekin. Udan irakurri banuen ere, elurra eta hotza sentiarazi zizkidan eta bakardadea eta tristura benetakoak egiten dira, eta ez azalekoak edo antzeztuak. Aurrekoan bezala, ibiltaria dugu pertsonaia, ezezagunekin topo egingo duena, eta bitartean paisaiek eta bere deskribapenek toki nabarmen eta justifikatua hartuko dute liburu osoan.

(Alkiza)

15. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

19. Joxean Agirre: La lutte finale

IRITZIA(K):

Orain dela urte batzuk Joxean Agirreren *Romain zen bere izena* irakurri nuenean sekulako ezuste ona jaso nuen. Liburu ederra, berezia eta konplexua, baina oso ondo lotutakoa (eta lortutakoa) zen. Orain, berriro datorkigu nortasuna zalantzati duen pertsonaia batekin beste liburu arraro honetan. Egia esan izenburuak erakarri ninduen batik bat. Gero, izenburuak aditzera ematen duenetik ez dago horrenbeste baina, tira, kontestua jartzen die pertsonaiei. Zahartzaroak eta horrek dakartzan ondorioek, batez ere sexuarekiko, osatzen dute liburuaren beste zutabea, nortasun difuminatuarenarekin. Pasarte batzuk errepikakorrek egin zaizkit eta beste batzuk sinesgarritasun eskasekoak, baina hori kenduta oso liburu interesgarria iruditu zait, eta guztiz gomendagarria.

(Alkiza)

16. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

5. Joseba Sarrionaindia Munduko zazpi herrialdetako ipuinak

IRITZIA(K):

Itxura eta haria: atsegina. Zazpi herrialdetan jasotako ipuinak: zazpi kontalari (ez dakit egiazkoak edo asmatutakoak), zazpi prisma, zazpi filosofia. “Joseba hartu dugu biltzaile, itzultzaile eta idazkari, pasaportetik eskatu ez digulako”. Aitzaki ederra, polita, originala? Azalpena, letra, espazioak: argia, lasaia, atsegina.

Konposizioan garrantzi handia dutenez marrazkiek, aipatu Pedro Oses-enak direla. Xumeak eta goxoak iduritu zaizkit, ‘ingenuo-naif’ kutsu batez. Mamiak: Mamiari begira, ez diot ekarpen berezirik sumatu. Marrazkiekin bat, halako ingenuo airea du kontakizunen mamiak ere.

Aitortzen du: “Aspalditik du ume ipuinak entzuteko gogoia, helduek benetakotzat kontatzen dituzten ipuinak gero eta gutxiago konprenitzen dituelako”.

Umeentzat politik iduritu zaizkit batzuk: Hondartzako dortoka, Muga eta Haize Hegoa, Gauza Galduen Sarea... Helduentzat aire gehiago hartzen diot nik Lehorrera bidea narrazioari. Niretzako, zera dit oroitarazten: gugandik urrutiratu nahiko genukeen hori, horixe bera erakartzen dugula inkontzienteki geure ondora, nahiz eta ez jakin nola demontre egin ohi dugun. “Gatozen bazterretik ekarri dugu ipuina, euskaraz kontatzeko”, interkulturalitatea eta antzeko hitz potoloak bologolo dabilzkigun garai honetarako.

Euskara, hizkuntza: Ulerterraza, lasaia, alaia. Ongi, txukun, besterik gabe; “albeit arinen kontatuak...”, “aitaño eta amañoiren etxean...”, “negua den artean...”
(Lesaka)

17. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

4. Arantxa Aguirreurreta: Simone de Beauvoir

IRITZIA(K):

Orain dela ehun urte jaio zen Parisen Simone de Beauvoir, Frantziako idazlea, feminista eta filosofo existentsialista. Hau aitzakia ederra izan da Arantxa Aguirreurretarentzat haren biografia idatz dezan Elkar argitaletxean. Bestalde, Mariasun Landak hitzaurrea izkiriatu du gutun gisa. Orrialde hauetan Frantziako idazlearen eragina eta bere mirespena adierazten ditu Landak. “Horregatik, agian, Montparnasseko kanposantuan beti duzu arrosaren bat zure hilobian. Neuk ere, hantxe utzi nuen nirea”

Saiakera hau idazteko Arantxa Aguirreurretak Simone de Beauvoirren Memoriak ez ezik haren saiakerak eta haren eleberriak ere irakurri dituela nabaritzen da. Izan ere, haren esaldi ospetsuenak agertzen dira. Besteak beste: “Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da” 76.orrialdean. Edo Jean-Paul Sartre, bere bikotekidea, hil zenean esan zuen beste hau: “Haren heriotzak banandu egiten gaitu. Nire heriotzak ez gaitu elkartuko”. 110. orrialdean.

Horrez gainera, Simone de Beauvoirren bizimodua azpimarratzen du Urretxuko egileak. Simone de Beauvoir inoiz ez zen ezkondu, ez zuen seme-alabarik eduki,

nahiz eta elkar ezagutu zutenetik elkarrekin egon ziren Simone de Beauvoir et Jean-Paul Sartre. Aitzindari eta aurrendari hutsa izan zen.

Liburu hau irakurtzean Pariseko idazleak idatzitako liburuak irakurtzeko gogo handia sortu zait, batez ere *Le deuxième sexe* emakumeari buruzko entsegua eta *La vieillesse*; liburu honetan ekonomia kapitalistan jartzen du arreta-fokua. Oso saiakera interesgarria eta beharrezkoa idatzi du Arantxa Aguirreurretak.

(Gasteiz)

18. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

21. Juanjo Olasagarre: T

IRITZIA(K):

Gauza asko daude nobela honetan. Egileak dio amaitu gabeko doktore tesi batetik abiatuta tesi nobela bat egin duela, baina tesia zein den berak ere ez dakiela. Bada, irakurri ondoren, nik gutxiago. Drama-tragedia, modernoa-postmodernoa, halabeharra (patua)-oraina, arintasuna-sakontasuna, poza-nazka, horrelako hitz kontraste asko aurkitzen ditu irakurleak. Bi pertsonaia zentral daude liburuan: Barrutia irakaslea eta Terese ikaslea. Barrutia Ermuko Foruko kidea da eta Terese euskal alaba, Barrutiak deitzen dion bezala. Barrutiak darama aginte makila eta ikaslea tragedia baterantz eramaten saiatzen da. Amaiera bitxia du, ez duzulako horrelakorik espero, ez duelako funtsik. Tartean euskal gatazka ere azaltzen da, arinki bada ere. Nobela interesgarria iruditu zait, baina patxada hartuta irakurri beharrekoa. Nik behintzat erne-erne irakurri dut irakasle eta ikaslearen arteko jokoak, eta baita tragediari buruzko saio zatiak ere. Baina, amaieran, atzera begiratuta, hutsune handi bat sentitu dut, liburuaren haria galtzen denean gertatu ohi den bezala. (Amasa-Villabona)

19. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

22. Miren Agur Meabe: Zer da, ba, maitasuna?

IRITZIA(K):

<>Freskoa, orijinala, hala mamiari nola edizioari begiratzuz gero. Liburuak ez du kontrazalik, bi aldeetatik irakurtzen da: alde batetik hasita, neska gazte baten ahotsa aurkituko du irakurleak eta bestetik mutil baten eguneroko gisakoa. Izenburuan bertan iragarri legez, maitasuna da ardatza. Maitemintzearen gazi-gozaak. Gaztetxoentzat liburu aproposa da. Baliteke noiz edo noiz sinesgarritasuna kolokan egotea, bi gaztetxoek idazteko era euren adinerako helduegia-edo iruditu zait zenbaitetan; baina gomendagarria da, hala ere. Gustura irakurtzeko modukoa.
(Donostia)

20. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

3. Anjel Lertxundi: Zoaz infernura, laztana

IRITZIA(K):

Anjel Lertxundi itzuli da beste maisulan batekin. Primeran azaltzen du nola sufritzen duen emakume batek etengabe tratu txarrak ematen dizkion senar batekin. Bukaerak antz handia du *Postariak bi aldiz deitzen du* liburuarenarekin. Istorioa hiru narratzailek kontatzen dute: narratzaile orojakileak, kartzelako psikologoak eta protagonista berak sumarioan azaldutakoarekin. Hiruren artean istorioa borobiltzen dute. Beraz, guztiz gomendagarria da liburu hau.
(Bilbo)

“Muturreko egoeran dagoen emakumearen sufrimenduaren berri emateko ahalegin zintzoa da liburu”. Horrela definitu zuen Anjel Lertxundik bere azken liburu elkarrizketa batean. Eta, nire ustez, bere helburua lortu du zalantzarik gabe. Euskara freskoan, narrazioak lehen orrialdetik harrapatu nau. Lertxundik

eleberriari emandako erritmoak asko laguntzen du. Rosa protagonistak kartzelan ezagutu zuen gizarte langilea erabiltzen du idazleak narratzaile bezala, eta Rosa bera ere bai. Erritmoa eta distantzia aldatzen ditu horrela. Zoritxarrez, gaurkotasuna duen gaia dugu emakumeen kontrako gehiegikeriena eta bere gordintasunean, maisuki kontatzen digu idazleak nola sufritzen dituen Rosak etengabeko jipoi eta irainak. Liburuaren amaiera hasieratik argi zegoen arren, agian hilketaren pasartea pixka bat ahul geratu zaio eta sinesgarritasuna zalantza sotilean jarri du. Dena den hilketa ez da inportanteena narrazioan eta mezu hunkigarria gardentasun osoz utzi digu Lertxundik.

(Galdakao)

Anjel Lertxundiren liburuak lehenengo orritik harrapatu nau. Gai delikatua, nolabait esateko, aukeratu du idazleak bere azken lana idazteko. Egia da aktualitateko gaia dela, zoritxarrez, eta egunero zerbait irakurtzen edo entzuten dugula gai honi buruz. Baina morboan erori gabe, hain egoki tratatzea, zaila izan behar duela iruditzen zait; Lertxundik hori lortzen du: liburua lasai eta gustura irakurtzea.

Autoreak hiru narratzaile erabiltzen ditu Rosaren istorioa garatzeko: Rosa bera, protagonista nagusia dena; kartzelako psikologoa eta, hirugarrena narratzaile xume bat.

Gaia hiru ikuspuntu ezberdinetatik eta horiek tartekatuta lantzeak arintasuna ematen dio narrazioari.

Rosaren bizitzan murgiltzen gaituzte narratzaileek eta ikusten dugu Rosak tratatu txarrak etsipenez onartzeaz gain, egiten dizkioten mespretxuak ere ontzat hartzen dituela; gaizki tratatua izatea konstante bat da Rosaren bizitzan, gurasoek abandonatzea, amodio falta, sexu-abusuak eta irainak agertzen baitira bere oroitzapenetan.

Irakurterraza da liburua nahiz eta euskera maila altua izan. (Burlata)

21. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:

2. Iñigo Aranbarri: Zulo bat uretan

IRITZIA(K):

Gaiak ez nau asko erakarri eta kostatu zait irakurtzea. Aitortu behar, ostera, estilo indartsu, zirrikitu ugari erakusten dakien liburua dela. Orri batzuetan, gainera, zerbait berezia, freskoa arnasten da. Mendi altu bat igotzea bezalakoa da. Gaina jotzean aire purua sentitzen da birikietan.

(Azkoitia)

Liburuak jorratzen duen gaiak bultzatuta ekin nion liburuaren irakurketari. Gai sakona da lantzen duena eta garai eta gune ezberdinetan gertatuko istorioak biltzen ditu, nire ustez horrekin irakurlea gogoeta egitera bultzatzeko asmoz. Ez zait liburu bat irakurtzen hasi eta amaitu gabe uztea gustatzen: Aranbarriren liburuarekin ordea, kosta egin zait hori horrela ez izatea. Hizkuntza aldetik oso landua dago baina, arestian aipatutakora itzuliz, amaierara gerturatu arte ez nau lotu. Idazlearen beste liburu batzuk oso gustora irakurri nituen, baina honek zoritxarrez, ez du aurreikusten nuena bete.

(Anoeta)

22. ZENBAKIA, IDAZLEA ETA LIBURUA:


1. Fernando Morillo: Zure arimaren truke

IRITZIA(K):

Zientzia, etika eta giza harremanak lantzen dira liburu honetan era interesgarrian, liburu bikaina da benetan, oso gustura irakurtzen direnetarikoa.

(Gernika-Lumo)

Akademiako kideen hainbat iruzkin bildu dugu oraingoan ere, irakurri dituzten obren gaineko iritzia azaltzeko. Iritzi guztiak argitaratzeko lekurik ezean, www.111akademia.com helbidean irakur daitezke gainerakoak. Egin zaitez zu ere akademiakide eta bidal diezazkiguzu zure iruzkinak.



POESIAREN DEKLAMAZIOA

<http://www.basquepoetry.net> webgunea baliatuko dugu.

1. Hona hemen literaturan eta bereziki poesian erabili ohi diren ohiko gai zenbait:

maitasuna, gerra, ametsa, heriotza, denbora, natura, sexua, jainkoak, lana, hiria, aberria, historia, heroiak, haurtzarora, dirua, jakintza, mitologia, loa, otoitza, patua, zortea, familia, umeak, zahartzarora, jaiak, ardoa, drogak, musika, artea, erlijioa, hizkuntza, euskara, itsasoa, osasuna, ama, aita, agintariak, arbasoak, gizakia, abereak, urtaroak, industria, aurrerakuntza, garraiobideak, sentimenduak, herri exotikoak, kanpoko jendea, elikagaiak...

2. Zerrendatu zuk gogoko dituzun beste gai batzuk literaturan aurki daitezkeenak:

3. Aukeratu goiko zerrendetatik zure intereseko gako-hitzak:

4. Ordenagailu-gelan, euskal poesiaren webgune horretako gai/hitz bilatzailearen bitartez, bilatu gai horien inguruko poemak.

5. Bilatzaileak hautatzen dituen poemetako aipuak irakurri. Aukeratu hiru poema. Jarri izenburuak:

-
-
-

6. Irakur itzazu zuk aukeratutakoak. Kopia ateratu ikaskideentzat (bana).

7. Ozen eta intonazioa eta adierazkortasuna zainduz irakurri taldearentzat.

IRAKASLEARENTZAKO OHARRA:

Komeniko litzateke irakasleak bere gustuko olerki baten irakurketa egitea lehenik. Adibidez, Kirmen Uriberen hauetariko bat:

LAGUN BAT

Bada gorroto dudan lagun bat
Zuhaitzean gora egin nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez”, esaten dit,
“laprast eroriko zara lurrera”.
Bada gorroto dudan lagun bat.
Futbolean jolastu nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez”, esaten dit,
“ipurdi azpitik sartuko dizute gola”.
Bada gorroto dudan lagun bat.
Gustuko neskarengana hurreratzean
“ez, ez, ez, hobeto ez”, esaten dit,
“ez du zurekin nahiko berak”.
Bada gorroto dudan lagun bat.
Anaia txikiari musu eman nahi diodanean
“ez, ez, ez, hobeto ez” esaten dit
“esnatu egingo da berehala”.
Bada gorroto dudan lagun bat.
Lagun horren izena Lotsa da.
"Ez, ez, ez, inola ez" esaten diot gauero
"bihar ez dizut kasurik egingo bada".

BISITA

Heroina larrua jotzea bezain gozoa zela
esaten zuen garai batean.

Medikuek esaten dute okerrera ez duela egin,
eguna joan eguna etorri, eta lasai hartzeko.
Hilabetea da berriro esnatu ez dela
azken ebakuntzaz geroztik.

Hala ere egunero egiten diogu bisita
Arreta Intentsiboko Unitateko seigarren
kutzara.
Aurreko oheko gaixoa negar batean aurkitu
dugu gaur,
inor ez zaiola bisitara agertu diotso erizainari.

Hilabetea arrebaren hitzik entzun ez dugula.
Ez dut lehen bezala bizitza osoa aurretik
ikusten,
esaten zigun,
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,
maitasun keinu bat besterik ez.

Amak eta biok soilik hitz egiten diogu.
Anaiak lehen ez zion gauza handirik esaten,
orain ez da agertu ere egiten.
Aita atean geratzen da, isilik.

Ez dut gauez lorik egiten, esaten zigun arrebak,
beldur diot loak hartzeari, beldur amesgaiztoei.
Orratzek min egiten didate eta hotz naiz,
hotza zabaltzen dit sueroak zainetan zehar.

Gorputz ustel honi ihes egingo banio.

Bitartean heldu eskutik, eskatzen zigun,
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,
maitasun keinu bat besterik ez.

EZ GATUZ BAT

NOLA EGIN:

1. Iritzi-zerrenda irakurrita, ikasleek ados dauden edo ez esango dute, arrazoiak azalduz.
2. Ikasleak taldeka (3 edo 4 ikasle) jarriko dira, eta puntu bakoitzaren inguruan, euren aukeraren zergatiak azalduko dizkiete taldekideei. Besteak euren iritzira biltzen saiatuko dira,.
3. Talde berriak egin, eta aurreko taldean aipatutakoaren berri emango du ikasle bakoitzak.



“Izan ala ez izan, hori da kontua.
Zer da nobleago, sufritu indar gabe
patuaren gezi mingarriak,
edo arazo-itsasora armaturik abiatu,
haren aurka saiatuz”.

IKASLEAREN FITXA:

- 1. Idazle zenbaiten literaturaren inguruko iritziak irakurriko dituzue ondoren.**
- 2. Esan ados zaudeten ala ez, eta arrazoiak agertu bakarka (hamar minutu dituzue zure parte-hartzea prestatzeko).**
- 3. Taldeka bildu, puntuz puntu zuen ikuspegia eman, eta ahal dela iritziak bateratu.**
- 4. Amaitu duzuenean, talde berriak osatu, eta aurreko bileran aipatutakoa azaldu taldekide berriei.**

- I.** "Elementu ludikorik gabeko literatura, literatura aspergarria da" (J. Cortázar)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

- II.** "Literatura bizitzeko modua besterik ez da" (J. Sarrionandia)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

- III.** "Literatura egiaren bila egindako ibilaldia da" (F. Kafka)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

IV. “Demokraziak eta zoriontasunak ez dute literatura gailenik sortzen”
(M. Vargas Llosa)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

V. “Jainkoa ez da bidegabea; literaturak ez luke lekurik izango gizaki guztiz zoriontsuz betetako mundu batean” (M. Birmajer)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

VI. “Ezin daiteke literatura onik egin asmo onak eta sentimendu zintzoak erabilita” (A. Gide)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

VII. “Dena zekien literaturaz, hartaz nola gozatu izan ezik” (J. Heller)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

VIII. “Literatura eguneroko hizkuntzan egindako bortizkeria antolatua da”
(R. Jakobson)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

IX. “Eleberria beti da irudien bitartez adierazitako filosofia bat” (A. Camus)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

X. “Estudiatzeko biziko nintzateke, bizitzeko estudiantu beharrean” (F. Bacon)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XI. “Maitearekin nagoenean ere, ez nago luzaroan nire lanpararen eta nire liburutegiaren irrika sentitu gabe” (Lord Byron)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XII. “Liburuak lagunik lasai eta iraunkorrenak dira; aholkulari hurbil eta jakintsuenak eta egonarririk handiena duten maisuak” (Ch. W. Eliot)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XIII. “Hauek dira nire zaletasunak: irakurtzea, musika entzutea eta isiltasuna” (E. Sitwell)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XIV. “Irakurtzeak gizaki osoa egiten du, meditazioak gizaki sakona, diskurtsoak gizaki argia” (B. Franklin)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XV. “Bizitzako estutasunetan liburuetatik ateratzen du kontsolamendua jende zuhurrak” (V. Hugo)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XVI. “Libururik gabe ezin ninteke bizi” (Th. Jefferson)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XVII. “Kritikariak filosofoa izan behar du, filosofiatik sosegua ikasiko baitu, inpartzialtasuna eta giza-auzein iragankortasuna” (W. Somerset Maugham)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XVIII. “Literaturak sexuaz dihardu batez ere, eta gutxitan umeak edukitzeaz; eta bizitza kontrakoa da” (D. Lodge)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XIX. “Nire ustez, gizakia hobegarri adela zinez sinesten duen idazlea da benetako literaturgilea” (J. Steinbeck)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

XX. “Literatura norbera bizi den garaia salatzea da” (C. J. Cela)

ADOS ZAUDE? ARRAZOITU ZURE ERANTZUNA:

ZEUEN IDAZLE SEINALATUAK

Prozedura:

Talde txikitan edo binaka, ikasleek euren kideei esango diete zein idazle izan den garrantzitsu euren bizitzan eta zergatik.

Aipa daitezke:

- idazlearen bizitzako zertzeladak
- bere lanak
- literatura-joera
- erakargarri egiten duten ezaugarriak
- anekdotak
- nola ezagutu zuen ikasleak
- idazlanen baten ingurukoak
- jaso dituen kritikak
- ikaskideentzako gomendioak idazle honen inguruan
- norberaren bizitzan nola sartu den
- ...

Ikasleek bost min izango dituzte orrialde batean ideiak jasotzeko, elkarreraginean hasi aurretik.

PUZZLEA: “IZAR ONA” JUAN KRUZ IGERABIDE:

<http://www.berria.info/narrazioak/igerabide.htm>

Gauzak noiz okertzen hasi zitzaizkion berak ere ez zekien ongi. Beharbada, hamabi urterekin, bizikleta eta guzti errekarara amildu, harkaitza jo, eta hankatik betiko herren gelditu zen hartan; edo hamasei urte zituela, izebarekin izan zuen zera hartan (etxetik presaka atera behar izan zuen eta batean eta bestean bizi aurrerantzean, orain apopilo, hurrena pisu kaxkar alokatuan, lan txar askotan bizimodua aterez).

Haurtzaroan, haatik, izar oneko umea izana zen: bizkorra, bizkorrik bazen, eskolan eta kirolean gutxik emango zioten hari; gurasoen, auzokoen eta irakasleen kuttuna izan zen irribarre gozoko haur begi-argi hura.

Urte gogorrak etorri zitzaizkion, baina, gaztaroan; goiz zahartu zen, eta bekokian hiru arrasto nabarmendu zitzaizkion alderik alde. Bazeukan, gainera, neskekiko halako ezintasun bat, izebarenaz geroztik; dantzalekuetan-eta saiatu arren, kosta egiten zitzaion bere adintsuko neska batekin hizketan hastea; halakoetan, edariren bat izan ohi zuen lagun, bazterren batean erdi-uzkurturik, ke eta argi koloreanitzen artean begirada galduta.

Grinaren hormonek gainezka egiten ziotenean eta bakarlanean aserik hartu ezin zuenean, emagalduetara jotzen zuen (ilunpetan aritu behar izaten zuen hartan, eta inoiz ez zien uzten aurpegia musukatzen), nahiz eta gero halako barne-hutsune batekin irten maitetxetik.

Haurtzaroko izar ona, ordea, ez zitzaion zeharo itzali, inondik ere.

Adina iritsi zuenean, trailerrak gidatzeko gida-baimen berezia atera zuen, eta, nahiz eta hasieran hartan lanik aurkitu ez, halako batean, tabernari zebilela, bezero baten bidez etorri zitzaion proportzioa gaixo zegoen gidari baten ordezkotza gisa trailer bat Europan barrena gidatzeko.

Haurtzaroko izar onaren distira argitzen hasi zitzaion atzera, ezen laster eman zioten lanik aski garraiotzan, berak inoiz amestu ere ez zezakeen soldata eta gehigarri ederren truke. Piztuak haurtzaroko buru azkarra ere berpiztu zion; bidaiak aprobetxatuz, kasetekin hizkuntzak ikasten zituen bidean, eta, Europa osoan hara-hona zebilenez, lekuan lekuko hizkuntzak praktikatzeko aukera eman zion horrek; berehala moldatzen zen edonon, eta hainbat hilabeteren buruan dozenerdi bat hizkuntza mintzatzen zituen edonorekin elkar ulertzeko moduan. Horrek, jakina, beste aukera batzuk ere zabaldu zizkion; izan ere, gidaritzaz gainera, beste hainbat lan ere ematen zizkion enpresak, beti ere gainsari ederrak eskuratuz.

Diru ugari zerabilen eskuartean, baina ez zen itsutu; emagalduetarako joera, harrigarriki, galduz joan zen. Bizimodu apala egiten jarraitu zuen, eta, denbora gutxi barru, hiri erdiko pisu eder baten jabe egin zen. Pisua zaharra zen, baina goi mailakoa. Konponketa arin batzuk egin, eta alokairuan ipini zuen, maileguari buelta emateko. Berak apopilotzan jarraitu zuen.

Jai zeukan batean, goiz-goiz ibaiertzetik zuhaizpean ibilaldi bat egin, eta gosaltzera sartu zen kafetegi batera, huraxe baitzuen plazerik handienetako bat jai zeukanean. Hasteko, zuku bat hartzen zuen; gero kafe bikoitza, azukrerik gabe, kremazko bonba pare batekin; gosaria amaiturik, txokolate zati bat ahoan zuela, egunkaria irakurtzen zuen.

Egunkaria irakurtzen ari zen, bada, atzekoz aurrera, berak gustuko zuen bezala, zine gaietan luzatuz (azkenaldian zinerako joera baitzeukan, atsegin zuen kritikak eta erreseinak irakurtzea). Istripu baten berri ere irakurri zuen; istripuen berriak goitik behera irakurtzen zituen, kamioizale izanik arreta berezia ipintzen zuen-eta kontu horietan. Albiste gogorra zen: auto batek euriagatik irrist egin, eta ibaira amildua zen. Senar-emazteak zihoazen bertan; senarra nola edo hala bizirik irtena zen. Emazteak, inondik ere, herio luze samarra jasana zuen, autoa ez baitzen segituan urperatu, ibaiak arrastaka harrien kontra joz eramanik.

Emakume zenduaren izen-abizenak zekartzan egunkariak.

Arnasa eten zitzaion; izena lauzpabost bider irakurri behar izan zuen. "Izeba!". Aspaldian lozorroan zeuzkan irudiak arrapaladan itzuli zitzaizkion gogora: izeba ohean bakarrik, lo; bera haren alboan sartu, arropa pixkanaka kendu, bortxatzen saiatu, izeba garrasika...; etxetik joan behar, joan behar...

Ez zuen adorerik izan hiletara agertzeko; joan bai, joan zen, kilometro asko igarota, baina autoan sarturik egon zen, eliza ikusten zen bihurgune garai batetik begira.

Eta izarra itzali egin zitzaion berriro. Orduan, patarrez gozatu nahi izan zuen behazuna.

Handik egun batzuetara, kamioiarekin errepidetik atera, alkohol-kontrolean positibo eman, lanik gabe geratu..., oso denbora gutxian egin zuen behera. Hilabete latzak etorri ziren atzetik; berebiziko koska kendu zion aurreratuta zeukan diruari, eta pisua ez zuen galdu, bada, alokairuari esker, harekin berdintzen baitzuen maileguarena.

Baina, zer diren gauzak: zulorik zuloenean amildurik zebilela, lan bat bilatzeko ezgauza, parkean eserita patarraren zorabioa noiz joango zegoen batean, haur bat jarri zitzaion aurrez aurre, baloi bat eskuan zuela. Haurrak zer egingo, eta baloia bota zion. Berak, ia automatikoki, hankaz jo eta itzuli zion baloia. Haurrak irribarre egin zion, eta berriro bidali zion baloia. Hala aritu ziren biak denbora batean, baloia hara, baloia hona.

Jolasak halako poz inozo bat piztu zion barnean. Handik pixka batera, haurraren ama hurbildu zitzaien. Haurrak amari ere bota zion baloia, eta hirurak aritu ziren jolas inozo hartan. Nola jakin gabe, hizketan hasi ziren, gero elkarrekin kafe bat hartu zuten...; etxera lagundu zien.

Ustekabean harreman inozo bat sortu zen haien artean. Emakumea bereizita zegoen. Aste gutxi barru, ama-haurrekin jarri zen bizitzen. Gida-baimena berreskuratu, eta banaketa-lanetan hasi zen furgoneta batekin. Hurrena, hiri erdiko pisua zaharberitu zuen, han erosoago biziko zirela eta. Bien lanarekin erraz emango zioten buelta maileguari.

Ohean, hasieran, uzkur ibili zen. Izarra berriro distiraka zeukan, alabaina, eta bere historia guzti-guztia emakumeari aitortzeko adorea atera zuen, berak ere ez zekien nondik.

Emakumea, harrigarriki, ez zen askorik aztoratu aitormenarekin; hark ere behazun asko irentsi, nonbait, bere denboran.

Bizimodu apala egin zuten, baina duina, ordura arte inoiz ez bezainbatekoa. Denbora luze gabe, emakumea haurdun geratu zen, eta poz bat gehiago izan zuten familian.

Emakumeak, zazpigarren hilabete aldera, hala bota zion bat-batean:

– Gurasoak eta osaba ikustera joan behar duzu. Denok joan behar dugu. Orban hori garbitu beharra daukazu. Familia bat osatu duzula ikusten dutenean, dena barkatuko dizute.

Izerdi hotz bat agertu zitzaion kopetan, eta gero gorputz osoan. Harresi ikaragarri bat zegoen beraren eta familiaren artean; harresiaren bestaldekoa ezerezko mundu bat zen, gero eta ezerezagoa. Harresia zulatu eta beste aldera igaro behar al zuen orain?

Eta haurtzaroko izarra keinuka hasi zitzaion berriro, itzaltzeko zorian dagoen kandela-sua bezala.

IRAKASLEAREN FITXA: “IZAR ONA”. J. K. Igerabide

LEHEN PROPOSAMENA: ipuinaren segida ordenatzen.

Istoria lineala da. Zortzi ataletan zatikatu dugu. Ikasleek berrantola ditzatela zortzi fitxak talde txikitan jarrita.

HONAKO HAU DA ORDENA ZUZENA: C, F, E, B, A, D, H, G

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

A ATALA

Egunkaria irakurtzen ari zen, bada, atzekoz aurrera, berak gustuko zuen bezala, zine gaietan luzatuz (azkenaldian zinerako joera baitzeukan, atsegin zuen kritikak eta erreseinak irakurtzea). Istripu baten berri ere irakurri zuen; istripuen berriak goitik behera irakurtzen zituen, kamioizale izanik arreta berezia ipintzen zuen-eta kontu horietan. Albiste gogorra zen: auto batek euriagatik irrist egin, eta ibaira amildua zen. Senar-emazteak zihoazen bertan; senarra nola edo hala bizirik irtena zen. Emazteak, inondik ere, herio luze samarra jasana zuen, autoa ez baitzen segituan urperatu, ibaiak arrastaka harrien kontra joz eramanik.

Emakume zenduaren izen-abizenak zekartzan egunkariak.

Arnasa eten zitzaion; izena lau zpabost bider irakurri behar izan zuen. “Izeba!”. Aspaldian lozorroan zeuzkan irudiak arrapaladan itzuli zitzaizkion gogora: izeba ohean bakarrik, lo; bera haren alboan sartu, arropa pixkanaka kendu, bortxatzen saiatu, izeba garrasika...; etxetik joan behar, joan behar...

Ez zuen adorerik izan hiletara agertzeko; joan bai, joan zen, kilometro asko igarota, baina autoan sarturik egon zen, eliza ikusten zen bihurtune garai batetik begira.

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

B ATALA

Diru ugari zerabilen eskuartean, baina ez zen itsutu; emagalduetarako joera, harrigarriki, galduz joan zen. Bizimodu apala egiten jarraitu zuen, eta, denbora gutxi barru, hiri erdiko pisu eder baten jabe egin zen. Pisua zaharra zen, baina goi mailakoa. Konponketa arin batzuk egin, eta alokairuan ipini zuen, maileguari buelta emateko. Berak apopilotzan jarraitu zuen.

Jai zeukan batean, goiz-goiz ibaiertzetik zuhaizpean ibilaldi bat egin, eta gosaltzera sartu zen kafetegi batera, huraxe baitzuen plazerik handienetako bat jai zeukanean. Hasteko, zuku bat hartzen zuen; gero kafe bikoitza, azukrerik gabe, kremazko bonba pare batekin; gosaria amaiturik, txokolate zati bat ahoan zuela, egunkaria irakurtzen zuen.

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

C ATALA

Gauzak noiz okertzen hasi zitzaizkion berak ere ez zekien ongi. Beharbada, hamabi urterekin, bizikleta eta guzti errekarara amildu, harkaitza jo, eta hankatik betiko herren gelditu zen hartan; edo hamasei urte zituela, izebarekin izan zuen zera hartan (etxetik presaka atera behar izan zuen eta batean eta bestean bizi aurrerantzean, orain apopilo, hurrena pisu kaxkar alokatuan, lan txar askotan bizimodua atereaz).

Hautzaroan, haatik, izar oneko umea izana zen: bizkorra, bizkorrik bazen, eskolan eta kirolean gutxik emango zioten hari; gurasoen, auzokoen eta irakasleen kuttuna izan zen irribarre gozoko haur begi-argi hura

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

D ATALA

Eta izarra itzali egin zitzaion berriro. Orduan, patarrez gozatu nahi izan zuen behazuna.

Handik egun batzuetara, kamioiarekin errepidetik atera, alkohol-kontrolean positibo eman, lanik gabe geratu..., oso denbora gutxian egin zuen behera. Hilabete latzak etorri ziren atzetik; berebiziko koska kendu zion aurreratuta zeukan diruari, eta pisua ez zuen galdu, bada, alokairuari esker, harekin berdintzen baitzuen maileguarena.

Baina, zer diren gauzak: zulorik zuloenean amildurik zebilela, lan bat bilatzeko ezgauza, parkean eserita patarraren zorabioa noiz joango zegoen batean, haur bat jarri zitzaion aurrez aurre, baloi bat eskuan zuela. Haurrak zer egingo, eta baloia bota zion. Berak, ia automatikoki, hankaz jo eta itzuli zion baloia. Haurrak irribarre egin zion, eta berriro bidali zion baloia. Hala aritu ziren biak denbora batean, baloia hara, baloia hona

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

E ATALA

Hautzaroko izar ona, ordea, ez zitzaion zeharo itzali, inondik ere. Adina iritsi zuenean, trailerrak gidatzeko gida-baimen berezia atera zuen, eta, nahiz eta hasieran hartan lanik aurkitu ez, halako batean, tabernari zebilela, bezero baten bidez etorri zitzaion proportzioa gaixo zegoen gidari baten ordezkoko gisa trailer bat Europan barrena gidatzeko.

Hautzaroko izar onaren distira argitzen hasi zitzaion atzera, ezen laster eman zioten lanik aski garraiotzan, berak inoiz amestu ere ez zezakeen soldata eta gehigarri ederren truke. Piztualdiak hautzaroko buru azkarra ere berpiztu zion; bidaiak aprobetxatuz, kaseteekin hizkuntzak ikasten zituen bidean, eta, Europa osoan hara-hona zebilenez, lekuan lekuko hizkuntzak praktikatzeko aukera eman zion horrek; berehala moldatzen zen edonon, eta hainbat hilabeteren buruan dozenerdi bat hizkuntza mintzatzen zituen edonorekin elkar ulertzeko moduan. Horrek, jakina, beste aukera batzuk ere zabaldu zizkion; izan ere, gidaritzaz gainera, beste hainbat lan ere ematen zizkion enpresak, beti ere gainsari ederrak eskuratuz.

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

F ATALA

Urte gogorak etorri zitzaizkion, baina, gaztaroan; goiz zahartu zen, eta bekokian hiru arrasto nabarmendu zitzaizkion alderik alde. Bazeukan, gainera, neskekiko halako ezintasun bat, izebarenaz geroztik; dantzalekuetan-eta saiatu arren, kosta egiten zitzaion bere adintsuko neska batekin hizketan hastea; halakoetan, edariren bat izan ohi zuen lagun, bazterren batean erdi-uzkurturik, ke eta argi koloreanitzen artean begirada galduta.

Grinaren hormonek gainezka egiten ziotenean eta bakarlanean aserik hartu ezin zuenean, emagalduetara jotzen zuen (ilunpetan aritu behar izaten zuen hartan, eta inoiz ez zien uzten aurpegia musukatzen), nahiz eta gero halako barne-hutsune batekin irten maitetxetik

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

G ATALA

Bizimodu apala egin zuten, baina duina, ordura arte inoiz ez bezainbatekoa. Denbora luze gabe, emakumea haurdun geratu zen, eta poz bat gehiago izan zuten familian. Emakumeak, zazpigarren hilabete aldera, hala bota zion bat-batean:

– Gurasoak eta osaba ikustera joan behar duzu. Denok joan behar dugu. Orban hori garbitu beharra daukazu. Familia bat osatu duzula ikusten dutenean, dena barkatuko dizute.

Izerdi hotz bat agertu zitzaion kopetan, eta gero gorputz osoan. Harresi ikaragarri bat zegoen beraren eta familiaren artean; harresiaren bestaldekoa ezerezko mundu bat zen, gero eta ezerezagoa. Harresia zulatu eta beste aldera igaro behar al zuen orain?

Eta haurtzaroko izarra keinuka hasi zitzaion berriro, itzaltzeko zorian dagoen kandela-sua bezala.

“IZAR ONA”

JUAN KRUZ IGERABIDE

H ATALA

Jolasak halako poz inozo bat piztu zion barnean. Handik pixka batera, hauraren ama hurbildu zitzaien. Haurrak amari ere bota zion baloia, eta hirurak aritu ziren jolas inozo hartan. Nola jakin gabe, hizketan hasi ziren, gero elkarrekin kafe bat hartu zuten...; etxera lagundu zien.

Ustekabean harreman inozo bat sortu zen haien artean. Emakumea bereizita zegoen. Aste gutxi barru, ama-haurrekin jarri zen bizitzen. Gida-baimena berreskuratu, eta banaketa-lanetan hasi zen furgoneta batekin. Hurrena, hiri erdiko pisua zaharberritu zuen, han erosoago biziko zirela eta. Bien lanarekin erraz emango zioten buelta maileguari.

Ohean, hasieran, uzkur ibili zen. Izarra berriro distiraka zeukan, alabaina, eta bere historia guzti-guztia emakumeari aitortzeko adorea atera zuen, berak ere ez zekien nondik.

Emakumea, harrigarriki, ez zen askorik aztoratu aitormenarekin; hark ere behazun asko irentsi, nonbait, bere denboran.

BIGARREN PROPOSAMENA: irakaspena hautatzen.

Irakurri J. K. Igerabideren “Izar ona” ipuina. Ostean, aztertu aipu-multzo hauek. Multzo bakoitzetik aukeratu esanguratsuen iruditzen zaizkizun 3 baieztapenak eta duten garrantziaren arabera sailkatu: lehena, bigarrena eta hirugarrena. Ipuineko gertakariekin lotzeko erne egon.

1. Ipuinak iradokitako erakutsi morala: halabeharra.

a) Patua ezin da aldatu.
b) Patuak ziklikoki jokutzen du eta ustekabeen harrapatzen gaitu. Gizakiok gauzak modu ezberdinetan ikusten ditugu bizitzako uneen arabera.
c) Patuaren pean bizi den pertsonak ez du bere libertatean sinesterik.
d) Patuak aukeratzen ditu gure senideak, geuk hautatzen ditugu geure lagunak.
e) Pertsona batek bere eguneroko bizimodua nola gobernatzen duen, halabeharra bera baino garrantzitsuagoa da.
f) “Ero adimendu gabeko hori: ez al dakizu zure zortea ezin duzula aldatu?”

2. Ezinbestea: aipu hauetan gogokoan dituzunak aukeratu

a) Asturua erabat tinkoa eta aldagaitza da.

b) Deitu iezaiozu *adua* nahi baduzu, deitu iezaiozu *karma*. Guztia arrazoiren batengatik gertatzen dela sinesten dut. Nire sinesmena da kalamidade guzti hauetatik atera gaitezen gaudela sortuta.

c) Askotan halabeharra saihesteko egiten ditugun ahaleginek harengana hurbilagotzen gaituzte.

d) Garen horretatik ezin dugu ihes egin; zoriak aukeratzen gaitu.

e) Kontu egin zeure pentsakerei, hitz bihurtuko dira-eta,

Erreparatu zeure hitzei, ekintza bihurtuko dira-eta,

Kontuan hartu zeure ohiturak, izaera bihurtuko dira-eta,

Jabetu zaitetz zeure ekintzez, etorkizun bihurtuko dira-eta.

3. Ados al zaude ipuineko ikuspuntuarekin? Arrazoitu erantzuna.

ZEIN DA GAIA?

- Aurreikusi zein izan daitekeen ipuinaren argumentua, Izenburuari erreparatuta.

Lanerako zaletasuna gutxitzeko pasadizoa¹

Heinrich Böll

Euskaratzailea:

Aingeru Epalza (ortografia moldatua)

Biografia:

Kolonian sortua 1917an, 67 urte zuen beraz Heinrich Böllek zendu zenean. II. Mundu Gerran, soldadu gisa hartu zuen parte armada Alemaniarrean; esperientzia latz honek eta gerla ondokoak ere sortu zioten, hil arte idazlana eta gizatasuna batera lantzeko joera. Bere lehen izkribuak ez zuen 1949ra arte argia ikusiko: "Trena garaiz ailegatu zen" nobela. Hemendik aitzina, bertze hogeit bat lan egingo zituen bakarrik heriotzak moztu ahal izan zuen idazle-bidean. Lan gaitz honi ezagutza publikoa emanik, 1972an Nobel Saria eskuratu zuen.

Gerla ondoan Alemaniak bizi zuen "mirari ekonomiko"aren lekuko izanik ere, ez zen bere lanetan

¹ <http://andima.armiarma.com/korr/korr0812.htm> 2012-05-03

so egile soil gertatu. Aitzitik ere, urte horietan nagusituz doazen klerikalkeria, ejertzittoa, estatua eta erabat ez aienaturiko faszismoaren aurka jo zuen ausarki. Gizarte alemaniarrek erdietsi zuen aisetasun lotarazlea azpikoz goiti iraulkatzen saiatu zen behin eta berriz, mirari horren ondorioz galdutako zuzentasun, oroimen, onginahia eta maitasun ezaren salatzaile bilakaturik.

H. Böllek idatzitako liburu guziek, mamiz eta jitez elkarren artean desberdinak izanagatik, hondarreraino mantendu zituzten hildo nagusi hauek; jarrera ideologiko horiek literaturaz landara jarrera publiko eta ezagunetara maiz bultzatuko zutelarik.

Bizkitartean, bertze gehiagoren ezean hona *Schmec-engatik malkorik bat ere ez* izeneko ipuin liburutik ateratako "Lanerako zaletasuna gutxitzeko pasadizoa"-ren euskal bertsioa, H. Böllen izkribu laburrak nobela luzeak baino ezezagunagoak diren arren, idazle handi honen pentsaera humanistaren eredu apal delakoan.

Europako mendebaldean, itsasertzeko portu batean, lander antzean jantzitako gizon bat dago bere txalupan etzana, lo kuluxkan. Jantzi dotoreko turista bat kolorezko pelikula bat paratzen ari da bere argazki makinan ikuskari idiliko hau fotografiatu beharrez: ortzargia, uhin gailur zuri eta baketsuko itsaso berdea, ontzixka beltza, arrantzale buruko gorria. Klik. Bertze klik bat. Asots ozen, ia ia oldakorrak erdi lo zegoen arrantzalea iratzarri du. Erdi lo altxatu da eta erdi lo bilatu zigarro kutxa. Baina bilatzen ari dena atzeman aitzin, turista arduratiak sudurraren parean jarri dio jadanik berea. Ez dio, ez, zigarroa ahoan sartu, baizik eta eri artean jarri, laugarren klik batek, txiskeroarena oraingoan, gur lehiatsuari bukaera eman diolarik. Ozta-ozta neurtu daitekeen, sekula ere froga ez daitekeen gehiegizko gizabide arin hura dela medio sortu den egoera nekagarria, turistak —bertako hizkuntzaren jakitun— salbatu nahi du orain solasaren bitartez.

—Sarekada ederra eginen duzu egun.

Arrantzaleak burua goiti eta beheiti.

—Bada, eguraldia lagungarri gertatuko omen da.

Arrantzaleak baietz buruari eraginka.

—Ez zara, beraz, itsasoratuko?

Arrantzalea inoka. Handituz doa turistaren urduritasuna. Seguru, lander antzean jantzitako gizon horren ongitasuna ikaragarri interesatzen zaion. Seguru, arrantzalearen aukera galduak izugarri nahigabetu duen.

—Oi! Ez zara zure aise sentitzeen?

Azkenik, arrantzalea keinu hizkuntzatik hitzera pasatuko da.

—Ederki nago —dio—. Ez nahiz behin ere honen ongi egon.

Altxatu da, nagiak atera ditu bere konplexio atletikoa erakutsi nahi balu bezala.

—Ederki nago.

Turistaren begitarteak gero eta harridura handiagoa erakusten ez du jadanik bere barnea, nolabait errateko, lehertzeko menean eman dezakeen galdera atxikitzen ahal:

—Baina, orduan, zergatik ez zara itsasoratuko?

Erantzuna bat-batean ailegatuko da, motz.

—Egun goizean itsasoratu naizelako jadaneko.

—Eta sarekada ona egin duzu?

—Berriz ere ez ateratzeko hainbatekoa. Lau otarrain erratzetan, bi dozena berdela...

Oraingoan arrantzaleak, erabat itzarria azkenik, bere joera ezkibela aldaturik, turistaren bizkarra leunki astindu du zaflada lasaikor batzuk emanez. Turistaren begitarteak darion kezka neurritz gainekoa iruditzen bazaio ere, hunkitu ez duenik ezin uka.

—Aski dut biharkoz eta are etziko ere —dio turistaren gogoa arindu asmoz—. Nere zigarrorik nahi?

—Bai, mila esker.

Zigarroak ahora, bosgarren klik bat. Buruari eraginik, arrotza txaluparen ertzean eseri da. Argazki makina bazter utzi du, erranen duenari indar emateko bi eskuak behar baititu.

—Ez nuke zure aferetan ukondoa sartu nahi —dio— baina, pentsa ezazu egun bitan itsasoratzen zarela, hiru aldiz, lau apika, eta hiru dozena berdela edo lau, hamar behar bada, harrapatzen duzula... atera kontuak.

Arrantzaleak baietz, inoka.

—Atera kontuak, ez egun soilik, baizik eta bihar, etzi, bai, eguraldi aproposalak egun guzietan itsasoratuko bazina, bitan, hiru edo lau aldiz apika... Badakizu zer gertatuko litzatekeen.

Arrantzalea buruari eraginka.


—Urte baten buruan beranduenez izanen zenuke motora bat erosteko hainbat, eta lau urte epe "Kuter" tiki bat behar bada. Ohi denez, bi txalupekin edo kuterrarekin berariaz hagitzez gehiago aterako zenuke urpetik... Egun batez bi kuter izanen zenuke eta orduan —hitzik gabe gelditu da hain hunkiturik baitago—, orduan biltegi frigorifiko tiki bat eraikiko zenuke, ketaztegi bat behar bada, kabana bat geroago, zuhaurren helikopteretik arrain baltsak aurkituko zenituzke eta zure kuterrei irratiz aginduak emanen. Izokinarekiko eskubideak ere zure egin zenitzake, itsas jatetxe bat zabaldu, bitartekorik gabe otarraina Parisa zuzenean esportatu eta gero... — Arrotza berriz ere hitzik gabe dago berotasunaren berotasunez. Burua goiti eta beheiti, biziki kezkatua, oporrek ekarritako alaitasuna antsu galdua, itsasgora bareari so dago, harrapatu gabeko arrainen jauzi jostakinei so—, eta orduan... —dio, baina urduritasunak mutu utzi du behin berriz. Eztarria korapilatu zaion haur bat bailitz, arrantzaleak leunkiro astindu dio bizkarra.

—Orduan, zer? —galdegin dio ahopeka.

—Orduan —berotasun baketsuz mintzo da arrotza— orduan lasaitasun osoz jar zintezke hemen, portuan, eguzkitan lo-kuluxkan egon... eta itsaso ederrari so egin.

—Ez baitut, bada, horixe orain egiten! —dio arrantzaleak—. Ni lasai sentitzen naiz portuan eta aise ematen naiz loxka, baina zure klik horiek aitzitik, honetan segitzea galarazi didate gaurkoan.

Izan ere, pentsati alde egin zuen irakaskizun hau hartu zuen turistak, lehenago berak ere uste baitzuen lan egiten zuela egun batez lan gehiagorik ez egite arren. Ez zitzaion beraz urrikalik gelditu lander antzean jantzitako gizonarenganako, inbidia xume bat baizik.



ELKARRI KONTATU

SARRERA:

Hemen proposatuko ditugun testuak eskuragarri daude dohan interneten, eta irakasleak erraztasunez presta ditzake materialak klasera eramateko.

1. PROZEDURA: nagusientzat. Bizi alegiazkoak

Ikastaldeko pertsona bakoitzari biografia labur bat eskuratuko zaio. Biografien iturria Marcel Schwoben *Bizi alegiazkoak* izango da (22 ikaslerentzat). Taldekideak elkarri testuak kontatzen arituko dira; lehenik kritika bat eta, bigarren, biografiatxo bat. Testu hauek nagusientzat dira egokiak.

Materiala:

- Marcel Schwob. *Bizi alegiazkoak*. (Juan Garzia Garmendiak itzuliak). Ibaizabal: Euba, 2002.

Interneten ere badaude, helbide honetan:

<http://www.armiarma.com/unibertsala/schwob/schwob.htm> (2009-V-20)

1.1. URRATSAK:

- a) LEHENENGO ATALA. Ikasleek, hirunaka, hiru kritika ezberdin jasoko dituzte. Liburu honi egindako iruzkinak irakurriko dituzte; eta gero, alboko bi ikasleei kontatuko dizkiete.

Lehen ikaslearen FITXA:

Zuk kritika bat daukazu; irakurri eta gero saia zaituz inguruko bi ikasleei kontatzen. Eurek euren kontatuko dizute.

Bizi alegiazkoak / Marcel Schwob (*Juan Garzia Garmendia*) / Alberdania, 2002

Bizi harrigarriak Javier Rojo / *El Correo*, 2002-10-30

Marcel Schwob-en “Bizi alegiazkoak” agertu zaigu euskaraz. Idazle honen liburuen euskal itzulpenen kopurua poliki-poliki handituz doa; izan ere, kanpoko idazleen artean gehien itzuli denetako bat da idazle frantziar hau. Honetan idazleak biografiaren ereduari jarraituta egindakoo istorio batzuk kontatzen ditu. Egileak egia eta fikzioaren arteko kontrajarpenarekin jokatzeko lehenengo momentutik, eta agertzen zaizkigun pertsonaien bizitzak benetakoak balira bezala aurkezten zaizkigu.

Irakurleari, ordea, ez zaio axola halako istorioak kontatzen zaizkionean bertan agertzen dena egiazkoa den ala ez. Borges-ek idatzitako “Historia universal de la infamia”k, bestaldetik, asko zor dio lan honi, liburuan bertan aipatzen den bezala, eta irakurlea laster ohartuko da bien arteko antzekotasunez. Pertsonaien bizitzak berezi eta paregabe bihurtzen dituzten osagaiak osatzen dituzte istorio hauen argumentuak. Beti ere galtzaile suertatzen diren pertsonaia patetikoak (ofizioa oso ondo ezagutzen ez duten pirata afizionatuak, adibidez) aukeratu dira, gehienetan, protagonistatzat. Idazlea, ordea, ereduak erakutsi beharrean, pertsonaiak bakan bihurtzen dituzten xehetasun bitxi horien bila dabil, historiaren ertzean.

Bigarren ikaslearen FITXA:

Zuk kritika bat daukazu; irakurri eta gero saia zaitez inguruko bi ikasleei kontatzen. Eurek eurena kontatuko dizute.

Bizi alegiazkoak / Marcel Schwob (*Juan Garzia Garmendia*) / Ibaizabal, 2002

Erretratu bitxiak A. de Amezaga / *Bilbao*, 2002-12

Gazte hil zen, 37 urte zituelarik, baina Marcel Schwob-ek (Cheville, 1867 - Paris, 1905) utzitako lan literarioaren garrantziak bizirik irauten du. Idazlea izateaz gain, kazetaria, kronikagilea eta itzultzailea (Shakespeare, De Foe...) izan zen. Burges familiakoa, literatur munduko adiskide ospetsuak izan zituen: Alfred Jarry, Paul Valéry eta André Gide (honekin haserretuko zen: lan bat plajiatu ziolako, bere esanetan), besteak beste. Bere idatzien bidez, Schwobek errealitatea birsortu nahi izan zuen, imajinazioak eskaintzen zion aukera zoragarriari esker. Euskarara lehenengo aldiz itzuli den lan hau, *Vies imaginaires* izenburupean kaleratu zen 1896an (orain ehun urte eta piku!). 22 erretratu aurkezten dizkigu autoreak: Lukrezio, Petronio, Sufrah, Paolo Uccello, Pokahontas, Walter Kennedy..., garai desberdinetakoak. Antzinatea ondo ezagutzen zuelaren adibide dugu liburu hau (esan Filologia Klasikoa eta Ekialdeko hizkuntzan doktoregoa lortu zuela, Iñaki Aldekoak gogorarazten digunez hitzaurrean). Itzulpena Juan Garzia Garmendiak egin du. Euskal literaturan aski ezaguna, Beckett, James, Shakespeare eta Melville, besteak beste, euskaratu ditu. 1905ean François Villon, betidanik miresten zuen idazleari buruzko liburu bat prestatzen zegoen Schwob heriotza heldu zitzaionean. Behin esan zuen Jorge Luis Borgesek munduko bazter guztietan badirela Marcel Schwoben zale kartsuak elkarte sekretu koxkorrak osatzen dituztenak. Euri eta beste guztioi zuzendua ba itzulpen hau.

Hirugarren ikaslearen FITXA:

Zuk kritika bat daukazu; irakurri eta gero saia zaitez inguruko bi ikasleei kontatzen. Eurek eurena kontatuko dizute.

Bizi alegiazkoak / **Marcel Schwob** (*Juan Garzia Garmendia*) / Alberdania, 2002

Baina izan ote da inoiz Marcel Schwob-ik? Karlos del Olmo / *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-10-26

Marcel Schwob (1867-1905) idazleak bere-bere egiten ditu idazlearen patuaren bi modu: haren idazlanak hainbat zalerentzat berezko argi eta erakarmen iturri izatea, bateko, eta, besteko, idazlea eta obra bera guztiz ahaztuta egotea are literatura unibertsalaren gaineko obretan eta entziklopedia askotan ere. Schwoben mundua korapilatsua da, eruditua, irudimenez josia. Ezin bestela gertatu Borges en beraren miresmena eta gurtza pizten zituen frantses horrekin. Euskaraz, zorionez, beste bi lan genituen lehendik itzulita.

Eta, ezin bestela gertatu, oraingoan Marcelek bere neurriko zapata topatu du Literatura Unibertsala bilduman: Juan Garzia. Borges en lan batzuk bilduma horretantxe euskaraz era zoragarri eta gogoeta eragilean eman zigun itzultzaile ezaguna. (...)

Zer ematen digu Schwobek liburuan? Benetakoa den historia bakarra: historia asmatua. Hainbat pertsonaren eta pertsonaiaren biografia asmatuak. Zoragarriak, egiazkoak baino sinesgarriagoak; asmazioak, liburu honetan, errealitatearen akatsak garbitzen dituelako, zinetako jazoerak baino gertaera irensten errazagoak emendatzen dizkielako halakoei.

Schwobek batera itzulpengintzaren handia eta miseria barneratzen dituen autua erabili zuen berbagai: itzulpenean forma eta edukia biak biotara eta beren hartan eman ezina. Linguista aditua zen eta, hori dela eta, beste kezka gai bat erabili zuen, itzultzaileak unean-unean izaten duen erabaki beharra: zelan erakarri beste

hizkuntza batera, bestelako garaira, harako hizkuntza hartako aspaldiko testua? Zer erabili, egungo hizkuntza eredia ala jatorrizkoa idatzitako garaiko ereduaren imitazioa? Auzia ez da oraindik ebatzi. Garziak proposamen interesgarria egiten du sesio hori garbitzen laguntzeko.

Baina benetan izan al zen Marcel Schwobik ala hainbat idazleren pertsonaia asmatua baino ez? Bai, Borgesek miresten zuen (eta horrek fikzio puntu bat eransten dio). Renard, Claudel, Colette, Jammes, Valery, Goncourt, Wilde, Stevenson eta enparauak gutun bidez egon ei ziren harekin harremanetan. Halere, halere... ez ote da izango hura ere liburuko bizidun alegiazko horietarik bat?

Mitoetatik edan zuen oparo. Baita errabinoen ondarea lepoan hartu ere. Shakespeare eta Stevenson bidaide eta gogaide izan zitzaizkion paperezko ibilgu literarioan. Behinola esan omen zuenez, burgesek —bera ere halakoxea zen— emandako ospeak handitutako itzala baino, guragoa zuen lurreko kondenatu alproja guztiei zien maitasuna. Gaixotasunak nahita inposaturiko patua izan zuen ordain, baina, herioen antzera, azken hatsa eman arte lehiatu zen. Apollinairek esan zuenez, “arrakasta lortu ostean, izurri bubonikoari barre egitea eta trikilika urre antzeko fruituetan abiatzea baino ez da geratzen”. Edo Juanen berben bitartez Marcelek dioskunez, biografiaren eremuan saiatzekotan, ez litzateke halakoren ezaugarriak zehatz-mehatz deskribatu behar, “baizik eta ardura beraz kontatu gizonen bizialdi berdinek gabeak; jainkozkoak, erdipurdikoa zein kriminalak izan gizonak”.

- b)** BIGARREN ATALA: Ariketaren bigarren atala: ikasle bakoitzak banatuko diogun biografia irakurriko du; ulertu eta erregleta edo eskematxo batekin ikaskideei kontatuko diete, bikoteka jardunez. Ondoren entzun ere egin beharko ditu taldekideen kontakizunak. Irakasleak testuak internetetik inprimatuko ditu. Ariketa edozein momentutan moztu daiteke

2. PROZEDURA: haur eta gazteentzat, *Alegiak*

Haurrentzako biziki aproposak ditugu Tolstoiren *Alegiak*. Ikasleei alegia bana banatuko diegu eta elkarri kontatuko dizkiete (29 ikaslerentzat). Irakasleak helbide honetan aurkituko ditu testuak inprimatzeko prest:

<http://www.armiarma.com/baroja/baro01.htm> (2009-V-20)

Ikusi, argibide gehiagorako, *Argia* aldizkarian liburuari egindako kritika:

Alegiak. Iñaki Camino

Alegiak

Leon Tolstoi

Euskaratzailea: Bittor Madina

La Primitiva Casa Baroja, 1985

Edozein lekuko alegi eta ipuinak, barneko grina mugierazten diguten espresabideak dira. Euskal Herrian bertan baditugu geure herriko hainbat alegi alai, barregarri, irakasgarri edo moralizante.

Hala ere beste herrietako alegiak irakurri nahi baditugu, gehienetan ez dugu euskararik erabiltzen, geure hizkuntzara itzulirik ez ditugulako.

Tolstoi errusiar idazleak bere Errusian ahozko batzu bildu zituen eta beste batzu idatzi, eta gorago esandako arrazoiarengatik. Bittor Madinak euskarara itzuli. Alegi hauetatik, banaka bat edo, ezaguna zaigu irakaskuntzako liburuetan euskaratua dugulako. Besteak, ezezagunak ditugu.

Egoera eta ikusmira desberdinetako alegiak ditu "Iasnaia Poliana" herrian eratu eta heziketa berriaren sortzaile izan zen Tolstoik.

Alegietan, denetakoak ditugu: alferkeriaren kariaz aberastutakoak, zekenkeriaz dena galtzen duten aberatsaren seme-alabenak, epailari trebeenak, gerrara joan nahi ez duelako mujikari kasurik egiten ez dioten zaldienak, tsar kontuak, haragiarekin pixuan iruzur egiten duten dendarienak, beren burua ito nahi dutenen erbienak eta beste hainbat.

Eskoletako eta ikastoletako haurrentzat eta denontzat liburuxka aproposa.

Argia, 1986-01-19

3. PROZEDURA: beste aukera batzuk

Hurrengoko testu hauekin ere prozedura bera erabili daiteke.

3.1. *Aldarte oneko ipuinak. Gotzon Garate.*

Aukeran dagoen testu laburren beste bilduma bat ere badugu: sarean ditugu ipuinok(Gero argitaletxea, 1982) helbide honetan:

<http://www.armiarma.com/emailuak/mizka/garate2.htm> (2009-V-20)

3.2. *Ekialdeko kontakizunak. Marguerite Yourcenar.*

Beste testu batzuk ere badaude goian aipatutako prozedurarekin erabili litezkeenak ikasgelan: adibidez, Ibaizabal argitaletxeak argitaratutako *Ekialdeko kontakizunak*, Marguerite Yourcenarren idatziak. Ez ditugu sarean aurkitu. Hona liburu honi egindako kritika bat eta kritikaren inguruko proposamena.

PROPOSAMENA: irakasleak/ikasle batek kritika irakurriko du, eta ikasleek oharrak hartuko dituzte; paragrafo batean laburpena onduko dute hartutako oharrekin.

Ekialdeko kontakizunak / Marguerite Yourcenar (*Imanol Zurutuza*) / Ibaizabal,

1997

Ekialdeko mazedonia etnikoa Antxon Gomez / *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-11-08

Marguerite Yourcenarren (Brusela, 1903-Mount Desert, Maine, EEBB, 1987) liburuak sarritan izan dira euskaratuak. 1985ean Joxe Austin Arrietak *Hadrianoren oroitzapenak* eta 1988an Maite Gonzalez Esnalek *Alexis*, Yourcenarren gaztetako

eleberria, itzuli zituzten. Biak Elkar argitaletxearen eskutik. Marguerite Yourcenar mende honetako idazle frantziar handienetakotzat jotzen da, eta Frantziar Akademiako kide izendatu zuten lehendabiziko emakumea izan zen.

Ekialdeko kontakizunak ipuin bilduma, idazle honen bidaietarako zaletasunaren fruitua da. Hamar ipuin biltzen dira bertan, erraz irakurtzen den mosaikoa eratuz. Ipuin gehienak Balkanetan eta Grezian kokatzen diren arren, India edo Txinaraino ere mugituko da Yourcenarren imajinazioa. Bertan Kali Jainkosa lepamoztua edo Wang-Fo Pintor taoista azalduko zaizkigu, eta Amsterdameko kanaletan amaituko dugu ekialdeko istorio eta ipuin zaharretan barrena egindako bidaiaria exotikoa, ekialdeko gogorapenak mingarki txertatuak dituen margolari batekin. Bizitzaren eta artearen aurrean filosofia mingotsa daukan artista mozkor, txiro eta porrot egindakoarekin. Cornelius Bergenek bizitzan zehar munduan batetik bestera ibili eta azkenean ezer gabe, poltsikoa eta izpiritua hutsak, arrotza ere bilakatu zaion jaiolekura bueltatzen den bidaiaria islatzen du.

Nahiz eta ekialde urrunaren pintzeladak izan, Europako ekialdeko herrien inguruko ipuinek osatzen dute liburuaren multzorik nagusia. Yourcenarrek Balkanen inguruko herri mosaiko etnikoarekiko lilura azaltzen digu. Herri eta kultura anitzen arteko harremanetatik sorturiko unibertsoa. Aldi berean idazleak greziar kultura eta mitologiarekiko zaletasuna islatzen du *Nereidak maite izan zituen gizona* narrazioan. “Nereidak... Dama horiek... Nereidak... Ederrak... Biluzik... Zoragarria... Ilehoriak...” errepikatuko du behin eta berriro greziar maitagarri hauek ikustean burua galdu zuen gizonezkoak.

Heriotzaren esnea ipuina azpimarratuko nuke, liburuaren azalaren marrazkiak islatzen duena. Oso ipuin balkanikoa da, bertan Ismail Kadare idazle albaniarren *Hiru arkuko zubia* (Elkar, 1994) liburuan azaltzen den balkaniar sinesmen zahar bera topatuko dugu. Eraikuntza bat altxatzeko irelu balkaniarrek derrigortzen duten giza-sakrifizioarena, alegia.

Ipuinean albaniarrek, serbiarrek, turkiarrek eta greziarrek azaltzen zaizkigu pertsonaia bezala. Ipuinaren kontaketa Bosnia-Herzegovinako garagardotegi germaniar batean kokatzen du Yourcenarrek, frantziar baten eta ingeles baten arteko elkarrizketa batean. Benetako mazedonia etnikoa, liburua bere osotasunean

bezala. Ipuin hauetan fantasia eta errealitatea, maitasuna eta krudeltasuna armoniaz nahasten dira, eta irakurleak askotan ustekabe ederra hartuko du narrazioan zehar. Marguerite Yourcenarrek irakurleak harritzea lortzen du Ekialdeko kontakizunak honekin.

3.3. Mimoak. M. Schwob.

Prozedura bera jarrai daiteke narrazio laburrak biltzen dituen beste liburu honekin. Testu laburren bilduma hau helbide honetan aurki dezake irakasleak:

<http://www.armiarma.com/baroja/baro13.htm> (2009-V-20)

3.4. Bizkaierazko ipuinak

Helbide honetan aurkituko ditu irakasleak bizkaieraz ondutako alegiak, goiko ariketen prozedura berarekin erabil litezkeenak. J. M. Mogeletak dituzu, Lafontaineek ezagutzera eman zituen alegia ezagunak dira, umeentzako egoki-egokiak:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAipuinak.htm> (2009-V-20)

LITERATURA ETA DEMOKRAZIA

(aipuon iturria: www.hiru.com)

➤ PROZEDURA:

Irakurri Tocqueville idazle frantsesaren zazpi aipuok, erantzun galderei, eta, bukaeran, komentatu zure ikaskideekin launaka.

Galdera eta aipu hauek literaturak oraingo gizartean duen lekuari buruzkoak dira.

Klasikoen ahotan 1

Egilea: Alexis de Tocqueville

Izenburua: Amerikako Demokrazia II

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren Bereziartu

Editoriala: Klasikoak S.A.

Data: 1996/01/05

Demokrazietan, literaturaz arduratzen diren guztiek ez dute heziketa literariorik izaten, eta, letra ederren berniz pixka bat dutenen artean, gehienek karrera politikoa egiten dute, edota, izpirituko atseginez isilka gozatzeko, unetxo batzuetan bakarrik utz dezaketen lanbideren bat hartzen dute. Ez dituzte, beraz, plazer hauek beren bizitzako xarma nagusi bihurtzen; baizik eta atseden iragankor eta beharrezkotzat hartzen dituzte bizitzako lan serioen artean. Horrelakoek ezingo dute edertasunik delikatuena preziatzeko behar bezain ezagutza sakona lortu literatur arteaz; ñabardura txikiek ihes egiten diete. Letretarako oso denbora laburra dutenez, ahalik eta probetxurik handiena atera nahi izaten diote. Nekerik gabe eskuratzen diren liburuak nahi dituzte, bizkor irakurtzen direnak, ulertu ahal izateko ikerketa sakonik eskatzen ez dutenak. Edertasun errazak eskatzen dituzte, berez zuzenean adierazten direnak, eta momentuan bertan gozatu ahal izateko modukoak; ezustekoa eta berria behar dute, batez ere. Bizimodu praktikora, zail eta monotonora ohituak, zirrara bizi eta bizkorrak behar dituzte, bat-bateko argitasunak, egia edo errakuntza distiratsuak, beren baitatik lipar batean atera eta bat-batean, bortxaz bezala, gaian sarraraziko dituztenak.

GALDERA: irakurle askok zer dela-eta aukeratzen dituzte liburu arinak?

Zeure iritzia:

Klasikoen ahotan 2

*Gauza materialengatik derrigorrez kezkatuta ez daudenez -eta ez dira inoiz egon, eta beren gurasoak ere ez ziren askoz gehiago egon-, izpirituko lanez arduratu ahal izan dira hainbat belaunalditan zehar. Ulertu egiten dute **literatur artea** eta azkenerako maitatu egiten dute bere horretan eta atsegin errefinatua sentitzen dute beraren arauak bete egiten direlako.*

GALDERA: literatura soilik aisia eta astia dutenen eskuetan egon ohi da? Nola da hori?

Zeure iritzia:

Klasikoen ahotan 3

*Demokrazietan entzun egiten dira antzezlanak, baina ez irakurri. Antzezjokoetara joaten diren gehientsuenek ez dituzte han izpirituko atseginak bilatzen, bihotzaren zirrara biziak baizik. **Ez dute espero bertan literatur obrarik aurkitzea**, ikuskizuna baizik, eta, ulertarazteko behar hainbat zuzen hitz egiten badu autoreak herrialdeko hizkuntza, eta haren pertsonaiek jakinmina eta sinpatia sortzen badituzte, ikusleak pozik. Fikzioari ezer gehiago eskatu gabe, berehala itzultzen dira mundu errealera. Estilo ez da, beraz, hain beharrezkoa, zeren eta, eszenatokian, ez baita hain garbi ohartzen erregelak betetzen diren ala ez.*

GALDERA: antzerki-lanak ikustera zertara joan?

Zeure iritzia:

Klasikoen ahotan 4

*Literatura demokratikoak, **letretan industria baino ikusten ez** duten autorez beteta egoten dira beti, eta, idazle handiren batzuk aurkitzen direnerako, milaka ideia-saltzaile ikusten da horietan.*

GALDERA: liburuen merkatuan dagoen eskaintzak zer-nolako balorazioa merezi du?

Zeure iritzia:

Klasikoen ahotan 5

*Oraindik ere aztertu egiten dira **beste mende bateko idazle handiak**. Baina inor ez da joaten beste publiko batentzat idatzitako antzezlanetara. Iraganeko autore dramatikoak liburuetan bakarrik bizi dira*

GALDERA: klasikoa irakurri, zertarako?

Zeure iritzia:

Klasikoen ahotan 6

Antzinateko idazle handi guztiak ugazaben aristokraziaren parte ziren, edo gutxienez aristokrazia hori protestarik gabe ezarria ikusten zuten beren aurrean; haien izpiritua, hainbat aldetara zabaldu ondoren, puntu horretan mugatua aurkitu zen, eta Jesukristok etorri behar izan zuen mundura gizadiko kide guztiak berez antzeko eta berdinak zirela ulertarazteko.

GALDERA: liburuak materialki gizarte osoaren eskuetan jartzea nahikoa da, ala bestelako prestakuntzarik behar al da? Gustua hezi?

Zeure iritzia:


Klasikoen ahotan 7

*Aristokrazietan, irakurleak zailak izaten dira eta urriak; **demokrazietan, ez da zaila horiei atsegin ematea** eta kopuruz asko izaten dira. Ondorioz, herri aristokratikoetan, ahalegin izugarrien bidez bakarrik espero daiteke arrakasta izatea, eta ahalegin horiek, ospe handia eman dezaketen arren, ez dute inoiz diru asko ematen; aitzitik, nazio demokratikoetan, idazle bat harro egon daiteke erdipurdiko ospea eta aberastasun handia merke-merke lortzeaz. Horretarako ez da beharrezkoa miretsia izatea, aski da gustukoa izatea.*

GALDERA: zein da idazleen eginkizuna?

Zeure iritzia:

TALDEKA: bakarka beteko dituzue erantzunak. Segiduan, taldetxoetan emandako galderak kontrastatuko dituzue.



IDAZLE OSPETSUAK. ROL-TEKNIKA

IRAKASLEAREN FITXA

Ariketa hau idazleen biografiekin egin daiteke. (Baita pertsonaia literario ezagunekin ere).

Igartzeko jokia da; ikasleek idazle famatuen roletan jardungo dute

Mailak : oinarrizkoetatik aurrera.

Iraupena: 30 min.

Helburua: ikasleak role-play delakoaren ideiaz jabetzea. Horren ikuspegi ludikoa ikusaraztea haiei. Idazleak ezagutzera ematea.

Hizkuntza: galderak, lehen aldi bukatua eta puntukaria.

Funtzioak: gertakariei eta lorpen pertsonalei buruz hitz egitea.

Antolakuntza: klase osoa (talde handi zein txikiekin).

Prestakuntza: euskal idazle famatu eta egokien zerrenda izatea. Izan daitezke ikastaro batean landutakoak zein ikasleek gogoratzen dituztenak (mundu mailakoak ere izan litezke; edo aro zehatz batekoak, eta abar).

Prozedura:

Ikasle bakoitzak idazle famatu bat aukeratuko du, bizirik zein hilda dagoena – beharbada, klaseko aukerak kontsentsuz adostu beharko lirateke arinago-. Zeinek bere hautua isilpean eduki, eta horretaz gogoeta edo ikerketa egingo du zehaztasunak biltzeko (internet erabili daiteke).

paperean. Eta, hori egindakoan, lehen pertsonan hitz egin ahal izango dutelako bermea lortu behar dute.

(Aukerakoa). Jolasaren erakusgarri, autore famatu bat aukera dezake irakasleak, eta jardunaren etsenplua eman; ikasleei galdezka aritzeko eskatu, eta erantzun biezaie lehen pertsona erabiliz. Irakasleak erantzun anbiguoak emango ditu: zalantzarria izango zaie ikasleei, Axular ala Leizarraga, Lizardi ala Lauaxeta, Atxaga edo Sarrionaindia ote den isildutako literaturgilea, hasieran.

Klaseari azalduko dio irakasleak ikasleek nolako galderak egin beharko lituzketen:

-Zein da egin duzun gauzarik garrantzitsuena?

-Zure bizitza publikoak eragiten ote dio zure bizitza pribatuari?

-Zure bizitzako zein gertakari izan da esanguratsuena?

-Jaso zenuen heziketak lortu duzuna eskuratzen lagundu al dizu?...

Galderen konplexutasuna klasearen mailaren arabera izango da.

Ikasleei zenbait minutu utziko die irakasleak galderak presta ditzaten.

Ondoren, ezkutuko pertsonaia igartzen saiatuko dira, binaka elkarri galdetuz, taldetxoka, klase osoan...

Aldaera:

Egitura zehatzagoak: horiek lantzeko erabil daiteke joko hau, adibidez:

- **Zaletasun eta gogoz kontrako gauzei (*dislikes*) buruz hitz egin:**

“Zein duzu gogokoen; zein ez duzu gogoko?”

- **Etorkizuneko planez:**

-Nora joango zinateke oportetan?

-Zer egingo zenuke zure inguruko gizartea hobetzeko?

-Noiz erretiratuko zinateke bizitza publikotik?...

- **Baldintza lantzeko:**

-Diru-zorro bat behearen gainean aurkituz gero, zer egingo zenuke?

-Oporrak bazenu, nolakoak aukeratuko zenituzke?

-Etxalde bat bazenu, zer landatuko zenuke?

-Arratsaldean kaleratuko bazina, zer egingo zenuke?

-Jatetxe batera joatekotan, nolakoa hautatuko zenuke?

-Liburua, nolakoa idatziko zenuke?

-...

Galdera hauek guztiak idazle/ikasle bakarrari egingo litzaizkioke; eman dezagun Gabriel Aresti dela erantzuten duenaren pertsonaia; ihardesleak irudimena eta sormena baliatu beharko lituzke.

Aldaera:

Enbaxadoreena: talde bakoitzak (bost pertsona), idazle ospetsu bat irudikatuko duen eurretario bat aukeratu, zehaztu bitza bere ezaugarriak, eta bihoa beste taldeetara. Nor den igarriz gero, taldetxoan geratuko da enbaxadorea; horrela, enbaxadorea galdutako taldeak beste bat hautatu beharko du. Jolasa, taldetxo bat deuseztatutakoan bukatuko da, edo guztiz murriztuta dagoenean, bestela. Zenbat eta taldetxo gehiago, hobe.

Ariketaren jarraipena: bi modutan.

- **Eztabaida.** Taldetxotan erabaki dezatela:

-Zerk egin du asmaeraza pertsonaia?

-Zerk egin du eginkizun hori zaila?

-Zer nolako keinu eta jarrera gaineratu zitezkeen?...

- **Idazlana.** Esan ikasleei aukeratutako pertsonaiaren baten biografia idazteko, edo berorien bizitzako pasarte bat.

Aldaera:

Bizitza dramatikoak. Bi atal ditu joko honek: mimoa/mintzasaioa. Bizitza dramatikoa izan duten letragizonak gogoratzeko eskatu taldeari. Adibidetzat, batzuk eraman klasera: Etxahun, Bilintx, Mirande, Aitzol, Etxepare, Sarrionaindia, Lauaxeta... Galderak –mintza-saioa– hasierako jokoan (edo 1. aldaeran) bezala egingo dira. Ebaluazio positiboa erabili, batez ere ikasle uzkurrenekin.

Aldaera:

Egitura zehatzagoak: horiek lantzeko erabil daiteke joko hau, adibidez:

- **Zaletasun eta gogokoak ez diren gauzei (*dislikes*) buruz hitz egin:**

“Zein duzu gogokoen; zein ez duzu gogoko?”

- **Etorkizunerako planez:**

-Nora joango zinateke oportretan?

-Zer egingo zenuke zure inguruko gizartea hobetzeko?

-Noiz erretiratuko zinateke bizitza publikotik?...

- **Baldintza lantzeko:**

-Diruzorro bat behearen gainean aurkituz gero, zer egingo zenuke?

-Oporrak bazenu, nolakoak aukeratuko zenituzke?

-Etxalde bat bazenu, zer landatuko zenuke?

-Arratsaldean kaleratuko bazina, zer egingo zenuke?

-Jatetxe batera joatekotan, nolakoa hautatuko zenuke?

-Liburu bat, nolakoa idatziko zenuke?

-...

Galdera hauek guztiak pertsonaia bakarrari egingo litzaizkioke; ihardesleak irudimena eta sormena baliatu beharko lituzke.

ZOZO ZURIARENA

Alfred de Musset

Euskaratzailea: Juan Kruz Igerabide

Erein, 1991

1

Goresgarria da, baina bai mingarria ere, zozo berezia izatea mundu honetan! Ez naiz inondik ere irudimenak sorturiko txoria, Buffon-eko jaunak deskribaturik bainauka. Ai, benetan bakanetakoa naiz, ordea, eta oso zaila topatzen; hobe zeruak aurkiezina egin banindu!

Jende ona ziren gure aita eta ama, Marais-ko lorategi apartatu baten barnean aspaldidanik bizi zirelarik. Bikote eredugarria hura! Amak, sastraka itxi batean, erdi lokaturik, arbasoen erlijio bati jarraiki, urtean hiru bider jartzen zituen arrautzak eta berotzen, beti aro bertsuan. Bitartean, gure aita, adinean sartuxea izanik ere, oraindik mardul eta harro zebilen, eta inguruan mokoka ariko zitzaion egun osoan; emazteak nazka senti ez zezan isats aldetik txukun-txukun harrapatutako zomorro ederrak eramaten zizkion; eta, gaua iristean, eguraldi ona izanez gero behintzat, ez zen inoiz ahazten inguru guztia poztuko zuen kanturen bat hari eskaintzeaz. Errietaryk ez inoiz, inoiz ez batasun gozo hura kolokan jarriko zuen hodei txikienik!

Ni mundura etorri bezain laster umore txarra adierazten hasi zen gure aita, lehenengo aldiz bere bizitzan. Ni artean gris nahasia nintzelako oraindik edo, hark ez zuen ikusten nigan bere ondorengo ugarien itxurarik, ezta kolorerik ere.

— Horra, ume narras hori —esan ohi zuen batzuetan, niri zeharka so eginez—; badirudi inguruko lokatz guztietan sartzen dela gaizto hori, beti horren zikin eta itsusi ibiltzeko.

— Jainkoarren, ene lagun! —erantzuten zion amak, habiatzat harturik zeukan zurezko erretilu zahar baten gainean bil-bil eginda— Zer egingo du bada bere adinean? Zu zeu ez ote zara bada izan zeure haurtzaroan bihurritxo zoragarri horietako bat? Utziozu handitzen gure zozotxoari, eta ikusiko duzu zeinen ederra egingo den! Nik sortu ditudan onenetarikoak da eta!

Nahiz eta nire alde atera, amak ez zion bere buruari iruzurrik egiten; ederki asko ikusten zuen nolakoa zetorkidan lumajea; munstro batena iruditzen zitzaion; baina, ama guztiek bezala egiten zuen: izadiak zenbat eta okerrago tratatu bere umeak, orduan eta begirune handiagoa hartu, errua bere baitan egon izan balitz bezala, ume horiei zetorkien zori injustoaren kontra alde zuzenetik ahotza goratu nahian bezala.

Lehenengo lumaldaketaren garaia iritsi zitzaidalarik, aita pentsakor jarri zen, eta arretaz begiratzen ninduen. Lumak erortzen ari ziren bitartean, bazter batean ia biluzik dardarka nengoela ikusirik, nahiko onean hartu ninduen, zer jana ere ekarriz; baina, nire hegal gaixo dardartiak lumatxoak betetzen hasi zirenetik, sortzen ikusten zidan luma txuri bakoitzeko halako herio-sua sortzen zitzaion, ezen nire bizitza osorako lumatuta utziko ote ninduen beldur bainintzen. Oi! Ez neukan ispilurik, ez nekien amorru haren arrazoirik, eta neure buruari hala galdetzen nion, ea zergatik gurasorik onenak horren basati jokatzeko sortuak ziren nirekin.

Egun batez, eguzki printza batek alde batetik, eta sortzen ari zitzaidan estalkiak bestetik, ene tristuraren kontra bihotza alaitu zidatelarik, ibilbide batean zehar joanez

kantatzeari ekin nion; ene zoritxarrerako ordea. Lehenengo nota entzun orduko, aita zizpa baino azkarrago jarri zen aidean.

— Zer da entzuten ari naizena? —egin zuen oihu— Horrela egiten al du txistu zozoak? Horrela egiten al dut txistu nik? Hori al da txistu egitea?

Eta amarenganatz, zorrotasun ikaragarrienez:

— Zorigaiztoko hori! —esan zion— Nork jarri din arrautza hire habian?

Hitz horiekin minduta, amak erretilutik jauzi egin zuen; ez hanka batean min hartu gabe ordea. Hitz egin nahi izan zuen, baina zotinek itotzen zuten. Lurrera joan zen, erdi zorabiatu. Heriotzatik hurbil ikusi nuen eta, espantuz eta beldurrez dardarka, aitaren belaunetara bota nuen neure burua.

— Oi, aita gurea —esan nion—; oker egin badut txistu, baldin eta nire jantzia itsusia bada, ez eman horren zigorrik amari. Bere errua al da, bada, izadiak zurea bezalako ahotsa ukatu badit? Bere errua ote da nik ez badauzkat zuk bezalako moko horia eta frantses erako jantzi beltz dotorea, tortilla jatera doan maiordomo baten antza ematen dizuna? Zeruak munstro egin banau, norbaitek zigorra jasotzekotan, nik izan beharko dut edonola ere zoritxarreko bakarra!

— Uztak hori! —esan zuen aitak— Nondik datorkik txistu egiteko modu zoro hori? Nork irakatsi dik horrela txistu egiten, gure usadio eta arau guztien kontra?

— Oh, monsieur! —erantzun nion umilki—. Ahal dudan moduan egin dut txistu, giro ederra zegoenez pozik bainengoen, eta agian euli gehiegixoa ere jana izango baitut.

— Gure etxean ez duk horrela egiten txistu —bota zidan aitak bere onetik aterata—. Badituk mendeak belaunaldiz belaunaldi txistuka daramatzagunak, eta jakin ezak nik guez ahotsa ateratzen dudanean badaudela hemen, lehen pisuan, monsieur zahar bat eta, ganbaran, demoiselle alai bat, ni entzutearren leioa

irekitzen dutenak. Ez al diat bada nahikoa nire begien aurrean dauzkadan luma inozo horien kolore memelo, irinetan bildutako feria-pailazo baten itxura ematen didan horrekin? Zozoetan baketsuena ez banintz, honez gero ehun bider lumatu hindukedan, erretzera daramaten oilasko biluziaren antzera.

— Ongi dago! —egin nuen oihu aitaren injustziagatik bero-bero eginda— Horrela baldin bada, monsieur, ez kezkatu gehiago! Aienatuko naiz zure begi bistatik, eta egunero tiraka ibiltzen duzun zoritxarreko isats zuri hau ere kenduko dut zure begien aurretik! Banoa, monsieur, ihesi noa; amak urtean hirutan arrautza jartzen duenez, beste ume askok aseko zaitu zahartzaroan; zugandik urrunera joango naiz nire mixeria gordetzera eta, beharbada, erantsi nuen zotinka, aurkituko dut auzokoaren baratzean edo teilatu ertzetan txitxareren bat, zein armiarmaren bat nire izate triste honi eusteko.

— Nahi duan bezala —erantzun zidan aitak, nire hitzekin batere hunkitu gaberik—. Ez haut gehiago ikusi nahi; hi ez haut nire seme; hi ez haiz zozo.

— Zer naiz, bada, monsieur, mesedez?

— Ez zekiat ezer horretaz, baina zozo behintzat ez haiz.

Tximista bezalako hitz horien ondoren, aitak alde egin zuen poliki. Ama, triste baino tristeago zutiturik, bere erretilura joan zen, herrenka, negar egitera. Ni, bestalde, nahasturik eta lurjota, hegaldatu egin nintzen ahal nuen moduan eta, esanda bezala, auzoko etxe bateko teilatu ertzean babestera egin nuen ihes.

2

Egun asko eta asko eduki ninduen aitak, gizagabeki, egoera lazgarri horretan. Bere gogorkeria eta guzti, halere bihotz onekoa baitzen, zeharka egiten zizkidan begiradatan ongi antzematen nion niri berriro deitzeko eta barkatzeko gogoia; amak batez ere samurtasunez beteriko begiak jasotzen zituen niganantz eta, noizbehinka, intziri ttiki eta negarti batez niri dei egitera ere arriskatzen zen; baina nire lumaje itsusiak halako nazka eta ikara sortzen zien, non garbi ikusi bainuen han ez zegoela ezer egiterik.

— Ez nauk, ez, zozo esaten nion neure buruari. Eta nola izan bada! Goizean lumak orraztuz teilatu ertzeko uretan neure burua ikusita, ondo baino hobeto ezagutzen nuen zein antza txikia neukan nire familiakoekin— Oi, zeru! —esaten nuen behin eta berriz— Esaidazu nor naizen bada!

Halako gau batez, euria goian behean, gosez eta tristuraz akituta lokartzera nindoalarik, hor non etortzen zaidan ondora txori bat, inoiz pentsa nezakeen baino bustiagoa, zurbilagoa eta argalagoa. Gutxi gorabehera nire kolore berbera zeukan, blai egiten gintuen euri guztiarengatik juzkatu ahal izan nuenez; txolarre bat janzteko bezainbat luma ez zuen eramango gorputzean, eta ni baino handiagoa zen. Benetan txori behartsu eta pobrea iruditu zitzaidan lehen begiradan; baina hain gogor ekiten zion bere kaskamotz hari ekaitzaren erdian, hain tente eusten zion gorputzari, ezen liluratu egin baininduen. Agur luzea egin nion umil, eta hark mokokada batez erantzun zidan, ia-ia teilatu ertzetik amil erazi ninduelarik. Nik belarrian azkure egin eta erantzun gabe atzera egiten nuela ikusirik, honela mintzatu zitzaidan marranta batean:

— Zein haiz hi? —haren buru soila begira-begira neukan.

— Ai, monsieur —erantzun nion bigarren zaztada baten beldur—; ez dakit ezer horretaz. Zozo nintzela uste nuen, baina horietakoa ez naizela sinestarazi didate.

Nire erantzunaren bitxiak eta benetan ari nintzenaren itxurak interesa piztu bide zuten harengan.

Nigana hurbildu eta nire ixtorioa kontrarazi zidan, barnea tristezia eta umiltasun osoz hustu niolarik, nengoen egoerari eta egiten zuen giro ikaragarriari zegokion moduan.

— Ni bezalako uso bidaiaria bahintz —esan zidan entzun eta gero—, penatzen hauten txikikeria horiek ez hituzke aintzat ere hartuko. Bidaiari ibiltzen gaituk, horrela duk gure bizimodua, eta gure amodioak ere izaten dizkiagu, baina neuk ere ez zekiat nor dudan aita. Haizea ebaki, espazioa zeharkatu, mendiak eta lautadak ikusi gure azpian, zeruetako urdina berbera arnastu inoiz bidea galtzeke, hara hor gure bizimoduaren gozoa. Gizonak hamar egunetan baino bide luzeago egiten diat nik bat bakarrean.

— Orduan, monsieur —esan nion lotsati samar—, txori buhamesa zara.

— Inoiz kezkatu ez nauen gauza duk hori —hasi zen berriro—; ez diat herrialderik; hiru gauza besterik ez dizkiat ezagutzen: bidaiak, ene emaztea eta ene umeak. Ene emaztea non, ene herrialdea han.

— Baina, zer daramazu lepotik zintzilik? Bil-bil eginiko papertxoa dirudi.

— Paper garrantzitsuak dituk horiek —erantzun zuen harro—. Bruselara nihoak oraingoan eta banku-gizon ospetsu batentzat albiste bat zeramat, errentan libera eta hirurogeita hamazortzi zentimoren beherakada eragingo duena.

Jainko maitea! —atera zitzaidan— Zurea bai dela bizimodu ederra; Brusela gainera, ziur nago, ikustekoa izango da. Ez al nindukezu zurekin eramango? Zozo ez naizenez, beharbada uso mezularia izan ninteke, zu bezala.

— Hi gutakoa bahintz —erantzun zidan—, nik lehentxeago emandako mokokadari laster asko erantzungo hiokeen.

— Hori baldin bada, monsieur, emango dizut ordaina; ez gaitezen horrelako txikieria batengatik kezkatu. Horra non datorkigun goiza eta ikus nola alde egin duen ekaitzak. Utzidazu, otoi, zure atzetik joaten! Galdurik nago, ez daukat ezertxo ere munduan. Ezezkoa ematen badidazu, teilatu ertz honetan neure burua itotzea besterik ez zait geratzen.

— Tira ba, goazik! Jarrai hakit, ahal baduk.

Ama lotan zegoen, lorategiari azken begirada eman nionean.

Malko bat erori zitzaidan begietatik; haizeak eta euriak eramane zuten. Hegalak zabaldu eta joan egin nintzen.

3

Nire hegialak, lehen ere esan dut, ez zeuden oraindik ondo indartuta. Aurretik zihoakidana haizea baino arinago mugitzen zen bitartean, ni ito beharrean nindoakion atzetik. Eutsi nion zenbait denboraz abiadurari, baina, laster, zorabioak hartu ninduen, hain gogorki, non erortzeko zorian bainekusan neure burua.

— Luzerako al daukagu oraindik? —egin nuen galde ahots ahulez.

— Ez —erantzun zidan—, Bourget duk hau; hirurogei legoa besterik ez zaiguk geratzen.

Berriro adorea hartzen saiatu nintzen, oilanda baldar baten itxurarik ez bainuen eman nahi, eta beste ordu laurden batez hegan segitu nuen oraindik; baina, kolpetik, akituta geratu nintzen.

— Monsieur —mintzatu nintzaion berriro hitz-totelka—, ezin al gaitzke pixka bat gelditu?

Egarri ikaragarri batek ito beharrean nauka eta zuhaitz batean pausatuko bagina...

— Hoa pikutara! Zozo hutsa haiz! —esan zidan uso bidaiariak haserre.

Eta burua jiratu ere egin gabe bere bidaiari segitu zuen ziztu batean. Niri zegokidanez, zorabioak jota eta begiak lausoturik, galsoro batera erori nintzen.

Ez dakit zenbat denbora egingo nuen konortetik gabe. Berriro neuregana nintzenean, aurren-aurrena burura etorri zitzaidana uso bidaiariaren azken esaldia izan zen: «Zozo hutsa haiz!», esan zidan. «Oi, guraso maiteok», pentsatu nuen, «oker zeundeten beraz! Zuengana hurbilduko naiz berriro, zuen benetako eta zinezko semetzat hartuko nauzue, eta gure amaren erretilua baino beherago dagoen orbel pilan egingo didazue berriz leku».

Zutitzeko ahalegina egin nuen, baina bidaiaren nekeak eta erorialdian harturiko minak nire gorputz-atal guztiak gogorturik zeuzkaten. Hanken gainean jarri bezain laster berriro zorabioak hartu ninduen eta alde batera erori nintzen.

Bazetorkion ene izpirituari heriotzaren irudia, baina une hartan amapola eta loreurdinen artetik bi pertsona liluragarri ikusi nituen niganatzen hanka-punttetan. Bata mika ttiki bat zen, lumaje ederrekoa eta oso pinpirina; bestea, arrosa koloreko usapala. Usapala pauso batzuetara gelditu zen, lotsa itxuraz, nire zoritxarrari errukiz hegira. Mika, ordea, izan litekeen erarik atseginean jauzika, ondora inguratu zitzaidan.

— Ei! Jainko maitea! Haur gaixoa, zer egiten duzu hemen? —galdetu zidan zilarrezko ahots alaiaz.

— Ai! Markesa anderea —erantzun nion (gutxienik hori behar baitzuen izan)—, bidaiari gaixo bat naiz, bidaia-mutilak bidean abandonatua, eta gosez hiltzear nago.

— Birjina maitea! Zer diozu? —esan zidan.

Eta haruntz eta honuntz hasi zen segituan, inguratzen gintuzten sastraka gainetan, alde batetik besterako joan-etorrian, pikor eta fruitu mordoskak ekarriz, nire ondoan meta txiki bat osatu arte, eta galderak egiteari utzi ezinik.

— Nor zaitugu ordea? Nondik zatoz? Zure abentura sinestezina da! Eta nora zindoazen? Horrela, hain gazte, bakar-bakarrik bidaian abiatzea! Ze, lehen lumalditik irten berria zara noski! Zertan ari dira zure gurasoak? Nongoak dira? Nolaz uzten dizute horrela joaten? Lumak tente jartzen dituen gauza da gero!

Hura hitz egiten ari zen bitartean, pixka bat altxa egin nintzen alde batera, eta jateari ekin nion gose handiz. Usapala geldi-geldi zegoen oraindik, errukizko begiz niri hegira. Bitartean, nik burua alde batera erortzen uzten nuela konturatu zen, eta egarri nintzela ulertu zuen. Gaez egindako euritik bazegoen oraindik tanta bat

txoribelar hosto batean; bere mokoan tanta hura emeki hartu eta niri ekarri zidan, fresko-freskoa. Benetan, ni horren gaixo egon ezik, pertsona hain uzkurti batek ez zuen horrelako atrebentziarik hartuko.

Ez nekien oraindik maitasunaren berri, baina ene bihotzak gogor egiten zidan taupa. Bihotzikara biren artean erdibanaturik, lilura adieraztezin batek bildu ninduen. Jana ematen zidana hain zen alaia; edana ematen zidana, berriz, hain samurra, non horrela bazkatzea nahi izango bainukeen nik eternitate osoan. Zoritxarrez, orok du bere amaiera, gaixo baten goseak ere bai. Bazkaria amaiturik, indarberriturik, ase nuen bada mika ttikiaren jakinmina, eta kontatu nizkion nire zoritxarrak, bezperan uso bidaiariari bezain zinez. Mikak, nire ustez zegokion baino arreta handiagoz entzun zidan, eta usapalak bere sentikortasun sakonaren traza zoragarriak erakutsi zizkidan. Baina, ene pena sortzen zuen punturik gogorrena, alegia, nor nintzenari buruzko ezjakintasun hura ukitu nuenean:

— Txantxetan ari al zara? —esan zidan mikak—. Zozo, zu! Uso, zu! Tira, tira! Mika zara, maitea, mika, zerbait izatekotan, eta oso mika atsegina gainera —erantsi zuen hegalez kolpe ttiki bat, abaniku kolpe baten antzekoa, emanaz.

— Baina, markesa anderea —erantzun nion—, iruditzen zait mika izateko nire kolorea... ez nuke desatsegin izan nahi...

— Mika errusiarra, maitea, mika errusiarra zara zu! Ez al dakizu zuriak direna? Mutiko gaixoa; hori da inuzentzia, hori.

— Baina, madame —segitu nuen—, nola izango naiz bada mika errusiarra, Marais barnean, erretilu zahar hautsi batean, jaiota?

— Oi! Mutiko on hori! Inbasio garaikoa zara, maitea! Bakarra zarela uste al duzu bada? Fida zaitetz nitaz, eta utzi egiten; segituan eramango zaitut nirekin eta munduko gauzarik ederrenak erakutsiko dizkizut.

— Eta nora izango da hori, madame, mesedez?

— Ene jauregi berdera, polit hori; ikusiko duzu zer nolako bizimodua egiten den han. Mika izanez ordu laurdena pasatzea nahikoa izango duzu beste ezer ez nahi izateko. Ehunen bat gara han, ez limosna eske ibiltzen diren herrixketako mika gizen horiek bezalakoak, etxe onekoak eta ongi heziak baizik, finak eta arinak, ez ukabila baino handiagoak. Ez dago gure artean zazpi marka beltz eta bost zuri ez duenik, ez gehiago, ez gutxiago; gauza aldaezina da, eta beste edozein arbuiatu egiten dugu. Zuk ez duzu marka beltzik, egia, baina errusiarra izatea nahikoa izango da onartua izateko. Bi dira gure bizimoduko eginbeharrak: kakaraka egitea eta geure burua edertzea. Goizetik eguerdira geure burua edertzen aritzen gara eta eguerditik arratsera, berriz, kakaraka egiten. Gutako bakoitza adar baten gainean kokatzen da, ahal den zuhaitzik handien eta zaharrenean. Basoaren erdian egundoko haritz bat dago, eta han inor ez da bizi, zoritxarrez. Mika hamargarrena erregeren egoitza izana da hura, eta hara joan ohi gara erromes, hasperen handiak eginez; baina pena arin horretaz aparte, denbora oso ederki igarotzen dugu. Gure emakumeak ez dira batere lotsatiak eta gure gizasemeak ere ez inondik jeloskorrak, eta halere gure plazerak erabat garbi eta txukunak dira, ze, hain da gure bihotza zintzo, non gure mintzoa libre eta alaia baita. Gure harrotasunak ez du itxurarik eta, halako batez, belatxinguren bat edo beste txori gaiztoaren bat gurean sartzen bada, kupidarik gabe lumatuta uzten dugu. Gauza horrengatik, ordea, ez diogu munduko txoririk jatorrenak izateari uzten, eta inguruko sastrakatan bizi diren txolarre, kardantxilo eta besteek beti prest izaten gaituzte, bai laguntzeko, bai jaten emateko, eta defendatzeko ere bai. Ez da non izaten gurean bezainbat berriketa, inon ez, ordea, marmar gutxiagorik. Ez da falta gure artean egun osoa aitagureka ari den mika zaharrik, baina, gutako gazte kaskarinenak ere lasai pasa daitezke halako elizkoiaren ondotik,

mokokadaren baten beldur izan gabe. Hitz batez, gozo bizi gara, ohoretsu, berritsu, zoriontsu eta harro.

— Oso ederra da hori, madame —erantzun nion—, eta ez nintzateke esker onekoa izango zu bezalako pertsona baten aginduetara jarriko ez banintz. Baina, zure atzetik joateko ohorea izan dezadan baino lehen, utzidazu, mesedez, hemen dagoen andereño on honi bi hitz esaten. Andereño —segitu nuen usapalagana begiraturaz—, mintza zakizkit, otoi, bene-benetan; uste al duzu zuk egiazki ni mika errusiarra naizena?

Galdera honekin, usapalak burua makurtu zuen, eta koloreak atera zitzaizkion, Lolotte-ren zinta gorrienak bezalakoak.

— Baina, monsieur —esan zuen—, ez dakit horrelako...

Jainkoaren izenean! Hitz egizu, andereño! Nire gogoan ez dago zu irain zaitzakeen ezertxo ere; alderantziz: biok hain atseginak iruditzen zatzaizkidate, ze, hementxe bertan, bion artetik nahi duenari nire bihotza eta hanka eskaintzeko agindua egiten baitut, mika edo zer arraio naizen jakiten dudan bezain laster; izan ere, zuri begira, erantsi nuen, halako usapalen bat ote naizen sentitzen baitut, eta horrek era bitxian bainau arduratzen.

— Hala da —esan zuen usapalak oraindik gehiago gorrituz—; ez dakit amapola horien tartetik pasaz zure gainera datorren eguzkiagatik ote den, baina esango nuke zure lumajeak halako kolore...

Ez zen gehiago esatera ausartu.

— Bai harrigarria! —adierazi nuen— nola jakin nora jo? Nola eman biotako bati horren ankerki erdibituriko bihotza? Oi, Sokrates, a zer nolako betekizun ederra, baina egiteko hain zaila, eman diguzun «ezagutzak hire burua» esatean.

Gure aita horrenbeste haserrarazi zuen zoritxarreko kanta haren ondoren, ahotsa gehiago erabili gabe neukan. Nengoen egoeran, hartaz baliatzea bururatu zitzaidan, egia jakitearren. «Ea bada», pentsatu nuen, «lehenengo ahairearekin gure aita jaunak atetik kanpora jarri nauenez gero, bigarrenak gutxienez eraginen bat izango du bi dama hauengan!». Beraz, errespetu osoz, lehen hartutako eurijasa zela eta ene ahotsarentzat barkamena eskatuz bezala, makurtu egin nintzen pixka bat, eta txistuka hasi gero, txioka hurrena, txorrotxioka ondoren, eta, azkenik, bete-betean adiera kantari, mandazain espainiarrek egin ohi duten antzera.

Kantari ari nintzen bitartean, mika ttikia urrunduz joan zen nigandik, lehenik harrituta, zurtuta gero, ikaraz nahasturiko haserrea adieraztera iritsi arteraino. Nire inguruan jiraka hasi zen, muturra erre berria dion urdai pusketaren inguruan berriro ere dastatu nahian bezala dabilen katuaren antzera. Egindako frogaren eragina ikusirik, eta azken ondorioetaraino eraman nahian, markesa ttikia zenbat eta urduriago, orduan eta gogorrago ekiten nion kantuari. Hogeita bost minutu iraun zuen mikak nire ahalegin soinularien aurrean; azkenean, iraun ezinik, hegaldatu egin zen zalaparta handiekin, bere jauregi hostotsuan babestera. Usapala, berriz, ia hasiera-hasieratik, sakonki hartu zuen loak.

— Hau da harmoniaren eragin miresgarria, hau! —pentsatu nuen— Oi, Marais! Oi, amaren erretilua! Inoiz baino gehiago gogoratzen zaituztet!

Abiatzera nindoan une berean, usapalak begiak ireki zituen.

— Adio atzerritarra —esan zuen—; atsegin bezain aspergarria zara gaixoa! Gourouli da ene izena; oro zaitetz nitaz!

— Gourouli eder hori —erantzun nion—, ona zara, gozo eta atsegina; nik zugatik bizi eta hil nahiko nuke. Baina zu arrosa kolorekoa zara; horrenbeste zorion ez da niretzat egina.

4

Nire kantuak sorturiko eragin tristeak oraindik gehiago nahigabetu ninduen. Ai, musika! Ai, poesia!, esaten nion behin eta berriz neure buruari Parisa heltzerakoan, bakanak dira ulertzen zaituzten bihotzak!

Horrela ari nintzela, aurrean zetorren uso baten kontra jo nuen buruz buru. Hain gogor eta ustegabeki jo genuen elkar, non, zorionez han zegoen zuhaitz baten gaikaldera erori baikinena biok. Gorputzak pixka bat astindu eta gero, etorri berriari begira jarri nintzaion, borrokaren zain. Harriduraz, zuria zela ikusi nuen. Egia esan, burua nik baino zertxobait handiagoa zeukan eta kopetan tontor bat, aldi berean itxura heroikoa eta barregarria ematen ziona. Gainera, isatsa zutik zeukan erabat, harro; bestalde, ordea, ez zitzaidan iruditu batere borrokarako zegoenik. Elkar oso gizalegez hartu genuen, eta barkamena eskatu genion batak besteari, ondoren hizketan hasi ginelarik. Bere izena eta nondik norakoa galdetzera ausartu nintzaion.

— Oso harritzen nau zuk ni ez ezagutzeak. Ez al zara bada gutakoa?

— Benetan, monsieur, ez dakit nortzuetakoa naizen. Galdetzen didaten guztiek gauza bera esaten didate; badirudi apustua dabilela tartean.

— Adarra jotzen ariko zara noski —erantzun zuen—; zure lumajeak gehiegi nabarmentzen zaitu, nik zugar gutako bat ez ikusteko. Ezbairik gabe, latinez *cacuata*, jakitunen mintzairan *kakatöes* eta mintzaira herrikoian *kakatua* deitzen duten arraza ospetsu eta harrigarri horretakoa zara zu.

— Baliteke, monsieur, beharbada, eta ohore handia litzateke niretzat. Baina, egizu ez banintz bezala eta esaidazu norekin hitz egiteko ohorea dudan.

— Ni —erantzun zuen ezezagunak— Kakatogan poeta handia nauzu; bidaia luzeak egina, gogor eta zail erromes ibilia. Ez da atzokoa ene bertso-lana, eta zoritxar ugari jaso du ene musak. Louis XVI.aren garaian bertso gintzan aritua naiz,

monsieur, eta Errepublikaren alde ere egin dut oihu; Inperioa zintzo kantatua dut, zuhurki laudatua Errestaurazioa; azken denbora hauetan ere gustorik gabeko mende honen eskakizunei erantzuten ahalegin handia egin dut, ez damurik gabe ordea. Pipermina bezalako distikoak bota ditut mundura; baita eres gorenak ere, ditiranbo alaiak, kantu elizkoiak, drama ileluzeak, nobela kizkurrak, bodebil hautsezatuak, edota trajeria burusoilak. Hitz batez, musen elizan galanteriazko zenbait friso, dorre ilun bat edo beste, eta ateraldiz beteriko arabesko apur batzuk eransteaz harro egoteko gai naiz. Orain, zahartu egin gara, zer egingo dugu bada; baina oraindik arin botatzen dut errima, monsieur, eta oraintxe bertan, zuk burukoa eman didazun une berean, poema baten ametsa egiten ari nintzen, kantu moduan emana, eta sei orrialde baino gutxiago izango ez dituen. Gainerantzerakoan, zerbaitetan lagun bazaitzaket, zure esanetara nago.

— Bai, monsieur, horixe lagun nazakezula —erantzun nion—, une honetan bertan arazo poetiko larri baten aurrean bainaukazu. Ez naiz ausartzen nire buruari poeta deitzera, eta gutxiago zure parekoa —erantsi nuen agur eginez—, baina, izadiak eman didan eztarri honek musika egitera bultzatzen nau, nahiz alai egon, nahiz penak janda ibili. Egia esatekotan, araei buruz ez dakit ezertxo ere.

— Nik, berriz, ahaztu egin ditut —esan zuen Kakatogan-ek—; ez kezkatu horregatik.

— Zerbait larria gertatzen zait ordea —erantzun mon— eta da, bada, nire ahotsak inguruan daudenengan sortzen duena, gutxi gorabehera jean de Nivelles batek beste batzuegan... Ba al dakizu zertaz ari naizen?

— Badakit —esan zuen Kakatogan-ek—, neure buruan ezagutzen dut eragin arraro hori. Ez dakit horren arrazoirik, baina duen eragina ukalezina da.

— Tira bada, monsieur; zuk, poesiaren Nestor iruditzen zatzaizkidan horrek, ba ote zenekike, otoi, oztopo mingarri honentzako sendabiderik?

— Ez —esan zuen Kakatogan-ek—, neure aldetik ez dut inoiz aurkitzerik izan. Gazte nintzelarik asko mindu nintzen, denek txistu egiten baitzidaten; baina gauden garaian ez nau kezkatzen gehiegi arazo horrek. Nire ustez, entzulegoak digun nazka hori, guri irakurri beharrean beste batzuei irakurtzetik datorkio: horrek nahastu egiten dio burua.

— Zurekin bat nator, baina, eta zuk ere hala usteko duzu noski, monsieur, gogorra da asmo onez beteriko gizaki batentzat, barneak agindutakoa kantatzen hasi bezain laster denak ihesi abiatzea.

Egingo al zenidake mesede, lehenik entzun eta gero zeure benetako iritzia emanetz?

— Oso gustora —esan zuen Kakatogan-ek—; dena belarri nauzu.

Berehala hasi nintzaion kantari eta asko poztu nintzen Kakatogan ihesi edo lokartzera ez zihoala ikusiz. Tinko begiratzen ninduen eta, tarteka-marteka, burua makurtzen zuen, baiezkoa emanetz bezala, onespenezkoa zirudien murmurioarekin batera. Baina laster konturatu nintzen ez zitzaidala entzuten ari, aldiz, bere poema amesten ari zela. Haizea hartzera nindoan une batez, kantua moztu egin zidan tupustean.

— Aurkitu dut, bada, errima! —esan zuen irribarrez eta burua kulunkatuz— Buru honetatik datorren hirurogei mila ehun eta hamalaugarrena da! Eta zahartzen ari naizela diote! Lagun onei irakurriko diet, bai, leitu egingo diet, eta ikusiko dugu zer dioten honi buruz!

Horrela hitz eginez, hegaldatu egin zen eta aienatu; bazirudien nirekin topo eginaz ez zela gehiago oroitu.

5

Bakarrik eta indargabeturik, ez neukan ezer hoberik egiteko, eta Parisen zehar hegan ibili nintzen egun osoan. Zoritxarrez, bidea galdurik nenbilen; uso bidaiariarekin egindako hegaldia ez zen batere gozoa izan hari buruzko oroipen garbirik gordetzeko; beraz, zuzen-zuzen ibili gabe, ezkerretara jo nuen, Bourget aldera eta, gauak harrapaturik, Monfontaine-ko basoan bilatu behar izan nuen estalpea.

Ni iristerakoan denak oheratzen ari ziren. Mikak eta eskilasoak, munduko zaputzenak agi danean, bazter guztietan errietaka ari ziren elkarri. Sastraka artean txolarreak ari ziren txio eta txio, elkarren gainean pilatuta. Ureztzean bi koartza lepozuri zihoazen tente-tente beren hanka luzeen gainean, gogoetak eginez bezala, emakumeei soseguz itxaronez leku hartako Georges Dandin-ak ziruditelarik. Bele ikaragarriak zeuden, zuhaitz altuenen puntan jarrita, erdilotan, baldarki, arratseko errezoak sudurkatuz. Beherago, txina maiteminduak sastraka artean elkarri segika zebiltzan; bitartean, pikaberde ile harro bat bere habiari bultzaka ari zen, zuhaitz baten zuloan sartu nahian. Txolarre ttiki taldeak zetozen soroetatik aidean dantzari, kezko ahokadak bailiren, eta, sastraka baten gainera eroriz, den-dena estalita uzten zuten. Negu-txoriak, kaxkabeltxak eta txantxangorriak adarretan biltzen ari ziren, gurpilean lihoazkeen kristal pusketek sorturiko ildoen antzekoak osatuz. Ahotsak zetozen bazter guztietatik: Goazen emazte maitea! Hator, eder hori! Hemendik, maitea! Hemen nago, ene maitea! Gabon, bihotzeko kuttuna! Agur, lagunok! Ondo lo egin, ene umeok!

Ezkongabe bakarti batentzat ez zen batere gozoa halako ostatu batean lo egitea. Nire tamainako txori batzuekin biltzeko gogoia sartu zitzaidan, eta ostatu

eskatu men; gauez txori guztiek grisak ematen dutela pentsatu nuen, eta edonola ere inori galerazpenik ez zaiola sortzen behar bezala lo eginez gero.

Xoxoka batzuk zeuden erretenera jo nuen lehenik. Gaueko apainketak egiten ari ziren gorputzean, kontu handiz, eta guztiek hegal urreztatuak zeuzkatela ikusi nuen eta oinak, berriz, distiratsuak: basoko galaiak ziren. Mutil onak iruditu zitzaizkidan eta ez zidaten batere jaramonik egin gainera; baina, haien berriketa hain zen funtsik gabea, eta hain leloki kontatzen zizkieten elkarri egokiera onak zein okerrak, hain baldar jartzen ziren bata bestearen kontra, non ezin izan bainuen han luzeago iraun.

Berehala alde egin nuen adar batean jartzera, han dozena erdiren bat txori desberdin zeudelarik. Azkeneko lekua hartu nuen, umil, adarraren muturrean, han onartuko nindutelakoan. Zoritxarrez, nire ondokoa uso zahar bat zen, haizeorratz herdoildu bat baino elkorragoa. Alderatu nintzaionean, bere hezurak estaltzen zituzten luma urriak ziren haren ardura. Orrazteko itxura egiten zuen, baina luma bat ere ez erortzeko kontu handiz; gainbegirada ematen zien, baten bat falta ote zitzaion edo begiratuz. Hegalaren ertzarekin ukitu besterik ez nuen egin eta harro zuzendu zen nigana:

— Zer egiten didazu, monsieur? —esan zidan mokoak zorrotzuz, lotsa britainiarrez bezala.

Eta, ukalondoarekin gogor joz, beheara bota ninduen, sokalari batena zirudien indarrez.

Gelinotte gizen bat lotan zegoen sastraka baten gainera erori nintzen. gure amak berak ere, erretiluan jarrita, ez zukeen edukiko halako santutasun itxurarik. Hain zen biribil, hain zegoen ongi etzana, hain ongi jarria bere sabel hirukoitzaren gainean, ezen gaina janda daukan tarta horietakoa baitzirudien. Haren ondoan

irristatu nintzen. «Ez diat esnatuko», esaten nion nire buruari, «eta, edonola ere, honelako ama gizona ez zaidak gorrotagarri egingo». Ez zen horrela gertatu ordea. Begiak erdirekiz, hasperen arin batekin honela esan zidan:

— Enbarazo egiten didak, tiki; hoa hemendik.

Une berean deika has zitzaizkidan. Birigarro batzuk ziren, otsalizar baten gainetik igotzeko esanez. «Horra azkenean bihotz onekoak», pentsatu nuen. Leku egin zidaten, eroak bezala algara eginez, eta, nola amodiozko gutuna sartu ohi den zetazko eskumuturrekoan, bada, hori bezain arin lerratu nintzen haien talde lumatsuan. Baina, laster juzkatu ahal izan nuen dama haiek behar baino mahats gehiago jana zutena; adarrean juxtu-juxtu irauten zuten zutik, eta haien lagun gaiztozko adar jotzeek, haien barre algarek eta haien kanta lizunek urrunarazi egin ninduten.

Ordurako desesperatzen hasia nengoen eta banindoan bazter bakarti batean lo egitera, eta hor non hasten den urretxindorra kantari. Denak isildu egin ziren. Ai, bai garbia zela haren ahotsa! Bai gozoa haren bihozmina bera ere! Besteen loa galarazi beharrean, haren soinuek sehaska kulunkak ziruditen. Inor ez zen hura isilarazteaz arduratzen, inork ez zuen txartzat jotzen halako ordutan kantari hastea; ez zuen zigortzen bere aitak, ez zuten ihes egiten bere lagunak.

— Niri bakarrik, beste inori ez zaiok debekatu —egin nuen oihu— zoriontsu izatea! Noan, alde egin dezadan mundu anker honetatik! Hobe diat nire bidea ilunpetan, hontzen batek jan nazan arriskuan, bilatzea, ezen ez, nire barnea honela, besteen zorionari begira, desegitea!

Gogoeta honekin bidean jarri eta norabiderik gabe ibili nintzen luzaroan, zetorkidana zetorkidala. Egunaren lehen argiekin 'Notre-Dame'ko dorrea begiztatu nuen. Aitaren batean heldu eta ez nuen denbora luzean hara eta hona begiratu

beharrrik izan gure lorategia ikusteko. Tximistak baino arinago egin nuen hegan haruntza. Ai! Hutsik zegoen... Alferrrik egin men dei ene gurasoei; inork ez zidan erantzun. Nire aita jartzen zen zuhaitza, amaren sastraka, erretila maitea... han ez zegoen ezer. Aizkorak txikitua zuen den-dena. Ni jaiotako ibilbide berdearen ordezt, ez zegoen zientoren bat egurpila besterik.

6

Aurrena, inguruko lorategi guztietan bilatu nituen nire gurasoak, baina alferrik. Urrutiko auzoren batean gordeko ziren nonbait, eta ez nuen gehiago ezer jakiterik izan haietaz.

Erabat saminduta, aurreko hartan aitaren haserreak bidali ninduen teilatu ertzera joan nintzen jartzera. Han pasa nituen egunak eta gauak, ene bizimodu tristeaz penatzen. Ez lorik, ez janik, minez hiltzeko zorian nengoen.

Ben bezala aieneka ari nintzen egun batean:

— Beraz —esaten nion neure buruari ozenki—, ez nauk ez zozo, aitik lumatuta utzi baininduen, ezta uso bidaiari ere, bidean erori bainintzen Belgika-ra joan nahirik; mika errusiarra ere ez, markesa andereak belarriak tapatu baitzituen nik ahoa ireki orduko; usapala ere ez nauk, Gouroulik ere, Gourouli zintzoak berak ere, zurrunga egiten baitzuen fraide baten antzera, ni kantari ari nintzelarik; loro ere ez noski, Kakatoganek ez baitzidan ezertxo ere entzun; edonolako txori ere ez nauk izango, Morfontainen bakar-bakarrik utzi baininduten lotarakoan. Gorputzean lumak zeramatzat ordea; hara hemen hankak, hona hemen hegalak. Munstroa ez nauk, ezta gutxiagorik ere, Gourouli lekuko, eta markesa tiki hura ere bai, oso atsegin bainintzaien. Zer nolako misterio adieraztezinagatik ezin zioat eman izenik luma hauek, hegal hauek eta hanka hauek osatzen ez dakiten gorputzari? Ez ote nauk beharbada...?

Banindoan nire hitz saminekin segitzera, eta hor non aditzen dudan kalean bi emakume atezainen arteko tekela:

— Arraioa! —esan zion haietako batek besteari— Hori egitea lortzen badun zozo zuria erregalatuko dinat!

— Ene Jainkoa! —egin nuen oihu— Horra zer naizen! Oi, Jainkoaren patua!
Zozo baten seme izan, eta txuri: zozo txuri bat nauk beraz!

Halako aurkikuntzak asko aldatu zuen nire ikuspegia, egia diot. Egoera tamalgarri hartan segitu beharrean, harrotzen has nintzen eta teilatu ertzean ibiltzen tente-tente, aidera garaipen begiradak bidaliz.

— «Baduk zerbait —esan nion neure buruari— zozo zuri izate hau: ez duk ez egunero ikus daitekeen gauza. Ederki ari ninduan nire antzekorik ez nuela aurkitzen eta kezkatuz! Jeinu baten etorkizuna duk nirea eta! Mundutik ihes egitea nahi nian; orain berriz mundu horren mirespena lortu nahi diat! Nola parerik gabeko txoria naizen, jende arruntak nire izatea ukatzen duelarik, naizen horren arabera jokatu beharra zeukat, eta hala nahi diat egin gainera, Fenix Hegaztia baino ez gutxiago ez gehiago, beste hegaztiak oro arbuiauz. Alfieri-ren oroitzapenak eta Lord Byron-en poemak lortu beharrean niagok; horrelako janari sustantziak goimailako harrotasuna ekarriko zidak, Jainkoak eman didana kontutan izan gabe. Bai, ahal izanez gero, nire sorburu agurgarria handitu egin nahi diat. Izadiak arraroa eman zidak gorputza; orain nire burua misteriotsu bihurtuko diat. Ni ikustea mesedetzat hartuko diate, goresgarritzat. Eta, bide batez —erantsi nuen ahapeka—, nire burua diru truke erakutsiko banu, zer?

«Utikan, burutapen gaizto hori! Kakatoganak bezala, nik ere poema bat egingo diat, ez kantu batean, hogeita lautan baizik, gizaki handi guztiek bezala; ez, ez duk nahikoa hori, berrogeita zortzi egingo dizkiat, ohar-eranskin eta guzti. Beharrezkoa duk unibertsoak jakin dezan banaizela. Ez zioat utziko bertsoan ene bakardadeaz penatzeari; baina, halako era bitxian egingo diat hori, non zoriontsuenak ere bekaitz izango baitituk nitaz.

Zeruak emalaguna ukatu didanez gero, besteenaz hitz egingo diat gaizki. Dena berdeegia dela adieraziko diat, neuk jaten ditudan mahatsak kenduta. Urretxindorrek beren buruari zutik eusten nahiko lan izango diate; erakutsiko diat, bi eta bi lau diren bezala, zein kaltegarriak diren koplak bihotzerako, saldu nahi duten jenero horren baliorik eza adieraziz. Charpentier-en bila joan beharra zeukat. Aurrena, literaturan leku boteretsua eskuratu behar diat, nire inguruan gorte oso bat sortu arte, ez bakarrik kazetariak osatua, egiazko autoreek baizik, emakume letradunak barne. Rachel andereñoarentzat paper bat idatziko diat, eta ez badu antzeztu nahi, bazter guztietan zabalduko diat idatzi bat, non haren talentua probintzietako aktorea zahar batena baino motelagozat agertuko dudan. Veneziara joango nauk eta kanale handiaren ondoan, hiri liluragarri horren erdian, Mocenigo izeneko jauregia alokatuko diat, egunean lau libera eta hamar xentimo kostatzen den hori; han Lararen egileak bertan utzitako oroipenetan piztuko diat barnea. Ene bakardadearen sakonetik Spencer-en ahapaldietatik ateratako errima gurutzatuen uholdeez blai egingo diat mundua, horrela ene arima handi hau askatuz; txina guztiak hasperenka jarriko dizkiat, usapal guztiak gorgorka, oilagorak negarrez, eta hontz zaharrak oro uluka. Niri dagokidanez ordea, amodioarekin eskuragaitza eta aldaezina izango nauk. Alferrik etorriko zaizkidak atzetik segika edo erreguka, nire kantuak jotako zoritxarrekoentzat errukia eskatuz; guzti horri honela erantzungo ziot: «Utikan!». Oi, aintza gehiegi! Nire eskuizkribuak urre prezioan salduko dituk, eta nire liburuak itsasoaren bestalderaino iritsiko; ospea, fortuna, bazter orotatik etorriko zaidak; bakarra izanik, inguruan daukadan jendetzaren esamesei entzungor egingo ziet. Hitz batez, zozo zuri benetakoa izango nauk, egiazko idazle bitxia, omendua, miretsia, bekaitzez begiratua, baina erabat purtzil eta zaputza».

7

Sei aste baino gehiago ez nuen behar izan nire lehen lana argitara emateko. Agindu bezala, berrogeita zortzi kantuz osaturiko poema zen hura. Bazegoen, bai, zenbait utzikeria, idazterakoan hain emankor izan nintzenaren kariaz; halere, pentsatu nuen, bada, nola gaurko irakurlegoa ohituta dagoen egunkarien azpikaldean idatzitako literaturara, ez zidatela horregatik ezer aurpegiatuko.

Arrakasta, neroni zegokidana izan nuen, paregabea alegia. Nire obraren gaia neu besterik ez nintzen; honetan gure garaiko modarekin bat nentorren. Xalotasun harrigarritz kontatu nituen nik pasatako saminak; interes gordina zeukaten eguneroko hamaika bitxikeriari buruz jakinaren gainean jartzen nuen irakurlea; gure amaren erretiluaren deskribapenari ez nion hamalau kantu baino gutxiago eskaini: haren arraildura, zulo, okerdura, pusketa, ezpaltxo, iltze, zipriztin, abardura desberdinak, distirak, denak kontatzen nituen; aurrekaldea, barnea, kanpoa, ertzak, atzekaldea, aldeak, leku okerrak, zuzenak, erakusten nituen; barruan edukitzen zuenari buruz, berriz, aztertu nituen bai belar izpiak, bai lastoak, hosto lehorrak, egur zati ttikiak, hondar aleak, euri tantak, eulien hondakinak, edo han zeuden euli handien hankak; deskribapen liluragarria zen. Baina, ez pentsa hori dena batean jarri nuenik: zenbait irakurle lotsagabek gainetik salto egingo zukeen. Puxketaka ebakirik, trebeki, idatzi osoan barreiatu nuen, ezer gal ez zedin; halako moduz, non unerik interesgarrienetan, bat-batean, agertzen baitziren erretiluaren hamabost orrialdeak. Horra, nire ustez, artearen sekreturik handienetakoa, eta, nola ez naizen batere zekena, nahi duenak erabil beza irakaspen hau.

Europa osoari eragin zion zirrara nire liburuaren agerpenak, eta, mintzatzera makurtu nintzaiolarik, Europa osoak irentsi zituen nire barne adierazpenak. Nola bada bestela? Ez bakarrik adierazi nizkion neure pertsonari zegozkion gertakizun

guztiak, baizkik eta, bi hilabete nituenetik buruan pasatako ameskizunen erakusketa osoa ere egin nion; lekurik ederrenean, bestalde, oraindik arrautzan nengoela ondutako eresi bat ere tartekatu nuen. Noski, bide batez, ezin utzi ukitu gabe gaur mundua hainbeste kezkatzen duen gai nagusia: gizateriaren etorkizuna, alegia. Arazoa interesgarria iruditu zitzaidan; atsedean tarte batean, gai horri buruzko irtenbidea zirriborrazeari ekin nion, eta orokorki ontzat emana izan zen.

Egunero zoriontzen ninduten bertsoz, nahiz gutunez, nahiz izengabeko amodio aitorten bidez. Ikustera zetozkidanekin, berriz, eratua neukan plangintzari jarraitzen nintzaion zorrozki; mundu osoari itxirik zirauen nire ateak. Halere, etorri ziren bi arrotzi ireki gabe uzterik ez nuen izan, nire gurasoak zirela iragarri zidatelarik. Bata Senegaleko zozo bat zen, eta Txinakoa bestea.

— Oi, monsieur —esan zidaten ia itotzeraino besarkatuz—, bai zozo handia zarena! Zein ongi adierazi duzun zure poema hilezinean jeinu ezezagunaren barnemin sakona! Baldin eta izan daitekeen baztertuenak ez bagina dagoeneko, zu irakurrita hala izango ginateke behintzat! Nola gatozen bat zure minekin, arrunkeriarri egiten diozun arbuio gorenarekin! Ezagutzen ditugu geuk ere, monsieur, eta geure kabuz, kantatu dituzun pena ezkutuak! Hona hemen ondu ditugun bi soneto, bat bestearen barnean dagoelarik, eta onar ditzazula erregutzen dizugu.

— Hona hemen, bestalde —erantsi zuen Txinakoak—, zure prefazio baten gainean nire emazteak osatu duen musika. Oso ondo dagokio egilearen asmoari.

— Messieurs —esan nien—, ikusten dudanez, bihotz handi eta izpiritu argiz osaturik zaudete. Baina, galdera bat barkatuko didazue: nondik datorkizue malenkonia hori?

— Oi, monsieur —erantzun zidan Senegaldik zetorrenak—, begira nola nagoen osatua. Nire lumajea, egia da, atsegina egiten zaio ikusmenari, eta kolore berde eder

honekin jantzirik nago, ahate distiratsuak bezala; baina, nire moko motzegia da eta oina, berriz, handiegia; eta begira nolako isats lotsagarria dudan: nire gorputza ez da horren hirutatik bira ere iristen luzeran. Ez ote daukat bada horrekin deabru guztien eskuetan jartzeko arrazoirik?

— Eta ni, monsieur —esan zuen Txinakoak—, oraindik okerragoa da nire zoritxarra. Kaleak garbitzen ditu nire lagunaren isatsak, baina, ni behatzez seinalatzen naute umeez, isatsik gabekoa naiz eta.

— Messieurs —kendu nien berriro hitza—; erruki zaituztet bihotz-bihotzez, beti baita penagarri gehiegi nahiz gutxiegi edukitzea, edozer delarik ere. Baina, utzidazue esaten Landare Lorategian badagoela zuen antzeko anitz, eta han dirautela aspaldidanik bake-bakean disekatuta. Emakume idazleari liburu on bat egiteko lotsagabe izatearekin aski ez zaion bezala, ez da nahikoa zozo batentzat, jeinua duela eta, kontentagaitz izatea. Ni bakarra naiz gutakoen artean eta horrek penatzen nau; beharbada oker nabil, baina nire eskubidea da hori. Zuria naiz, messieurs; bihur zaitezte zuri eta ikusiko dugu orduan zer dakizuen esaten.

8

Hartu nuen erabakia hartuta ere, lasaitasun itxurak eginda ere, ez nintzen, ez, batere zoriontsu. Nire bakardadeak, goresgarria izanik, ez zidan horregatik min gutxiago egiten, eta pentsatu nuen, ez larritasunik gabe, ene bizitza osoa zelibatoan pasa beharrean nengoela. Udaberriaren etorrerak, batez ere, hiltzeko adinako larridura ekarri zidan, eta tristurak hartzen hasia ninduen berriro; eta orduan ustegabeko gertakizun batek nire bizimodu osoa erabaki zuen.

Esan gabe doa nire idazlanek Mantxako Kanalea zeharkatua zutela, eta ingelesak elkarri eskuetatik kenduz zebiltzala. Ingelesek, ulertzen ez duten ororekin gauza bera egiten dute. Gauzak horrela, egun batez Londrestik gutun bat jaso nuen, zozoño gaxte batek izenpetua:

«Leitu dut zure poema —esaten zidan— eta sentitu dudan mirespenak nire eskua eta nire izate osoa zuri eskaintzera eraman nau. Jainkoak bata bestearentzat eginak gaitu! Zure antzekoa naiz, zozoño zuria naiz ni ere!...»

Erraza izango da hartu nuen ustekabea eta poza ikustea; «zozoño zuri bat!, esan nion neure buruari, ba ote liteke? Ez nago, beraz, bakarrik munduan!» Arin ibili nintzen, bada, ezezagun ederrari erantzuten, eta egin nuen eragatik argi asko ikusten zen zein atsegin zitzaidan proportzio hura. Parisa lehenbailehen etortzeko adierazi nion, edo bestela, haren ondoraino hegan egiten uzteko. Hark, nahiago zuela etortzea erantzun zidan, gurasoekin aspertuta zegoela eta; gauzak konpondu behar zituela eta berehala ikusiko nuela.

Etorri zen, bai, handik egun batzuetara. Oi, zoriona! Munduko zozoñorik ederrena zen, ni baino zuriagoa oraindik.

— Oi, mademoiselle —egin nuen oihu—, edo hobe esanda, madame, hemendik aurrera nire benetako emaztetzat jotzen baitzaitut; nola liteke horrelako izaki ederra

munduan ibiltzea eta bere sona niganaino ez ailegatzea? Bedeinkatuak bitez dastatu ditudan zoritxarrak, aitak emanda hartu ditudan mokokadak, hain ustegabeko kontsolamendua baitzeukan zeruak enetzat gorderik! Gaur arte, betiko bakardadera kondenaturik ikusten nuen neure burua, eta egia esan behar badizut, zama gogorrazen hori gainean eramateko; baina, zu ikusita, familiako guraso baten ezaugarri guztiak sortzen zaizkit. Onar ezazu nire eskua, luzapenetan ibili gabe; ezkon gaitezen ingeles eran, zeremoniarik gabe, eta abia gaitezen Suizaruntz.

— Nik ez ditut bada gauzak horrela ikusten —erantzun zidan zozoño gaxteak—; gure ezteiak ikusgarriak izatea nahi dut eta Frantzian dauden zozoetatik ongi samar jaiotakoak oro biltzea haietan. Gu bezalakoek, daukagun ospeagatik soilik, ez dute ezkondu behar teilatu ertzetako katuak bagina bezala. 'Bank-notes' mordo bat ekarria dut. Egitzazu zeure gonbidapenak, zoaz zeure dendariarengana eta edari kontuan ez ibili merke-zurrian.

Zozoño zuriaren aginduekin bat etorri nintzen itsuki. Gure ezteiak paregabeko handitasunez ospatu ziren; hamar mila euli jan zen han. Artzapezpiku *in partibus* zen aita Cormoran agurgarriaren eskutik jaso genuen ezkon bedeinkapena. Eguna dantzaldi ikusgarri batek itxi zuen; hitz batean esanda, ene zorionari ez zitzaion ezer faltatu.

Zenbat eta gehiago ezagutu nire emazte atseginaren izaera, orduan eta handiagoa egiten zen ene maitasuna. Arimaren eta gorputzaren gozatasun guztiak biltzen zituen bere gorputz ttikian. Uzkurti samarra zen, hori bai, baina ordurarte laino ingeles artean bizi izanaren eraginari bota nion aitzakia, eta ez nuen dudarik egiten Frantziako giroak laino arin hura laster garbituko zuena.

Gehiago kezkatzen ninduen, ordea, zenbaitetan hain gogorki inguratzen zuen misterio hark, bere zerbitzariekin giltzapean gordetzen zelarik, horrela orduak eta

orduak emanez, apaintzen ari zenaren aitzakiaz. Senarrei ezkon bizitzan ez zaizkie batere atsegin izaten horrelako kontuak. Nire emaztearen apartamenduko atea hogei bider jotzeraino iritsia nintzen, hark atea irekitzea lortu gabe. Gauza horrek biziki ateratzen ninduen neure onetik. Haietako egun batez, hain umore txarrean ari nintzen jo eta jo, ze, azkenean amore eman behar izan baitzuen eta atea ireki pittin bat, ez ordea nire desegokitasunagatik kexaka jardun gabe. Sartuz, botila handi bat begiztatu nuen, irinez eta Espainiako zuriz osaturiko kola antzeko batez betea. Droga harekin ea zertan aritzen zen galdetu nion nire emazteari. Zeuzkan ospelentzako erremedioa zela erantzun zidan berak.

Erremedio hura susmagarri samarra iruditu zitzaidan; halere, zenbateraino ez zitzaidan bada fidagarri izango halako pertsona gozo eta zintzoa, bere burua hain gartsuki eta egiatasun zorrotzez eskaini zidana? Hasieran ez nekien nire bihotzeko maite hura emakume idazlea izana zela; denboraldi bat pasa eta gero aitortu zidan hori; eta nobela baten eskuizkribua erakustera ere iritsi zitzaidan, non Walter Scott eta Scarron-en imitazioa egina baitzuen aldi berean. Ez dago esan beharrik zer nolako poza eman zidan halako ustekabe hain atseginak. Ez nintzen bakarrik edertasun paregabearen jabe; gainera, nire lagunaren adimena neure jenioari bete-betean zegokiona zela ere baieztatu ahal izan nuen. Une hartatik aurrera elkarrekin egin genuen lan. Nik poemak ontzen nituen bitartean, hark orriak eta orriak betetzen zituen zirriborroz. Nik bertsoak ozenki errezitatzen nizkion eta gauza horrek ez zion galarazten bitartean lanean segitzeko. Nobelak nik bezainbateko erraztasunez botatzen zituen, beti gai dramatikoak aukeratuz, bai guraso hilketak, bai bahiketak, bai erailketak, edo lapurretak ere bai, bide batez gobernua erasotzeko edo zozoñoen askatasuna aldarrikatzeko ardura hartuz beti. Hitz batean, nekeak ez zuen haren izpiriturik akitzen, ezta inongo makurkeriak haren lotsa ere; inoiz ez zuen lerro bat

ere ezabatzen, ezta lanean hasi baino lehenengoko aurreaiorik egiten ere. Huraxe zen zozoño letradunen eredu.

9

Egun batez, inoiz baino gartsuago emana zegoelarik lanari, izerdi tanta lodiak ikusi nizkion eta, zurtuta, begiztatu nuen nola bizkarrean orbain beltz handi bat zeukan.

— Ei! Ene Jainkoa! —esan nion— Zer da hori ordea? Gaixo al zaude bada?

Bazirudien hasieran ikaratu egin zela, eta lotsatu ere bai, baina jendarterako zeukan ohitura handi hark lagundu bide zion berriro ere bere buruaren agintea, beti gordetzen zuena, berreskuratzen. Tinta orbaina zela esan zidan eta oso maiz gertatzen zitzaiola gainera inspirazio momentuetan.

— Nire emazteak tintea galtzen ote du? —esan nion neure buruari isilka. Pentsakizun honek ez zidan utzi lorik hartzen. Kola botila etorri zitzaidan berriro gogora Jaungoikoa! —atera zitzaidan— Hau da hau susmo txarra! Izaki zerutiar hori ez ote da pintura edo itxura hutsa besterik? Nire bizkar bizitzeko barnizatu ote du bere burua?... Nire bihotzaren kontra ene izpirituaren arreba, niretzat bakarrik sorturiko izaki berezia, besarkaturik neukanaren ustetan, ez ote naiz beharbada (itxurati) hutsarekin ezkondu?

Kezka gaizto hori atzetik neramalarik, guztia argitzeko erabakia hartu nuen. Barometro bat erosi eta egun euritsu baten zain jarri nintzen. Emaztea mendi adiera eraman nahi nuen, zalantzazko giroa ager zedin igande bat aukeratuz, eta garbiketa bat eragiten saiatu. Uztail betean geunden ordea: giro eder espantagarria egiten zuen. Zorion itxurak eta idazteko ohiturak asko piztua zidaten sentsibilitatea. Inuzente samarra bainintzen, noizbehinka, lanean ari ginelarik sentimendua ideiei nagusitzen zitzaien nire barnean eta, errimaren zain nengoen bitartean, negarrari ematen nintzaion. Ene emazteari oso atsegin zitzaizkion noizbehinkako parada horiek: gizonezkoaren ahuldade guztiek emakumearen harrotasunari poza ematen

diote. Halako gau batez, Boileau-ren aginduari jarraiki oker bat ezabatu nahian ari nintzelarik, bihotza askatzen hasi nintzaion.

— Oi, zu —esan nion ene zozoño maiteari—; zu, paregabea eta maitatuena! Zu, ene bizitza zu gabe amets hutsal litzaidakeen hori! Zu, begirada batez, irribarre batez, unibertso osoa enetzat metamorfoseatzen duzun hori; ene bihotzaren bizigarria; ba ote dakizu zenbat zaitudan maite? Beste poeta batzuk erabilitako ideia hutsal bat bertotan jartzeko, esango nuke ikasketa eta arreta pixka batek hitzak erraz aurkitzen laguntzen didatela; baina nondik aterako dut zure edertasunak sor erazten didana adierazteko haina? Iraganeko penen oroitzapenak berak emango ote lidake hitz bakar bat gaurko zorionaz zuri mintzatzeko? Zu nigana etor zintezen baino lehenago, nire bakardadea umezurtz atzerriratu batena zen; gaur errege batenaren parekoa da. Ez al dakizu gorputz ahul honetan, herioak suntsi dezan bitartean bizi itxura egiten duen honetan, ez al dakizu sukarrez betetako garun txiki honetan, non alferrikako gogoeta ari baita irakiten, ez al dakizu, ene aingeru horrek, ez al duzu ulertzen, ene eder horrek, ezin dela ezer egon zurea ez denik? Entzun ezazu nire garunak esan dezakeena eta senti ezazu zenbateraino den nire amodioa handi eta handi! Oi! Nire jeinua perla bat baledi, eta zu Kleopatra bazintez.

Horrelako txorakeriak esanez, nire emaztearen gainera egin nuen negar, eta orduan garbi asko hasi zen tintea galtzen. Malko bakoitzarekin luma bat desestaltzen nion; ez zen beltza ere izatez, gorri zaharkitua baizik (nik uste, hark beste nonbait ere tintea galdua zuela lehenagotik). Hunkidura hartan minutu batzuk pasa ondoren, kola eta irina galduak zeuzkan txori baten aurrean nengoen, zozo arruntenen eta baldarrenen antzekoenaren aurrean.

Zer egin? Zer esan? Zein jokabide hartu? Alferrikakoa zen ezer aurpegiatzea. Kasua hitz-hautsitzat har nezakeen eta ezkontza ezeztatu horrela; baina, nola

jakitera eman nire lotsa? Ez al zen bada nahikoa zorigaizto? Gauzei aurre egin eta mundutik aienatzea erabaki nuen, letra karrera uztea, basamortu batera aldegitea eta, ahal izanez gero, edozein izaki bizidunen itxurarik aurrean gehiago ez izatea, eta Alcestes bezala honako honen bila abiatzea:

«Leku urrun bat, non zozo zuri izateko askatasuna izango den!»

10

Gorantz hegaldatu nintzen, negar eta negar; eta haizeak, txorien patua baita haizea, Morfontaine-ko adar batera eraman ninduen. Oraingoan denak oheratuta zeuden.

— Hau ezkontza, hau! —esaten nion neure buruari— A zer eskapa! Benetan intentzio onez jantziko zen zuriz ume gaixo hori; baina horrek ez du nire zoritxarra leuntzen, edo haren kolore gorritzat gutxitzen.

Urretxindorra kantari ari zen oraindik. Bakar-bakarrik gauaren sakonean, bihozbetez ari zen gozitzen Jainkoak emandako dohaina, poetak baino are handiagoa egiten mena, eta gogoetak inguruko isiltasunari eskaintzen zizkion. Ez nuen irauterik izan harengana joan eta berarekin mintzatu gabe.

— Bai zoriontsu zarena! —esan nion— Gogoak eman haina kantatzen duzu eta, hain ederki, ezen, jende guztia entzutera jartzen baita; eta ez hori bakarrik, badauzkazu emaztea eta umeak ere, zure habia ere bai, zure lagunak, goroldiozko zure almohada ederra, ilargi betea, eta kazetarik batere ez. Rubini eta Rossini ez dira ezer zure ondoan: lehenengoak adina balio duzu eta bigarrenari igerri egiten diozu. Ni ere kantuan aritua naiz, monsieur, eta penagarria izan da. Hitzak borrokarako ilaran jarri ditut soldadu prusiarrak bailiran, eta zu basoan zinen bitartean ni zirtzilkeriak antolatzen ari nintzen. Ikasi al daiteke zure sekretua?

— Bai —erantzun zidan urretxindorrak—, baina ez da zuk uste duzuna. Nire emazteaz asperturik nago, ez dut maite batere; ni larrosaren maitale nauzu: Sadi-k, pertsiarrek, esana du hori. Ni gau osoa harengatik ito beharrean aritzen naiz, baina hark lo egiten du eta ez nau aditzen. Ordu hauetan haren kaliza itxirik dago: zomorro zahar bat kulunkatzen du altzoan; eta bihar goizean, ni ohera sufrikarioz eta nekez leher eginda itzultzean, orduan irekiko da, erle batek bihotza zurrupa diezaion!

IRAKASLEAREN FITXA:

Alfred de Musset-en “Zozo zuriarena” lantzeko zenbait

PROZEDURA:

- *Egoeraren konponbidea.* Ikasleei eskatuko zaie, literatur lanean aurkitzen duten egoerari aurre egiteko aholkua eman dezatela: zer egin etxetik botea izanez gero? (Collie, 72 orr.)
- *Zer gertatuko litzateke baldin ba...?* Zer gertatuko zen zozo zuriak ez balu etxetik alde egin? (Collie, 83 orr.). Baldintza lehenaldian lantzeko balio lezake: X gertatu balitz, Y suertatuko zen...
- *Istoriaa birkontatzen.* (Collie, 84 orr.)

1. Ikasleek irakurriko dute ipuina

2. Poltsa batean, ikasle haina zenbakidun txartel jarriko dira (ikasle gutxi badira zenbaki gehiago).

Ikasleek banan-banan aterako dituzte zenbakiak

3. Ipuina kontatzeari ekingo diote, irakasleak NAHIKOA esan arte.

Hurrengo zenbakia atera duenak kontaketa jarraituko du... amaitu arte.

ARTEA ETA BIZITZA

Erretratu obala

E. A. POE

Gaztelu hura, nire zerbitzariak, nire zauri larri haiekin gaua kanpoan pasatzen utzi baino, oldarrean sartu nahiago izan zuena, iluntasuna eta handitasuna bateratzen dituzten eraikin erraldoi horietako bat zen, Apeninoetan han-hemen luzaro kopetilun egon direnetakoa, ez gutxiago errealitatean Radcliffe andrearen irudimenean baino. Itxura osoa zuen utzi berria zela, aldi baterako nonbait. Gela txikien eta altzari soileneko batean hartu genuen egoitza. Gazteluko dorre urrun batean zegoen. Apaingarri aberatsak zituen, hondatuak eta zahartuak ordea. Hormak tapizez estaliak zeuden, eta era askotako armarriez apainduak; margolan modernoak ere asko zeuden, bizitasunez beteak, arabeskozko marko urre-kolore aberatsetan ipiniak. Margolan haiek —eta ez zeuden horretan bakarrik zintzilikatuak, aitzitik, baziren gazteluaren arkitektura bitxiak sorrarazten zituen zoko ugarietan ere—; margolan haiek biziki erakarri ninduten, nire eldarnio hasi berriagatik beharbada; gelako ate-leiho astunak itxi zitzala eskatu nion, bada, Pedrori —gaua baitzen ordurako—, piztu zitzala nire ohearen burualdean zegoen argimutil luze baten kandela guztiak, eta zabal zitzala alderik alde ohea inguratzen zuten belus beltzezko errezel parpailadunak. Halaxe nahi nuen gela, gero, loak hartzen ez baninduen, besterik ezean, margolan haiei begiratu eta burkoaren gainean aurkitu nuen liburutxo bat, margolanak kritikatzeko eta deskribatzeko omen zituena, aztertu ahal izateko.

Luze, oso luze, aritu nintzen irakurtzen, eta arduraz, arduraz handiz, begiratu nituen margolanak. Laster eta atsegina joan zitzaizkidan orduak, eta iritsi zen gauerdia. Argimutila ez zegoen lekurik egokienean, eta, nire zerbitzaria erdi lotan

zegoenez, ez bainuen esnatu nahi, neke handiz eskua luzatu eta lekuz aldatu nuen, argiak liburu gainean beteago jo zezan.

Inola ere espero ez nuen ondorioa izan zuen orde mugimendu hark. Kandelen argi izpiek (kandela asko baitzen), horma-zulo bat argitu zuten, ordu arte ohearen habeetako baten itzal ilunean ezkutaturik geratua. Era horretan ikusi nuen garbi-garbi han zegoenik ere sumatu ez nuen margolan bat. Neska gazte baten erretratua zen, justu-justu emakumetzen ari zen unekoa. Margolanari begiratu arin bat egin, eta begiak itxi nituen. Zergatik itxi oten nituen, neronek ere ez nekien hasieran. Baina betazalak bilduta nituela, bururatu zitzaidan zergatia. Bere kasa itxi zitzaizkidan, pentsatzeko denbora irabazteko, begiek engainatu ez nindutela ziurtatzeko, irudimena baretu eta menderatzeko, eta, hala, sosegatuago eta ziurrago begiratu ahal izateko. Handik minutu gutxira berriz erreparatu nion, zuzen-zuzenean, margolanari.

Orduko hartan ondo ikusten nuela, hortaz ezin nuen eta ez nuen dudarik egin; zeren ematen baitzuen oihala jo zuen lehen izpiak desagerrarazi zidala zentzumen guztietara zabaldua nuen lozorro ameslari hura, eta berehalakoan esnatu ninduela.

Erretratua, esan dut lehen, neska gazte batena zen. Haren burua eta lepoaldea besterik ez zuen hartzen, eta teknikoki *vignette* deritzan moduan egina zen, Sullyren buru gogokoenen tankerara. Besoak, bularra, baita ile distiratsuaren ertza bera ere, ezin antzemateko moduan desagertzen ziren erretratuaren atzealdea osatzen zuen itzal lauso baina sakonean. Markoa obala zen, urre kolore aberatsekoa eta estilo moriskoko filigranez apaindua. Artelan zen neurrian, ezin zitekeen gauza miresgarriagorik izan margolan hura baino. Baina ez lanaren egikerak, ez begitartearen edertasun hilezkoak, ezin izan ninduten hain bat-batean eta hain barruraino asalatu. Are gutxiago izan zitekeen nire irudimenak, bere lozorrotik

astinduta, buru hura pertsona bizi batenarekin nahastu izana. Berehala konturatu nintzen marrazkiaren berezitasunek, *vignette*arenak, eta markoarenak, sortu bezain laster uxatu zutela ideia hori, instant bakar batez ere halakorik pentsatzea eragotzi zutela. Pasatuko nuen ordu bete agian gauza horiez hausnarrean, erdi eserita, erdi etzanda, begiak erretratuan iltzatuta. Azkenean, margolanaren efektuaren benetako sekretuarekin lasaiturik, ohe gainean etzan nintzen ostera. Adierazpenaren *bizitasun itxura* erabatekoan aurkitu nuen margolanaren lilura, eta hasieran bizitasun hura harrigarria gertatu bazitzaidan ere, azkenean nahasi, menderatu eta guztiz izutu ninduen. Zirrara sakon eta errespetuzko batez, lehengo lekuan jarri nuen berriz argimutila. Begien bistatik urrunduta beraz nire asaldura haren eragilea, margolanak eta haien historiak agertzen zituen liburura jo nuen larri. Erretratu obala izendatzen zuen zenbakira joan, eta hantxe irakurri nituen ondorengo hitz lauso eta bitxi hauek:

«Edertasun guztiz bereziko dontzeila zen, eta maitagarria bezain bizitasunez betea. Eta zoritxarrekoa izan zen margolaria ikusi, eta maitatu, eta esposatu zuen eguna. Gizona, suharra, jakinzalea, zorrotza, eta Artearekin jada ezkondua; neska, edertasun berezieneko dontzeila, eta maitagarria bezain bizitasunez betea; oro argitasun eta irribarre, eta oreinkumea bezain jostaria; gauza guztiak maitatzen eta gozatzen zituena; Artea baino gorroto ez zuena, hura baitzuen arerioa; bere maitearen begitartea lapurtzen zioten paletak eta pintzelak eta gainerako tresna gaiztoek bakarrik ikaratzen zutena. Hala bada, izugarria izan zen dama harentzat margolaria bere emazte gaztearen erretratua egiteko desioaz mintzatzen entzutea. Emakume apala zen ordea, eta esanekoa, eta umil-umil eman zituen aste asko eta asko dorreko gela ilun, altuan eserita, argiak oihal zurixka goitik bakarrik jotzen zuen gela hartan. Baina bera, margolaria, bere lanaz loriatzen zen, eta orduak eta orduak, egunak eta egunak ematen zituen lanean. Eta gizon suharra zen, eta gogorra, eta

haserrea, ametsetan galtzen zena; eta *ez zuen ikusi nahi* dorre bakartu hartan halako modu beldurgarrian jotzen zuen argiak nola hondatzen zituen bere emaztearen osasuna eta indarra, ahitzen ari baitzen bere senarraz beste guztien bistan. Hala ere emazteak irribarre egiten jarraitzen zuen, kexurik gabe, zeren ikusten baitzuen atsegin arras bizia hartzen zuela margolariak (zeinak ospe handia baitzuen) bere egitekoan, eta gau eta egun aritzen zela bere senarra hain maite zuen, baina hala ere egunetik egunera motelagotzen eta ahultzen zen hura margotzen. Eta erretratua ikusi zuten batzuek antza aipatzen zuten, isilka, mirarizko gauza bailitzan, eta margolariaren gaitasunaren froga bezainbeste, hain zoragarri margotzen zuen emaztearenganako maitasunaren froga balitz bezala. Baina azkenean, lana bukatzen ari zenean, inori ez zioten uzten dorrean sartzen; erotu egin baitzen margolaria bere lanaren eginahalean, eta begiak ez zituen oihaletik ia apartatzen, ezta emaztearen begitarteari so egiteko ere. (...)

1. ARIKETA:

Ipuin honek artea eta bizitzaren arteko harremanez dihardu.

Bukaera ezkutatu dugu.

Nolako amaiera emango zenioke?

10 lerrotan asma ezazu.

Moztutako benetako ipuinaren amaiera hau da:

«Eta ez zuen konturatu nahi aldamenen eserita zeukan emakumearen masailatik atereak zirela oihalean zabaltzen zituen koloreak. Eta aste asko iragan, eta egiteko gutxi geratzen zenean, ez bazen pintzelkada bat ahoan eta tanta bat begian, sugarra lanpararen zuloan nola, hala dardaratu zen berriz damaren izpiritua. Eta orduan pintzelkada jo zuen margolariak, eta ipini zuen kolorea bere lekuan; eta, une batez, zurtuta geratu zen berak sortu zuen lan haren aurrean; baina hurrengo unean, lanari begira oraindik, dardarak hartu zuen eta guztiz zurbildu zen, eta, izaturik, oihuka "Bizitza bera da, bai, hau!", bere maiteari begiratzera itzuli zen: ... *Hila zen!*»

2. ARIKETA: Solasaldia.

- ✓ Bizitza eta artearen harremanak nolakoak izan ohi dira?
- ✓ Zure ustez zeintzuk dira idazleek idazteko dituzten arrazoiak?
- ✓ Irakurleek zertarako irakurtzen dute? Denbora-pasa errealitatetik ihes egiteko, euren bizitza artezteko, gizartea ulertzeko, mundu ezberdinen berri izateko...?

© Edgar Alan Poe

© itzulpenarena: Koro Navarro

<http://www.armiarma.com/unibertsala/poe/aurki.htm> (2009-VI-17)

ETA HANDIK GUTXIRA GAUR

Eider Rodriguez

—Egin arte ez nuen jakin horren erraza izango zenik. Baina egin eta zapla, hortxe amaitu ziren kezakak. Beldur nion lehendabiziko urratsari, buruan buelta asko eman nizkion, asko.

Florenek oihalezko musuzapi bat patrikatik atera eta kopeta sikatu du. Bilobak erdi kezkatuak erdi errespetuz entzuten dio, lurrean jesarrita, indio posturan, maistrak txikiak zirenean agintzen zien bezala. Aitonak bizkarra eman dio lorategiko lanak egiteko, eta hitz egiten jarraitu du.

—Egin eta ospa, hori zen dena, sinplea eta azkarra —begira gelditu zaio bilobari, eta zeremoniatsu gaineratu du—: Baina egin behar zen.

Sargori dago Miarritzen. Abuztua da.

Manex aitonarengana hurbildu da hitzak gertuagotik entzuteko. Belauniko dagoela ari zaio hizketan zaharra, lurra iraultzen, zuhaixka bat landatzeko. Arrazoia du, lehenengo urratsa izango da okerreana. Aitona lur hezea eskuetan ibiltzen ikustea lasaigarri zaio.

—Egidazu kasu, Manex, lehen urrats hori da gaitzena. Hortik aurrerakoak bakarrik datoz, ikusiko duzu. Ausarta izan beharra dago eta lehenengo pauso hori eman. Ondorengoa eginda dago, coser y cantar, nire herrian esango luketen bezala.

—Noiz joango gara zure herrira, aitona?

—Untxiak bizikletan ibiltzen direnean.

Irri egin eta begirada jausi zaio Manexi. Belar artean bere bidea egiten duen amona mantangorri baten gorputzean ipini du arreta. Aitonak arrazoia du. Egin eta kito.

Agureak kopeta lehortu du eta Manexen ondoan jesarri da, plastikozko aulki batean. Adaska baten muturrarekin azkazaletako zikinkeria garbitu du eta entzuten jarri da. Baina Manexek ez du fitsik esan. Amona mantangorriari begira jarraitu du, ez dago zertan hitz egiten jarraitu. Aitonak arrazoia dauka.

37ko udaberria oroitzen du. Oraindik ez da oinazerik gabe gogora ekartzeko gai. Edo ez du oinazerik gabe gogora ekarri nahi. Oinaze hori da Manuelengandik gelditzen zaion bakarra. Akaso inoiz ez diolako nehuri kontatu, akaso oroitzapenak euriteek urratzen dituztelako eta, orduan, kontatutakoaren oihartzun tantak baizik gelditzen ez direlako. Eta euri asko izan da 37tik hona. Baina berak ez dio inoiz nehuri kontatu, ez eta Genevieveri ere, ohean, eskuak elkarri emanda, heriotza itxaroten zuten arratsaldeetan.

Isiltasuna paretei itsatsirik. Harrien mututasunak herriarenarekin bat egiten zuen. Ez zen inoiz hildakoei buruz hitz egiten, eta haien senideei ez zitzaien keinu ulerkorrik eskaintzen. Alkate berriaren etorrerarekin, udal langileen berregituraketa egon zen, gaur egungo hitz bat erabiltzeagatik. Gorriak bota egin zituzten udaletxetik, edo gorria izan zitekeen oro. Faxisten lagunek bete zituzten hutsik gelditutako lanpostuak, edo beste gizagaixo batzuek. Floren mantendu egin zuten. Mutil laño hura beti bakarrik ibiltzen zen, ez zirudien lanjerosa zenik. Herrian arrarotzat zeukaten. Jaio zenean galdu zuen ama, eta aita Iruñera joan zen lan egitera hiru urte geroago. Izeba batekin hazi zen, eta hark ez zuen subertsibo trazarik. Beraz, bota distirantedun alkateak bere lanpostuan mantendu zuen Floren, udal jagolea. Denetarik egiten zuen, baina zereginik kuttunena landareak zaintzea

zuen. Izaki delikatu haiei bizitzen lagundu, zurtoinen freskura hatzetan ukan, muskilen gizontzea gertutik ikusi. Nafarroako Erriberan, balkoian landareak izan zituen lehen udaletxea. Aurreko alkateak baimena eman zion korridoreetan eta balkoietan lorontzi handi batzuk paratzeko, eta halaxe egin zuen Florenek.

Manexek ez daki zer den Gerra Zibila. Eskolan azaldu zieten, baina gauza horiek ahaztu egiten dira, azterketa osteko ogitartekoa irentsi orduko. Aitonaren ahotik entzutea gustuko du. Kosta egiten zaio aitona guda batean irudikatzea. Gudak heriotza eta etsaia esan nahi du, hegazkinak eta kedarrez pintaturiko aurpegierak; eta zaila egiten zaio aitona Floren kontzeptu horiekin lotzea. Zirrara sortzen dio gerratik ihes egin zuela entzuteak, pelikuletako delinkuente edo heroï modura imajina dezake aitona xalo eta bonetaduna.

—Astean zehar bero handia egin zuen, txitxarrek garrasi egiten zuten gauzez. Bazirudien euri erauntsi bat izanen zela. Goiz-goizetik irratiak Marokoko kolpe militarri buruzko berriak zabaldu zituen. Badakizu non dagoen Maroko?

—Afrikan, desertuan —eta sorbaldak harrotu ditu.

—Guardia Zibilaren buruak lasaitasuna eskatu zion herriari, indar polizialak Errepublikaren alde zeudela esanez. Badakizu zer den Errepublika?

—Gutxi gorabehera.

—Zer gehiago, gutxi ala behera?

Leihotik saiheski erre usaina dator, eta ondoren amantal hori bat jantzirik daraman emaztea, À table!, frantsestuek bakarrik dakiten bezala garrasi egiten, À manger!, eztarriko zain guztietatik indarrez irteten zaion xuxurla. Jakien inguruan jesarri dira Manex eta aitona. Emakume oreztadunak entsalada zerbitzatu die plastikozko koilara eta sarde oso handiekin. Manex ez da bere ama begiratzera ausartzen, nahiago du aitona solas lasaigarrian murgildu, ama beti dago erdi

ospel. Aitonak ere nahiago du Manexekin solasean jarraitu, berarekin egotea Manuelekin batzea bilakatu da bat-batean. Amak, bestalde, nahiago du Manexek eta aitonak elkarrizketa pribatuan jarraitzen badute, ez du esparru samurrera jauzi egin nahi, eroso dago bere egontasun inpartzialean.

—Eta Serge? —galdetu dio aitonak, hiru plater besterik ez daudela ikusi duenean.

—Bordelera joan behar izan du bilkura batera. Ez da gauera arte itzuliko.

Begiratu gabe erantzun dio aitonari, Manexen plater gainean uhaza hostoak pausatu dituen bitartean. Ez du aitaren ezkutuko galderari jaramon egiteko gogorik. Manex uhaza hostoei gelditu zaie begira, amaren esalditik ehunka legoara.

Floreni bihotza kargatu zaio bilobarekin izandako solasaldiaren ostean, eta ez da gose. Alabaren muturrari aurre egiteko ere indarge gelditu da.

—Sergek lan gehiegi egiten du, ezta? —galdetu dio Florenek.

—Bof.

Bof. Horrek esan nahi du: Zaude isilik behingoz, ez dut hitz egiteko gogorik, utzidazu bakean eta jan uhaza ostia hori, cette merde de laitue, kokoteraino nago zentzu bikoitza duten zure galderaz, jan eta ixo, agure nekagarri hori, eta segi sagarrondoak landatzera eta irratia entzutera.

Bizilagunen belarra mozteko makinaren motor hotsa besterik ez da entzuten mahaian. Bizilaguna bainujantzi gorriarekin eta Baionako festetako elastikoarekin egongo da ziur aski makinaren atzean, espartinak oinak baino txikiago, oskolean kabitzen ez diren itsas karakolak. Zuhaitzetako hostoak geldirik daude, beroak makaldurik. Ez dabil haizerik.

—Gerra garaiko kontuak esaten ari nintzen Manexi. Agian egun batean herrira eramanen dut, bakantzak amaitu baino lehen. Zer iruditzen zaizu?

—Benetan? —aurpegia oskarbitu zaio alabari, agian berarengandik urrun dagoen zerbaiti buruz ari direlako hizketan—. Eta zer galdu zaizu ba han?

—Galdu ezer ez. Manexek joan egin nahi du —erantzun dio aitonak errudun antzera.

Manex kasketaren azpian gorderik dago. Irri egiten duenean zulo txo bat jaiotzen zaio aurpegiaren alde banatan. Bi zulo txo eta kasketa bat da Manex. Eta hortz handi batzuk. Eta oreztak.

—Sergeri galdeginen diot Donostiara autoz eramateko. Han hartuko dugu autobusa —jarraitu du Florenek.

—A bon —alabak.

—Agian bihar bertan.

—A bon —hitz berdinak, bolumen berdina, baina bekainak zentimetro erdi gorago, eta ezpaineekin zirkulu itxiago bat egin du.

—Bihar ezin dut, surf ikastaroaren azken eguna da, baina etzi bai —esan du Manexek, amari trabeska begiratu.

—E be ados. Niregatik ez dago arazorik —eta saiheitsak banatu ditu hiru plateretan, mugimendu nekoso.

Antzeko beroa egiten zuen udaberri hartan. Herriko Etxearen atzealdean topatu behar zuen Manuel, pilota partida jokatzeko. Bezperan, bero handiegia zegoenez, partida egin ordez belazeetan etzan ziren, alkandorak erantzirik, urdintasun epelera begira, izerditan, hizketan, begira. Gazte harekin bakarrik hitz egiten zuen Florenek herrian, eta bera baino gazteagoa zen lehengusina batekin. Manuel agertu ez zen arratsalde hartan tenperatura altuak zeuden, eta Floren poztu egin zen, pilotan ibili ordez belazeetan etzango zirelako, hizketan, izerditan, begira. Ero eta alai. Halakoxea zen Manuel. Eta Florenek ere halakoxea izan nahi zuen. Horretan

pentzatur eraman zituen zahatoa eta gazta pusketan bat, baina arratsalde hartan Manuel ez zen azaldu. Eta Floren haserretu egin zen, pentzatur batzar ezkuturen batean egonen zela, beste batzuetan legez. Florenek bakardadea sentitu zuen aurreneko aldiz bere bizitzan. Ordura arte inoiz ez zuen pertsona baten gabezia sumatu, presentzia ere sentitu ez zuen bezala. Eta gauza itsusia zen bakardadea, lapurreta bat bezala, harri gainean lo egitea bezala. Manuelen zain jarraitu zuen arratsalde hartan zahatoa ia hustu zuen gaztarekin lagunduta. Mingaina ahoan ezin kabiturik etxera itzuli zenean, izebak esan zion, aho-kordei ia eragin gabe, hil egin zituztela herriko bost gazte. Eta izebaren keinu gabezia hura, nola jarraitu zuen marmitatik esnea ateratzen, eta gero arrozarekin eta kanela adar zatiekin nahasten.

Valentin Sarnago: Conejo. Adolfo Belzunze. Mari Garro: Leonorren koinatua. Luis: harakinaren semea. Eta Manuel Iroz: Manuel.

Florenek odolaren zapora gazia sentitu zuen ardoarekin nahasturik. Eta Manuelen izena behin eta berriz ahopeka errepikatzea besterik ez zitzaion etorri, izebak mahai gainean afaria paratu zuen arte. Egurrezko mahaiaren kontra platerak egindako hotsak ekarri zuten Floren bizidunen mundura, edo, kasu honetan, hildakoenera.

—Ma chère —esan dio alabari frantsesaren ahoskera lege guztiei muzin eginez—: Siestara noa. Bero nardagarri honek tripak aldrebestu dizkit. Mon pot —esan dio Manexi eta, zerbait gaineratuko zuela zirudien arren, ez du beste ezer esan.

Eta meloiari haginka eginez gelditu dira ama eta semea, bata bestearen ondoan, irribarre berde erraldoiak aurpegietan, etxea inguratzen duen hesiari so.

Floren ohe gainean jesarri da. Ez du loak hartzeko inolako asmorik. Bihotza erreta daukala konturatu da, eztarria puztuta. Genevieve hilzorian zegoenean hainbatetan pentzatu zuen guztia kontatzea, Manuelekin iragandako egunei buruz

hitz egitea, baina ezin. Emaztea hil ostean heriotzak bete zion gogoia, eta ez zen gehiago Manuelekin oroitu. Gaur arte. Manuelen eta Genevieveren hozkak gibelean, odolaren eta eritasunaren usainak, alabaren begi grisak mahaiaren bestaldean. Eta Manex ttiapiaren beldurrak.

Hurrengo egunean Floren betiko legez joan zen udaletxera lanera. Alkatea barrez lehertzen entzun zuen eskailerak igo zituenean. Egun hartan goiko gelara zihoan eskaileraren harmaila konpontzea egokitu zitzaion, eta hori profitatu zuen ganbaran gorderik egoteko, noizean behin mailukada batzuk jotzen. Ohiko lasaitasunaren arrastorik ez zegoen gazte harengan, dena zen sua eta gorrotoa. Eguerdi aldera, alkatea eta idazkaria hamaiketakoa hartzen ikusi zituen betiko tabernan, eta Floreni tripak irauli zitzaizkion berriro.

—¿Qué vida o qué? —bota zion alkateak, bere mutur olioiz bustia basa animalia baten antzera mugituz.

Txerri oinak ikusi zituen platerean, atzamar bat sardean iltzaturik, saltsa arrean bildurik. Idazkariak arrautza bat eta txistorra zati bi zituen aurrean, eta eskuoihala lepo inguruan loturik.

—¿Te se ha comido la lengua el gato, o qué?

—Buen día, señor alcalde —eta hitzok esan eta berehala konprenitu zuen mendekua izanen zela.

Atea jo dute. Florenek ohea harrotu du eta bertan etzan da, esnatu berriaren plantak eginez. Alaba da.

—Banandu egingo gara. Serge eta biok banandu egingo gara. Apartamentu bat hartu du Bidarten. Datorren hilean joango da hemendik. Voilà, hori da dena. Eta ez dut hitz egiteko gogorik. Ez egin galderarik, otoi.

Maratila askatu gabe mintzatu da, korridoretik, aitaren logela zapaldu gabe. Floren ohean eserita dago, eta ez daki zer den egokiagoa, poztu edo serio aurpegiera jartzea.

—Bo —ausartu da.

—Bion arteko erabakia izan da. Hauetako egun batean esango diot Manexi, eta voilà —eskuak haserre bezala astindu ditu—. Arraina utzi dizuet gauerako. Magaliren etxean afalduko dut nik. Labean sartu eta kito, hoge minututan prest izango duzue.

Eta gero eskaileretan behera abiatu da, takoiek egur gainean egiten duten hotsa Florenen logelan utziz.

Bilobarekin herrira joateko irrikan dagoela ohartu da, aspaldidanik ez duela halako grinarik gorputzean sentitu. Manuelena gaztaroko kontu txatxu bat izan zela uste nahi izan zuen, baina ez da. Pelikuletan bezala, argazkiak begiratu nahiko lituzke orain, 63 urteren ondoren, baina ez du argazkirik. Izebaren gutun batzuk gorde zituen garai batez, lehengusinarene baten batzuk, larruzko pilota bat, eta Manuelek inoiz eman zion Errepublikaren intsignia txiki bat, baina orain hori ere ez du. Crédit Agricole banketxeak noizbait oparitutako maletatxoan gorde izan zituen gauzok. Orain Crédit Agricolek oparitutako maletatxoan Genevieveri Paristik igorritako gutunak dauzka, Genevievek Ziburutik erantzun zituenak, Manexen lehen marrazkietako bat, eta gurasoen ezkontzako argazkia, baina horrek ez dio urrutiko oroitzapenik ekartzen, ez antzinako barnerik ukitzen, ukabil hutsak edukitzea bezala da. Manuelen oroitzapena da herriarekin duen lotura sendo bakarra, hango lur usaina gogora dakarkion bakarra. Eta horra hurbiltzeko memorian arakatzeari beste biderik ez du.

Mendekua bururatu zitzaioneko eguna oroitu nahi du Florenek. Badaki Manuel erail eta gutxira izan zela, baina ez du oroitzen zehazki noiz. Lehengusinari eskatu

zion Iruñetik haziak ekartzeko. Petuniak etxeko baratzean landatu zituen lehenik, loratu arte. Mendekua gehiago gozatzeko modu bat izan zen: egunero baratzera joan, lurrean zerbait irten zen zaintzera, ureztatzera, haizearen magalean mugitzen begiratzera. Hasieran koloretako burutxoak hasi ziren, gauza delikatu batzuk, iletxoekin, Florentzat izaki erabat ezezagunak. Gero burutxoak zabaltzen joan ziren kanpai itxura hartu arte. Eta Floreni berebiziko ikuskizuna iruditu zitzaion. Loreak erabat zabaldu ziren egunean garraiatu zuen lurra orgatxo batean. Udaletxeko balkoiko lorontzietan lurra atontzen ikusi du bere burua. Lur freskoa eta leuna.

—¿Qué pasa o qué? —galdetu zion idazkariak, bota distiranteek ematen zioten itxura beldurgarritik.

—Que voy a adornar el balcón p'al día de la Virgen.

Idazkaria Florenek ezagutzen ez zuen militar batekin zegoen, eta honek esandako zerbaitengatik barrez lehertzen aldendu ziren biak. Larruzko botek lurreko hautsa harrotzen zuten ibiltzerakoan. Bi gizaseme haiek hodei batean urruntzen ikusi zituen Florenek eta lurra ukabil zarratuetan estutu du hartxintzarren oinazea sentitu arte.

Manex kasketa jantzirik duela jaitsi da gosaltzera. Motxila handiegia du bizkarretik zintzilik, eta horrek areagotu egiten du bere argaltasuna. Florenek bi baso esne atera ditu mikrouhin labetik.

—Ez al duzu motxila kenduko gosaltzeko? Dortoka bat dirudizu —esan dio aitonak.

Manexek masailak puztu ditu, eta eskuekin dortoka baten igerialdia imitatu du. Aitonak eta bilobak txokolatesnea hartu dute, eta ogi erreka ahabi konfiturarekin. Gauean Florenek ez du ia lorik egin nerbioen erruz. Uste baino denbora gehiago

darama bere herrira itzuli gabe, eta uste baino gogo handiagoa dauka itzultzeko. Ontziak harraskara eraman baino lehen entzun dute Sergeren autoaren bozina hotsa eta etxetik irten dira. Manexek agur egin dio eskuaz amari; bere logelako leihotik begira dago, katilu bat eskuartean, korri egiteko txandalarekin jantzirik. Florenek ere agur egin dio, eta motorra martxan duen autoan igo dira.

—Zer gertatu zaizu ba orain hara joateko? Ondo iruditzen zait, ez pentsa, baina arraroa da, ez?, hainbeste urte eta gero halako batean hara itzultzea.

Sergek azkar gidatzen du. Sintonizatu gabeko irrati orroen gainetik egiten du oihu. Bere alboan, Manex, Game Boyarekin jolasean ari da.

—Manexi nire jaioterria erakutsi nahi diot, jakingura dauka —erantzun du Florenek atzeko eserlekutik.

—A bon? —eta Manexi kolpetxo konplize bat eman dio kasketan maitekiro.

Mutikoak ez du pantailatik begirada altxa. Atzean utzi dituzte belaze berdeak eta pertsona begiak dituzten behiak, eta etxe zuri-gorriak bidearen bazterretara. Donostiara iritsitakoan, autobus geltokian utzi ditu Sergek.

—Zortzietan puntuan hemen izanen naiz bueltan. Txintxoak izan —esan die irratiaren zurrunbiloaren gainetik, eta Manexi beste kolpetxo bat eman dio buru gainean.

Floren eta Manex aske sentitu dira bakarrik gelditu direnean. Txartelak erosi eta autobusean igo dira.

—Hitz egin genuenari buruz pentsatu duzu?

—Pixka bat.

—Eta?

—E be hori —Manexek itzalita dagoen Game Boyaren gomazko botoiak sakatu ditu, begirada jausirik.

—E be hori zer? —galdetu dio aitonak haserre plantak eginez.

—E be arrazoi duzula.

—Seguru nago ez dela horrenbesterako izango. Irakasle bat hil eta lorategian ehortzi duzu!, hori da?

—Ez —mutikoak irriz.

—Norbait akatzeko egitasmotan zabilta?

—Ez!

—Amaren ezkontza-eraztuna saldu duzu droga erosteko?

—Ez!

—Orduan zaude lasai, amari ere ez zaio hain grabea irudituko-eta.

Eta botoiei sakatzen jarraitu du pixka batean. Gero lo egin du, kasketa aurpegi gainean paraturik, aitonaren izterren gainean kiribilduta. Floren erne doa, leihotik begira, ez du egun honen segundo bat bera ere galdu nahi. Bere bizitzan egiten ari den atzera bidaia da, ilobaren eskutik iraganera. Paisaia horitzen den heinean bizkorrago doa Florenen gogoia. Bi orduren buruan iritsi dira. Errepidetik ikusten den elizagatik izango ez balitz, ez luke bere jaioterria ezagutuko. Manex esnatu behar duela pentsatu du, baina unea luzatu du, gustura dago-eta bakarrik. Sexuan kilimak igarri ditu herrira iritsi direnean, gaztetan ere gertatzen zitzaion halakoetan, nerbioengatik. Manexi kasketa kendu dio aurpegi gainetik eta eguzkia jarri da bere gainean. Begiak kliskatuz, ezpainak adurrez bustirik, galdetu du:

—Non gaude?

—Nire herrian —esan du, eta bakarrik sentitu da bat-batean.

Manuel eta gero, Florenek ez du beste gizonik maitatu. Bera baino lehen bai, 14-15 urterekin, esne saltzailearen semea, baina ez du bere izena oroitzen. Behi artean maitatzen zuten elkar, ukuiluan, pixa usaineko lastoaren gainean, azkar. Eta

gero errapeetatik edaten zioten esne epela behiari, azkar baita ere. Hori ere ahaztuta zeukan gaur arte. Baina Manuelena ezberdina zen. Lagunak ziren. Edo oraindik inportanteago zena, lagunak izango ziren. Manuel izan da bere azken gizona. Handik gutxira, herritik alde egin zuen urte berean, Ziburun ezagutu zuen Genevieve, eta handik gutxira ezkondu ziren. Handik gutxira jaio zen alaba, eta handik gutxira Akizen bizi den Pedro. Eta handik gutxira gaur.

Lehen soroak ziren hartan supermerkatu eta gasolindegia landatu dituzte, eta etxebizitza geometrikoek eten dute hodeiertza. Baseliza zegoen tokian osasun-etxea jarri dute, eta bere etxea zegoen tokitik errepide zabal bat igarotzen da.

—Hemen bizi nintzen, Manex.

—Errepide gainean?

Jendearen azentuak ezagutzen ditu, gaztelaniazko hitzak ahoskatzeko modua, hain bakarra. Norbaitekin hitz egiteko premia sentitu du, gaztelaniaz; Miarritzen oso jende gutxirekin egiten du gaztelaniaz, Behobiko lagun batekin eta beste pare batekin, baina ez gaztetako gaztelaniaz. Bere adineko norbaitekin hitz egin nahi du, aditzak ebakitzeko modu gozo hori, ahoskera hunkigarri hori entzun. Lo aurpegiarekin oraindik, Manexek aitonaren ibilerak kopia ditu, eskuak atzean emanda, begitartea zimur, bonetaren ordezkasketa. Antza dute.

Udaletxeko plazara iritsi direnean erdi-erdian paratu dira.

—Hortxe egiten nuen lan. Ez da asko aldatu. Ni izan nintzen balkoietan lorontziak jarri zituen, bazenekien? Hau izan zen Erribera osoan loreak izan zituen lehen udaletxea.

Gau hartan alde egin zuen herritik, betirako, atzera begiratu gabe. Gaur arte. Burusi batean bildurik: argazki bi, ogi apur bat, txokolatea, gazta laurden bat,

alkandora bat, galtzontzilo eta galtzerdi pare bat, eta galtzerdien barruan 25 ogerleko.

Bidean negar egin zuen, atzean utzi ez zituen gauza guztiengatik. Egun osoa oinez eman ostean iritsi zen Iruñera. Bere bigarren aldia zen hirian. Jende gehiegi zegoela iruditu zitzaion. Militar batzuk ondotik igaro zirenean arnasa eten zuen Florenek, uste baitzuen bazekitela, eta fusilatu egingo zutela. Baina militarrek bota hotsekin batera urrutiratu ziren, eta hautsez beteriko espartinei begira gelditu zen Floren, oraindik denbora pixka batean. Bi egunen buruan muga gurutzatu eta Ziburun hartu zuen ostatu. Han ezagutu zuen Genevieve, eta handik gutxira ezkondu ziren. Handik gutxira jaio zen alaba, eta handik gutxira Akizen bizi den Pedro. Handik gutxira alaba Sergerekin ezkondu eta Manex jaio zen.

Eta handik gutxira gaur.

Udaletxe pareko arkupean dago Floren, Manexekin, gau hura oroitzapenean. Lorontzietan pinu txikiak daude landaturik, eta balkoitik zintzilik *Paz* dioen pankarta karratua.

—Negarrez ari zara? —galdetu dio Manexek.

—Zergatik ariko naiz ba negarrez?

—E be agian triste jarri zara zure herrira etortzeagatik.

—Triste? Pozik nago-eta!

—Negarrez ari zara —esan dio haurrak, detektibe plantak eginez.

—Hemen esaten duten bezala, Eres peor que una caparra en los huevos —
esan dio Florenek, baina Manexek ez du ulertu zer den *caparra* eta *huevos*.

Loreak erabat ireki zirenean baratzetik erauzi eta lurrez betetako orgatxoan jarri zituen etzanda, umetxoak bailiran. Hiru bidaia egin behar izan zituen lore guztiak baratzetik udaletxeraino eramateko, gauez, eta inoiz baino isilago zegoen harrizko

herri hartan orgatxoaren karrankarekin jendea esnatzearen beldur izan zen. Gau epela zen, eta argia. Balkoietako lorontzietako lurra atondu eta petuniak landatu zituen bertan, Manuel eta besteen kolore maiteekin: lehenengo ubelak, gero horiak, gero gorriak. Asko. Gau hartan ilargiak gazta tankera zuen edo barrez ari den emakume oso gizen batena. Ez zebilen inor kaleetan. Udaletxe plazako arkupeetan zigarro bat isiotu zuen Florenek. Ederra zen handik ikusten zena. Ilargi esnetan bustiriko loreak balkoietatik zintzilik, mendekuaren kolorekoak, garrasiaren kolorekoak, haize epelaren kulunkan. Manuel lapurtu ziotenetik lehen aldiz sentitu zen osorik, nahiz eta bakarrik.

Manexi lepoan zimiko bat eginez esan dio:

—Goazen, gauza asko ditugu ikusteko.

Biak eskuak atzean emanda dituztela joan dira, pauso txikiz, udaletxe ondoko estankora.

—¿Tú eres Perico? —esan dio, goxoki, fruitu lehor eta tabako paketeen atzean kristal lodi eta zikinetan gordetzen den agureari—. ¿Te acuerdas de mí?

Gizon betaurrekodunak hortz artean duen zotzari eragin dio, baina ez dio ezer erantzun.

—¿Sabes quién soy? Soy Floren Ainzua, el sobrino de la Paca, la huevera. ¿Te acuerdas?

Gizonak betaurrekoak erantzi eta litxarrerriak biltzeko erabiltzen dituen paperezko eskuoihal batekin garbitu ditu. Arrautzak saltzen zituen emakume hura oroitu du, gaztetan desagertu zen iloba isil eta arraroa... oroitzapenak etortzen hasi zaizkio.

—Sí que me acuerdo —tabako saltzaileak eskua luzatu dio leihatilatik, debekaturiko zerbait egiten ariko balitz bezala, azkar eta ikarati—. ¿Qué vida o qué?

Florenek tinko estutu du, eta oraindik sendoak diren hortzak erakutsi dizkio.

—Mira, éste es mi nieto —esan dio, lur koloreko eskua Manexen buru gainean jarrita. Eta aurrera egin baino lehen, begirada udaletxeko balkoian etzanda, gaineratu du—: Sólo habla francés y vasco.

© *Eider Rodriguez*

www.susa-literatura.com

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuok.pl?lib=narr56> (2009-VI-12)

- **HIZTEGIA LANTZEN:** Sinonimoak eman zutabeotako hitzak elkartuz

<ul style="list-style-type: none">• XALO• AHABIA• HODEIERTZ• PARATU• LANJEROS• GALDEGIN• JAGOLE• ERAUZI• ZURTOIN• BURUSI• OSPEL• KLISKATU• UHAZA• AKATU• BAKANTZA• KEDAR• BELAZE• HARRASKA• PROFITATU• KASKETA• MENDREKU• MUSKIL	<ul style="list-style-type: none">• aran• jarri, prestatu• eskatu• errotik atera• manta, estalki• klistatu, keinu egin, ñir nir aritu• hil• erre-kedar• uraska• buru, kaska, kasko• kimu• asperkizun, asperraldi• atarramendu atera• belardi• opor• letxuga• laiotz, eguzkigabe• txorten• zaindari• arriskutsu• zerumuga, zeruertz• laño, atsegin, begiko, maitagarri
---	--

- **IDAZMEN TAILERRA:** Ipuin honetan gertatzen dena saiatu Mañexen ikuspegitik kontatzen.
- **Irakurri Xabier Montoiaren “Ikatza bezain beltz” ipuina (M.J. Olaziregi *Mende berrirako ipuinak. Antologia. Erein, 2005*)**

Bi ipuinetan protagonista nagusien arazoak berdintsuak dira, eta garai berberean kokatuta daude (Guda Zibilean). Ipuinetan erakusten duten jarrera berbera da? Arazoei aurre egiteko moduz zer esan daiteke?

• IPUINAREN KOMENTARIOA

- 1** Zein da ipuin honen **gai nagusia**?: heriotza, maitasuna, familia, ohiturak, gizartea...
- 2** Zein da erabilitako **tonua**?: tragikoa, ironikoa, errealista, komikoa, poetikoa...
- 3** Zein pertsona erabili du **narratzaileak** gertaeren berri emateko? Eta gertaeren eta pertsonaien ezagutzaren arabera, nolakoa da?
Orojakilea: dena ezagutzen du, baita pertsonaien barne-mundua ere.
Lekukoa: ikusten eta entzuten duena kontatzen du.
- 4** Zein da **pertsonaia nagusia**? Eta **bigarren mailakoak**? (Beharrezkoak dira eta ekintzetan parte hartzen dute) Eta **osagarriak**? (ez dute parte hartzen ekintzetan eta espazioa betetzeko edo giroa osatzeko bakarrik balio dute).
- 5** -Protagonistaren nortasunaren arabera, pertsonaia **biribila** da? (nortasun konplexua duena, aldakorra) ala pertsonaia **laua**? (nortasun bakunekoa, aldatzen ez dena eta berehala antzematen da nolakoa den).
- 6** **Espazioa**=lekua: Nolakoa da? **Errealia**? (egunerokotasuna) **Irrealia**? (fantasia)
- 7** **Irekia**? (abentura) **Itxia**? (gogoetarako aproposa). Espazioaren deskribapenari dagokionez, **subjektiboa** da? (norberaren sentimenduak nahastuta). **Objektiboa**? (ikusten, entzuten, usaintzen dena deskribatuz...)

8 Denbora: iragana, oraina, etorkizuna? Ekintzen ordena kronologikoa errespetatzen da?

- **BALIOZTAPENA**

- 1** Zer emozio eragin digu testuak eta zein elementu objektibotan islatzen da?
- 2** Zure iritziz, ba al dator bat izenburua ipuinaren edukiarekin? Arrazoitu erantzuna.
- 3** Beste izenburu bat ipintzekotan, zein ipiniko zenioke?
- 4** Komentatu zure taldekoekin ipuinaren ulermena oztopatu dezaketen kontuak (lexikoa, joskera, baliabide literarioak, hizketa-maila...), izen arraroak, aipamenak, leku-izenak...

Ahaztu behar ez diren bi puntutxo:

- Ipuin guztietan idazleek erabiltzen dituzten irudi obsesiboak identifikatzen jakin behar dugu. Ipuin honetan “irudi obsesiboa” zein litzateke?
- Ipuinetan bi istorio kontatzen dira gehienetan, era berean. Bata lehenengo planoan, eta, bestea sakonean. Lehenengoaren zirrikituan bigarrena sartzea artea da sorpresa efektua lortuz. Hemen sorpresa efektu hori non agertzen da

IPUINARI BURUZKO GALDERAK


- 1** Ipuin honek, beste askok bezala, badu bere hasiera, korapiloa eta amaiera. Kontatu zeintzuk diren, edo nondik nora doazen.
- 2** Baloreak. Zeintzuk dira ipuinak lantzen edo planteatzen dituenak?: adiskidetasuna, bakardadea, heriotzaren aurrean behar dugun jarrera, herrimina?
- 3** Zertan edo nola adierazten du ipuinak protagonistaren herrimina? (Lurraren usaina sentitu nahia, herrikoen hizkera? Erriberan gaztelaniaz hitz egiten da)
- 4** Ipuinak, gehienetan, haurrei zuzenduta egoten dira, baina honako hau, nori zuzenduta dagoela uste duzu?
- 5** Ipuinaren izena egokia al da? Beste izenen bat mereziko luke?
- 6** Amaieran ere badago mezua “Solo sabe euskara y francés”. Ipuina Miarritzen kokatuta dago eta, beraz, Euskal Herrian, baina han euskaraz norekin hitz egingo du umeak? Zer hizkuntza egoera dago Iparraldean?
- 7** Landareak zaintzen ditu aitona, eta landareak zaintzen zituen bere herrian. Zein ikuspegi eman nahi dio idazleak horrekin? (Naturalista?)
- 8** Bakardadea sentitzen du protagonistak, Manuel bere laguna hiltzen dutenean. Nola ematen da horren berri eta zenbaterainokoa da bakardadea?

- 9** Ipuinaren protagonista ez da umea, agurea baizik. Umea balitz, mundura irtetea bakarrik egingo zukeen. Babesean bizi da, etxean eta etxekoekin, maite dutenekin, eta etxetik irtetea eta kanpoko erasoei aurre egitea bakarrik egin beharko luke. Hori da prozesu iniziatiko baten ibilbidea . Hemen beste modu batera dago planteatuta.
- 10** Bere lagun Manuelena ez zion inori kontatu aitonak, ezta bere emazteari ere. Orain ilobari bai. Iloba da heldutasunera eraman nahi duena. Ilobak lasaitasuna sentitzen du aitonaren kontuekin. Iloba eta aitona, aitona eta iloba, biak dira lehengo eta oraingo mundua lotu nahi dituztenak.
- 11** Bi heriotzaren berri ematen du ipuinak, baina Manuelena gogoratzeak tripak nahasi dizkio aitonari. Samin hori kendu ezina du gainetik. Bidaia horretarako ere izan daiteke?
- 12** Beste mezu batzuk: Alabak banandu egingo dela labur-labur esaten dio. Horregatik ote hain lotua biloba aitonari? Zerbait segurua delako?
- 13** Ipuinak erabiltzen dituen loturak: “antzeko beroa egiten zuen”, oraina iraganarekin lotzeko.
- 14** Ipuin klasikoko gaiak: Heriotza (hari aurre egin behar), etsaia (munduan asko dira), adiskidetasuna, gorrotoa (Gerra Zibila).
- 15** Kontrastea. Solasa: amarekikoa, petrala eta aitonarekin lasaigarria.
- 16** Sailkapena:
- Hasiera: Egoeraren berri ematea. Pertsonaiak. Non bizi dira, nola...?
 - Garapena: Aitonaren herria ezagutzeko erabakia, bidaia egitea,

mundua ezagutzea...


- Amaiera: Herrira heldu eta han ezagutzera eman: herriko hizkera gozoaz gozatu.

Azken konklusioa: "Solo sabe francés y euskara".



DAMA TXAKURTXODUNA

A. Txekhov errusiarraren ipuin hau onarpen handikoa da nazioarteko literaturan.



IPUINAK **ANTON TXEKHOV**

Euskaratzailea: Xabier Mendiguren

- 1** Atzitu ezazu helbide honetan:
<http://www.armiarma.com/unibertsala/txekhov/txek02.htm>
- 2** Irakur ezazu: harreman sentimental baten gaineko testua da. Atera testutik bi pertsonaien hurbilketa adierazten duten keinuak.
- 3** Gizartean badira bikotea eskuratzeko asmoz hainbat jokabide. Zerrendatu ezagutzen dituzun ligatzeko trikimailuak.
- 4** Sailka itzazu ligatzeko erak adinaren, generoaren, sasoia, tokiaren... edo beste kategoria batzuen arabera (zeuk aukeratu kategoriak).
- 5** Konpara itzazu lehengo eta oraingo ligatzeko moduak, mutilenak eta neskenak... hartu bi konparabide.

- 6** Arazoen konponbidea. Triangelu honek sortzen duen korapiloa nola askatu liteke? Zein aholku emango zenioke emakumeari edo gizonari? Idatz iezaiozu eskutitza.
- 7** Norberaren esperientzaren trukaketa. Arlo honetan damurik al duzu? Gaztetako pasadizo bat kontatu.

BIBLIOGRAFIA:

- Alonso, A. eta Guillén, N.: “Literatur testuak lantzen: trebetasunen integraziorako aukera bat (I)” in *Hizpide* 47. 2000 iraila-abendua.
- Alonso, A. eta Guillén, N.: “Literatur testuak lantzen: trebetasunen integraziorako aukera bat (II)” in *Hizpide* 48. 2001 iraila-abendua.
- Aunitz Autore: *Irakurri. Hamaika idazki literario irakurtzeari buruz*. meettok: Donostia, 2008.
- Collie, J. eta Slater, S.: *Literature in the Language Classroom*. Cambridge University Press, 1987
- Duff, A. eta Maley, A.: *Literature*. Oxford University Press, 1990.
- Elordi, J. (koord.). *Manual literaturazkoa*. Cénlit ediciones: Lizarra, 2003.
- Elorriaga, U.: *Literatur ideia batzuk*. Labayru ikastegia: Bilbao, 2001.
- Euskal Idazleen Elkarte. *Ipuina lantzeko gida*. EIE: Donostia, 2004.
- Igerabide, J.K. “Izar ona” ipuina.
Berria: <http://www.berria.info/narrazioak/igerabide.htm>
- Kohan, S.: *Taller de lectura: el método*. Alba: Barcelona, 2006.
- Kramersch, C. *Context and Culture in Language Teaching*. Oxford University Press, 1993.
- *Literatur Emailuak*: Testu-literarioen iturria. <http://www.armiarma.com/emailuok>
- Ur, P. eta Wright, A.: *Five-Minute Activities*. Cambridge University Press. 1992.
- Willis, J.: *Atazatan oinarritutako ikaskuntzarako lan-markoa*. HABE: Donostia, 1999.